# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-02-20
EGUBAKOITZA
629. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
*GOIENA.EUS*

TOKIKOM


## 260 lagunek parte hartuko dute domekan Antzuolako 8 Milietan | 30

## Bihar sinatuko dute Candyk, sindikatuek eta Diputazioak akordioa | 3

'Mozkorra parregarri' taularatuko dute Bergarako artista ugarik | 32



Aramaion Arabako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa | 27



Oñatiko erraldoi eta txorimalo eraberrituen lehen desfilea | 18



Montse Valerio, Soran jauregiko ugazaba, bisitari bat zerbitzatzen.

JAGOBA DOMINGO

# Bizirik irauteko ate gehiago

Leintz Gatzagan bisitariak erakartzen eta lanpostuak sortzen ahaleginduko dira | 28

# Gudariei omenaldia

Intxortako borrokalariak batu gura dituzte apirilaren 19an | 8



Erresistenteen Eguneko antolatzaileak ekimena aurkezten | LARRAITZ ZEBERIO

## Deskargako obren kontratua eten egingo du Diputazioak

Urte amaieran lanak berriro ere hastea espero dute | 2




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

**Tabakalera gertutik Haritz Azkarragarekin**

**Governors-en zuzeneko grabazioaren atzeko lana**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK

- IÑAKI UGARTEBURU | 5
- 5 | MIRARI ALTUBE
- AITOR OROBENGOA | 10
- 16 | SAIOA GARITANO
- ELIAS ZUMALDE | 18
- 24 | YERA SANCHEZ
- SONIA ETXENAUSIA | 27
- 40 | ANDER ETXEBERRIA


☎ 943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Golf GTI

Deportibotasuna
Nortasuna
Askatasuna





Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 5 | HERRIAK 8 | KIROLA 30 | KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Deskargako lanak eten egingo dituzte

- Enpresak utzi egingo du obra zubiak bukatzean
- Espero dute urte amaieran hasiko direla berriro lanean


Deskarga eta Antzuola bitarteko obretako zubi bat, eguaztenean. | UBANE MADERA

**UBANE MADERA** | ANTZUOLA

Beasain-Durango korridorearen Deskargatik Antzuolara bitarteko tramuan "biaduktuak bukatzear daude; bost biaduktu dira guztira, eta horiek bide onetik doaz, eta epean amaituko dira. Arazoa geologian dago. Agerikoa da. Paretak jausi egiten direla da arazoa, eta horixe izan da hasiera-hasieratik obra horrek duen arazoa: geoteknikoa", azpimarratu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Azpiegitura Sailetik.

Gauzak horrela, erabaki ezohikoa hartu dute: obren kontratua etetea.

### Beste proiektu bat landuko dute

Kontua da azken hilabeteetan obraren egoera, lur mugimenduak eta konponbiderako aukerak aztertzen ibili direla Aldundiko eta asistentziako teknikariak.

Bada, Diputazioak jakinarazitakoaren arabera, teknikari horiek egindako azterketek erakutsi dute onartutako proiektua ez zela egokia eremu horretan errepidea eraikitzeko, eta proiektu egokiagoa egin behar dela ondorioztatu dute. Ez du egoki ikusi onartutako proiektua "aldatzen eta aldatzen" jarraitzea, "inolako bermerik gabe", eta beste proiektu bat egitea erabaki du.

### Urte bukaeran hastea espero

Hori guztia dela eta, Diputazioak erabaki du obra horren kontratua etetea. Hala, enpresak zubibideak bukatuko ditu eta ondoren utzi egingo du obra. Bitartean, Aldundiak proiektu egokiagoa landuko du eta proiektu hori lehiaketara aterako du, lehiaketa hori irabazten duenak bete dezan. Erabaki horren ondorioz, kontratua eta lanak eten egingo dira laster, eta, behin beste proiektua onartu eta esleitu ondoren, lanak urte bukaeran berriro hasiko direla espero dute.

### Erabaki zaila

"Erabakia ez da erraza izan, baina Aldundiak argi du gauzak ongi egin behar direla, segurtasuna dago-eta jokoan. Proiektu berriarekin segurtasun bermea askoz ere handiagoa izango da, eta, gainera, oraingo proiektuak zituen hainbat arazo konponduko ditu –Bergarako sarreran mugimendu guztiak bermatuko dituen biribilgune bat egingo dute, Bergarako Udalaren eskakizun historikoa izan dena–", azpimarratu dute Gipuzkoako Foru Aldunditik.

"Aldundiarentzat, inguruko herritarrei sor diezaieketen oztopoak kezka iturri dira, baina balantzan zegoena segurtasuna eta diru publikoaren kudeaketa zorrotza direnez, ba horien alde egin du". Izan ere, segurtasunaz gainera, diru publikoaren kontrol zorrotzaren gaia ere badago. Kontratu Publikoen Legeak ez du baimentzen onartutako proiektuaren eta gauzatutakoaren arteko aldea %10 baino gehiago izatea, eta, proiektuan egin beharreko aldaketek kopuru hori gainditzea eragingo luketenez, "horrelako gain-kostuak egin aurretik" kontratua etetea erabaki dute. "Ez da erabaki ohikoa gurean –ez da kasu bakarra, baina bai bakana–, baina Aldundiak argi zuen ez zela trikimailuak egiten hasiko lege oztopo hori gainditzeko", esan dute.

Bitartean, Aldundiak "ezinbestekoak diren zenbait lan" egingo ditu inguruan, batez ere ezponda (talud) batzuen euste lanak.

### Urretxu-Antzuola, martxoan

Beasain-Durango korridorearen Urretxu eta Antzuola bitarteko GI-632 errepide zatia, berriz, martxo bukaeran inauguratuko dute. "Apirilerako zabalik izango da", jakinarazi dute Diputaziotik. "Irekiko da epe barruan; eta hori azpimarratzeko modukoa da; izan ere, Gipuzkoan azkeneko zortzi urtetan egindako errepidetako obra nagusiek batez beste 18 hilabeteko atzerapena izan dute". Beraz, apiriletik aurrera Deskargako tunelaren bidez gainditu ahal izango da Deskargako mendateko zati handi bat.

Hori bai, Deskargako obrek ez dute amaiera datarik. "Proiektua erredaktatu zuten ingeniariek ez zuten nahiko ikerketarik egin. Eta, gainera, Euskal Herrian gauzak beti egin izan dira mendiak apurtuta eta mendiak zatituta, eta nik uste dut hau dela froga bat nola ez diren egin behar gauzak: mendiak zatitu, izugarrizko talud altuak egin, horiek erori egiten dira… eta horrek obra asko zailtzen eta garestitzen du", adierazi dio GOIENAri Larraitz Ugartek, Mugikortasun diputatuak.

Horri erantzunez, berriz, Aintzane Oiarbide jeltzaleak zalantzan jarri ditu diputatuaren arrazoi horiek: "Orografia korapilatsua omen dugu Gipuzkoan. besteek egindako errepideetarako ez du balio nolabait arrazoi horrek. Prezioan ere desfase eta gain-kostuak handiak izan daitezkeela onartu du, eta legealdi osoa pasa du esanaz Bilduk gain-kosturik gabe egingo zituela obra hauek. (…) Gain-kostu handiak izango dira eta ez dakigu noiz arte arriskuan ibili beharko dugun Deskargan".

**Azterketek erakutsi dute proiektua ez zela egokia, Diputazioak dioenez**

**Segurtasuna eta diru publikoaren kontrola bermatu gura dutela ere diote**



# Asmo-akordioa, Candyren, Diputazioaren eta sindikatuen artean

## Gaur, egubakoitza, auzi horretan parte diren alde guztiek akordioa sinatuko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan

UBANE MADERA | BERGARA
Zortzi puntu ditu oraingo asteko eguaztenean Gipuzkoako Foru Aldundiak, Candy Hoover enpresako zuzendaritzak eta ESK, LAB, ELA, CCOO, eta UGT sindikatuek adostutako asmo-akordioak.

**Kostuak Diputazioaren gain**
Laburbilduz, eta Diputazioari dagokionez, zera adostu dute: konpromisoa hartzen duela Candyren Bergarako instalazioetan balizko proiektu industrial berri bat abiarazteko gertu dagoen inbertitzaile berri bat aurkitzeak dakarren kostua bere gain hartzeko. Eta Diputazioak berak aztertuko dituela proiektu guztiak eta gainontzekoei azalduko dizkiela.



Candyren Bergarako fabrika kanpoan, protesta pankarta. | UBANE MADERA

**Lehiakideek bidea itxita**
Candy Hooverri dagokionez, berriz, konpromisoa hartzen du balizko inbertitzaile horiek Bergarako instalazioak bisitatu nahiko balituzkete eta informazioa eskuratu nahiko balute, hori guztia errazteko. Hain justu, eta instalazioei dagokienez, Bergarako fabrika eta SAT eta GIAS biltegiaren zati bat proiektu industrial berriaren esku utziko ditu Candyk, alokairuan.

Hori bai, adostutako akordioan azpimarratu dute "inolaz ere" ez zaiela biderik erraztuko Candy Taldearekin "zuzenean edo zeharka" lehian egon daitezkeen "pertsonei edo entitateei".

Eta, ildo beretik, proiektu industrialari betoa ezartzeko –proiektu industriala ez onartzeko– eskubidea izango dute, baita ere, proiektu berrian parte hartuko luketen langileek eta sindikatuek, kasu horretan, eskatzen zaizkien lan baldintzekin ados ez baleudeke.

**Ahalegin berezia**
Horixe da Candy Hooverren auziko parte diren aldeek adostu duten asmo-akordioa. Eta gaurko (egubakoitza) sinadurarekin berretsi egingo dute.

Asmo-akordio horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak azpimarratu du, besteak beste, ahalegin berezia egin nahi izan dutela Candyren itxierak ekarriko zukeen enplegu galera txikitu edo ezerezteko berrindustrializazio prozesua lantzeko.

**76 langilek jardungo lukete**
Bestalde, akordioak dioenez, Candy Hooverren instalazioetarako proiektu industrial berri bat lortuko balute, Bergarako fabrikan lanean zebiltzan 152 langileetatik 76 leudeke bertan parte hartzeko gertu. Eta Candyk langile horiei gainontzekoei baino kalte-ordain handiagoa emango die –4 milioi euro ingurukoa, guztira– berrindustrializazioan inberti dezaten. Azken puntu horrekin lotuta, Candyk martxo amaiera jarri du epe-muga moduan inbertitzaile posible bat lortzeko.


Angel Oiarbide. | GURE ESKU DAGO

## Eguaztenean Angel Oiarbide Garaia guneko auditoriumean

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARRASATE

*Angel Oiarbiderekin solasaldia: Gure Esku Dagoren ibilbidea eta erronkak* lelopean, bereziki Mondragon Unibertsitateko ikasleei zuzenduta ekitaldia antolatu dugu. Espero dugu Unibertsitatean kokatutako jardunaldi honek gazteengan harrera ona izatea, baina herritar guztiak gonbidatuta egonik, hizlariak duen arrazoibide aparta eta jarrera positiboa baliatuz, hitzaldi honekin Gure Esku Dago dinamika eta aurtengo ekimenak ezagutaraztea dugu helburu eta gutxienez gizartean hausnarketa sustatzeko balio izatea espero dugu.

# EAJk salatu du ez diotela Mankomunitateko estatutuen aldaketan parte hartzen utzi

## Azkarragaurizar presidenteak erantzun du jendaurrean jarri zituztela irailean, parte hartzea bermatzeko

J.I. / U.M. | DEBAGOIENA
Debagoieneko herrietako EAJko zinegotziak kexu agertu dira bailararen aniztasuna aintzat hartu ez eta, gainera, 35 urtez indarrean egondako estatutuak hauteskunde batzuen justu aurretik aldatzera doalako ezker abertzalea. Halaxe salatu zuten eguaztenean Bergarako batzokian.

**Legealdikoak baino gehiago**
Debagoieneko udaletan aurkezten hasi direla eta Mankomunitateko estatutuen aldaketa prozesuaren azken txanpan dagoela jakinarazi du EAJk, eta ezker abertzaleak, bailarako gobernuan duen gehiengo osoa aprobetxatuz, ez duela ez eurekin ez beste inorekin kontatu zeregin horretan: "Prozesutik kanpo utzi gaituzte, eta ez dugu aukerarik izan parte-hartze prozesu horretan gure ekarpenak, gure iritziak eta gure ikuspuntuak mahai gainean jarri ahal izateko. Garbi egon behar da estatutuak ez direla legealdi baten estatutuak", esan zuen Juanje Alberdik, Bergarako EAJko zinegotzi eta alkategaiak.

**Zergatik orain?**
Horri gehitu zioten estatutuak 35 urtean egon direla indarrean eta estatutu berriak ere unean uneko ordezkaritzaren araberakoa baino ikuspegi zabalagoz egitearen komenientzia azpimarratu dute: "Alderdi politiko eta beste entitateek eman dezakegun aniztasuna, bai estatutuei eta bai mankomunitateei, ukatu egin du ezker abertzaleak eta hori ez dugu ulertzen. Eta zergatik orain presaka eta korrika onartu beharra 35 urteren ostean, hiru hilabete falta direnean gobernu berriak edukitzeko, zergatik ez itxaron gobernu berriak sortu arte?", galdetu du Alberdik.

Besteak beste, gardentasun falta ere salatu du EAJk, diotenez, estatutuen deliberazio eta idazte epean eztabaidatu diren edukien gaineko informaziorik ez dute-eta jaso udal gehienetan. Horrez gain, helegiteak aurkeztu dituztela baina alerik ez dietela onartu ere adierazi dute Debagoieneko jeltzaleen ordezkariek. Bukatzeko, atzera egin, estatutuak onarpenera aurkeztu ez eta hauteskunde ostean akordio zabal bat helburu izango duen prozesua irekitzea eskatu diote ezker abertzaleari.



Debagoieneko EAJko zinegotziak prentsaurrekoan, eguaztenean. | JULEN IRIONDO

**Ahalegina bai, adostasunik ez**
"Azken legealdi guztietan estatutuak aldatzeko hainbat ahalegin egin den arren, ez da lortu aldatzeko adostasunik. Beraz, gaur egungo estatutuak guztiz zaharkituta daude, 1980. urtean onartu zirenetik hainbat lege aldaketa izan dira, eta estatutu hauetan ez dira jaso, nahiz eta bertan horretarako epe bat eman".

Berba horiekin hasi du EAJren salaketei erantzuna Inazio Azkarragaurizar Debagoieneko Mankomunitateko lehendakariak. Gaineratu du badirela "legezko arrazoi gehiago" estatutu horiek "berehala aldatzera behartzen" dituztenak. Eta adibide moduan Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako legea jartzen du.

**Estatutuak jendaurrean**
Azkarragaurizarrek dio "urtero egiten den kontu-ikuskaritzako txostenean" aipatzen dela estatutuak aldatzeko premia eta Herir Kontuen Euskal epaitegiak ere, orain egiten ari den Mankomunitatearen 2013ko kontuen ikuskaritzan" adierazi diela "betebehar" hori. Hala, haren esanetan, "argi dago zein den estatutuen aldaketa prozesua lehenbailehen burutzeko arrazoia: ahal den neurrian azken epe honetara hurbiltzea".

Bestalde, ukatu egin du gardentasunik eta parte hartzerik eza egon izana: "Legeak eta Foru Arauak berak Mankomunitateen estatutuen aldaketarako jasotzen duen prozedura luzeak helburu hau baitauka: gardentasuna eta parte hartzea bermatzea. Mankomunitatea legean jasotako prozedura hau zorrotz betetzen ari da. Are gehiago, Mankomunitateak estatutuak jendaurrean irailean jarri zituen, uztail bukaeran jarri beharrean, parte hartze hau benetan bermatzeko". Bukatzeko, azpimarratu du helburua dela lege egokitzapena.

# Eroskik 400 milioiko inbertsioa egingo du datozen lau urteetan

▶ 'Zurekin' eredu komertziala 200 dendatara zabaldu nahi du kooperatibak

▶ Mendeko ekarpenak bonuengatik aldatzea eskainiko du Eroskik

LEIRE KORTABARRIA | BARAKALDO

Eroski kooperatibak 400 milioi euro inbertituko ditu datozen lau urteotan. Horrela onartu zuten bazkideek ohiko batzar nagusian, eguaztenean, Barakaldoko BECen. Beste gai garrantzitsu bat Mendeko Finantza Ekarpenen ginekoa izan zen; horren gainean, batzar nagusiak –erabaki-organo gorenak– truke boluntario eta unibertsala onartu zuen.

Bazkide langile eta bazkide kontsumitzaile guztien 500 ordezkariak deitu zituzten bilkurara. Eroskiko presidente Agustin Markaidek 2013ko Plan Estrategikoaren bigarren zatiko lerro nagusiak marraztu zituen, 2016 arterainokoak hain zuzen, eta berriki bankuekin finantzabidea berregituratzeko lortu den akordioa azaldu zien kooperatibako bazkideei.



Eguazteneko ohiko batzar nagusia. | EROSKI

**Salmentak handitu egin dira**

Plan Estrategikoari dagokionez, kooperatibak iragarri zuen 400 milioi euro inbertituko dituela hurrengo lau urteetan, finantza etorkizuna argitu duen honetan. Honela esan zuen Markaidek: "Ordua da etorkizunera begiratzeko eta bizkorrago joateko *Zurekin* eredu komertzial berriaren zabalpenean; inbertsioak berreskuratu behar dira gure negozioirik estrategikoenak indartzeko Eroski berri eta errentagarriago baten indarguneetan oinarrituta".

*Zurekin* eredua 200 dendatara baino gehiagora zabaldu nahi du Eroskik 2016ra arte, denda berriak eginda eta lehengoak aldatuta. Gaur egun, 66 saltokitan dago eredu hori —zortzi hipermerkatutan eta 58 supermerkatutan—, eta salmentak igo egin dira supermerkatu eta hipermerkatu aldatuetan: %9 eta %6, hurrenez hurren. Salmenta are handiagoa izan da produktu freskoetan: %18 supermerkatuetan eta %13 hipermerkatuetan.




ORDAINDU

**ELKARRETARATZEA** Ordaindu eta Eskuratu plataformek eta Eroskiren MFEen jabeek kale-bilkura egin zuten BECen kanpoaldean. Hainbat produktutan —ekarpenak, maileguak...— duten dirua erreklamatu zuten.

Gainera, Eroskik iragarri zuen beste 100 saltoki irekiko dituela urtero, batzuk propioak besteak frankiziak, penintsularen iparraldean.

I+G+i kapituluan, supermerkatu energetikoki buruaskiaren –sare elektrikoaren beharra ez duena– proiektua ondo doala azaldu zuen Markaidek. Gasteizen irekiko ditu ateak, 2016an. Europako halako lehena izango da.

**MFEen truke, bonuak**

Markaidek finantzabidea berregituratzeko urtarrilaren 15ean izenpetutako akordioa nola doan ere azaldu zuen Markaidek. Berregituratze horretan, zortzi zatitan banatu da zorra, jatorriaren eta bermearen arabera.

Batzarreko beste gai nagusiari heldu zioten gero: Mendeko Finantza Ekarpenak (MFE). Batzar nagusiak MFEen truke boluntario eta unibertsala onartu du. Inbertsiogileek nahi badute, MFEak trukatu ahalko dituzte hemendik 12 urtera iraungiko den mendeko bonu batekin, eta, nahi izanez gero, beste bost urtera ere luzatu ahalko da, MFEen gaur egungo balioaren %55 izango lukeen bonu baten truke eta %15 esku dirutan. Titulu berri honen interesa hiru puntu gehi Euriborra izango da, 2007koa baino 0,5 gehiago eta 2002ko eta 2004ko MFEetarako abonatutakoaren berdina. Hau da: MFEen balio nominalaren %70 dute bonu berriek.

Kontsumobidek diseinatutako irtenbide horren bidez, Eroskiren esanetan, "hasieran egindako inbertsio osoa berreskuratuko dute" erosleek, eta, gainera, 2007ko emisioan erosi zutenek %2,8ko UTB errentagarritasuna izango dute, eta 2004koek, %4 UTB.

## Ustelkerian nahastuta egotea egotzi dio bailarako Sortuk EAJri

*Ustelkeria made in Basque* izenburupean, prentsa oharra kaleratu du Debagoieneko Sortuk, azken egunetan zeresana ematen ari diren Kutxabank, Epsilon, Hiriko eta AP1 autobideko kasuei erreferentzia eginez. "PSE-EEko eta PPko kargu publiko eta gertuko enpresariak daude kasu hauetan nahasturik, Ebrotik behera gertatzen den legez. Baina, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezagutu berri ditugun ustelkeria kasuetan EAJ da jaun eta jabe", Debagoieneko Sorturen esanetan.

Prentsa oharra osorik irakurtzeko, jo *Goiena.eus* atarira.

## Fagor Ederlanek lantegia irekiko du Mexikon

Fagor Ederlanek eta Grupo Industrial Saltillok (GIS) lankidetza hitzarmena sinatu dute NAFTAko merkatuko automobilgintza sektorerako osagai metalikoak mekanizatzeko planta berria martxan jartzeko, jarduerari 2016an ekingo diona. 140 lanpostu sortuko dira hor. Bi enpresek euren negozioa nazioartean garatzeko apustuaren emaitza da lankidetza hori. Ipar Amerikako merkatuaren indarraz kontziente izanik eta merkatu hau automozio sektorearen proiektu globalentzako funtsezko gunea izango dela jakinda, bi taldeen burdinazko produktuen portafolioa erabat garatzea ahalbidetuko du akordioak.

# Laboral Kutxak 109 milioi irabazi zituen 2014an

Aurreko ekitaldian baino %26,9 handiagoak izan dira kooperatibaren iazko mozkin garbiak

L.K. | ARRASATE

Laboral Kutxak 109,2 milioi euroko irabazi bateratua lortu zuen 2014an, aurreko ekitaldian baino %26,9 gehiago, eguenean jakinarazi zuenez. Sektoreko kaudimen (solbentzia) onenetarikoa du: Common Equity Tier neurgailuaren arabera, %13,56koa. Laboral Kutxak azpimarratzen du emaitza on horiei esker sektoreko entitate errentagarrienetariko bat dela, %7,56ko ROEarekin.

Bestalde, kreditua gora egiten dabil: Laboral Kutxan, kreditu berria %26 hazi da azken hilabeteotan hipoteketan, eta %17, kontsumoan.

**Aurreikuspenak bete ditu**

2014ko ezaugarri nagusiak hauek izan dira, Laboral Kutxaren esanetan: interes-tasak gutxieneko maila historikoetara jaistea eta kreditu-zorroa txikitzea. Ekitaldiko bigarren erdialdean, ordea, azken horren joera aldatzen hasi da eta, ondorioz, berankortasun-ratioak hobetu egin dira, azken urteotan lehenengo aldiz.

Testuinguru horretan, Laboral Kutxak ekitaldia ixtean izan dituen "balantze orekatua, likidezia-maila bikaina eta kapitalizazio handia" nabarmentzen ditu. Bestalde, emaitza-kontuak ohiko negozioaren sendotasuna jarri du agerian, aipatutako interes-tasen egoerak emaitza baldintzatu badu ere. Dena dela, ekitaldia hasterakoan zituen aurreikuspenak bete ditu Laboral Kutxak, gastuei eutsi eta hornidurak txikitu izanari esker.




Jorge Parlade, konbentzioko partaide batzuekin. | FAGOR CNA GROUP

# "Ehunka langile" hartuko dituela esan du Fagor CNAk

Urte bukaeran 500 langile izatea espero dutela esan du Fagor CNA Groupeko presidenteak

L.K. | ARRASATE

Datozen bi hiruhilekoetan "ehunka langile" berri hartuko dituela esan du Fagor CNA Group-ek, enpresaren jarduera handiagotzen joaten den neurrian. 2015. urterako aurreikusten den fakturazioa 200 milioi eurokoa da, eta helburua da 2016an Fagor Etxetresnek osorik egin zuten azken urteko, 2012ko fakturazio bera lortzea, hau da, 400 milioi eurokoa. 2015 bukaeran, 500 langile izatea espero du CNAk. CNA Group-ek Fagor Etxetresnak bereganatzeko egin zuen enplegu proiektuan agertzen zenez, jarduerako lehen urtean –2015eko urrian bukatzen den epea– 705 lanpostu sortuko zituen, eta horietatik 300 dagoeneko sortuak ziren 2014 bukaerarako. Nazioarteko eta iberiar enpresa filialekin konbentzioa egin du enpresak astelehenetik eguenera arte, eta bertan jakinarazi zituen asmo horiek Fagor CNAko presidente Jorge Parladek.

Bestalde, Garagartzako arduradun Xabier Bengoetxeak Euskadi Irratian esan zuenez, Basaurin eta Garagartzan, denetara, 90 langile hartuko dituzte. Termoak egiten martxoan hasiko dira, eta garbigailuak egiten, maiatzean.

**DATUA**

**300**

LANPOSTU

2014 bukaerarako 300 lanpostu sortuak zituen Fagor CNAk.

ZABALIK

**IÑAKI UGARTEBURU**
goiena.eus/komunitatea/



# Udal hauteskundeak

Berriz ere gainean ditugu hauteskundeak. "Dagoeneko lau urte igaro dira?", esango du batek baino gehiagok. Niri, lau urteko epea motzegia iruditzen zait, baina horrela ezarrita dago, eta, aldatzen ez den bitartean, horrela izango da. Baina ez dut honetaz gehiago idatziko.

Udal bateko langilea izanik, ondo jabetzen naiz zinegotzi eta alkateen garrantziaz, lan handia egin behar izaten dute eta makina bat erabaki hartu ere bai; batzuetan asmatu egiten dute eta beste batzuetan ez, eta, modu horretan, herriaren norabidea markatu eta baldintzatzen dute.

> **"Garai batean, prestigio-izena ematen zuen zinegotzi izateak"**

Baina zer darabilgu kalean ahoz aho edota sare sozialetan? Oso ohikoa da gaizki esaka aritzea politikarien eta politikaren inguruan: lapurrak, ustelak… Egia esan, politikan dabilen, edo ibili diren, hainbaten ibilbidea lotsagarria da eta ez da izan eredugarria; baina gurean, gehienek bokazioz eta borondate onenarekin dihardute politikan –gizartearen beste arlo batzuetan bezala–; gutxi batzuk soldatapean, gehienak borondatez.

Ohikoa da alkate edo zinegotziarengana joatea kexak edota gaizki egindakoak salatzera; beharrezkoa eta aproposa da, baina zenbat aldiz joaten gara zoriontzera edota egindakoa eskertzera?

Herrietan alderdi edota koalizioei zerrendak osatzea tokatzen zaie; gero eta zailagoa suertatzen ari zaie. Garai batean, prestigio-izena ematen zuen zinegotzi edo alkatea izateak; egun, ordea…

Okerreko bidetik goaz politikarekin eta politikariekin. Bereizi egin behar ditugu sagar ederrak eta ustelak, kargu politikoen desprestigio kanpaina eten behar dugu. Jende prestatua behar dugu, lan egiteko gogoz eta herriaren alde egiteko asmoz dagoena. Gazte, heldu edo nagusi –erretiratzen direnen esperientzia ere aprobetxatu beharra dugu–. Asko dago jokoan, eta ostrukarena egiteak ez dizkigu arazoak konponduko.

Bitartean, zerrendetan joan behar duzuen guztiei, animo eta eskerrik asko! Nahiko lan izango duzuela seguru nago.

USTEAK USTE

**MIRARI ALTUBE** | aretxabaleta@goiena.eus

# Sentimenduak berbatan

Ez dut ezagutzen Mabel Artziniega medikua, baina haren goxotasuna iritsi zait. *Puntua*-n egin zion elkarrizketa Eneko Azkaratek orain dela astebete, eta hark esandakoak oso gertuan sentitu ditut. Ez mediku moduan esandakoak, minbizia izandako emakume moduan esandakoak baizik. "Gaixotasunak erakutsi dit bizitzan bakarrik gatozela eta bakarrik goazela, eta, ondorioz, bakarrik gaudela", dio, eta gaineratu: "Ingurukoen babesa inportantea da, baina gaitza norberak sufritzen du, norberak daroa zama". Gaixoaldian sentitutakoa berbatan laburtzen asmatu du –apaindurarik gabe, argi eta garbi– eta nik bat egin dut hark esandakoekin.

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




HANDIK ETA HEMENDIK

## Arrazismoa Oscarretan?

**Mikel Garcia Idiakez**
http://goo.gl/1t7giX

Beltzen boto eskubidearen alde egin ziren martxetan oinarritzen da *Selma* filma. Ez pelikulako zuzendaria, ez Martin Luther King-en rola antzezten duen David Oyelowo aktorea Oscarretarako izendatu ez izana bidegabea dela uste du hainbatek, arrazismoa dagoela atzean. *#OscarsSoWhite* etiketa ere zabaldu dute Twitterren.

Oyelowo aktoreak berak adierazi duenez, "historikoki, orokorrean, iruditzen zait beltzak gehiago saritu gaituztela zerbitzarien rola antzeztu dugunean, liderrak edo erregeak izan garenean edo gure narrazioaren protagonistak garenean baino". [...] Gaineratu du produktorak argi berdea eman ziola *Selma* filmari soilik *12 years a slave* eta *The Butler* pelikulen arrakastagatik. [...]

George Lucas zuzendari eta ekoizleak adierazi du ez zaiola arraroa iruditu Oscarretan arraza aniztasunik ez islatzea. "Kanpaina politikoa dira Oscarrak. Ez du sorkuntza artistikoarekin zerikusirik, inolaz ere. Zergatik ez ditugu onenak aukeratzen? Uste dut denoi egiten digula kalte".

Kontrako ahotsak ere mintzatu dira, Oscarrak ez direla "kupo kontua" erantzunez eta Denzel Washingtonek berak esaterako heroiaren rolagatik irabazi zuela urrezko garaikurra *(Glory)*.

Gizon zuriak salbatuko zaitu:

Oscarretatik harago, Hollywoodeko pelikuletan eta Mendebaldeko zineman dago oro har sakoneko arazoa: talentuan oinarritutako irizpidea nagusituko balitz, zuriak ez beste arrazetako aktore askoz gehiago ikusi beharko genituzke protagonistaren rolean (eta emakume gehiago, bide batez esan dezagun). Baina pertsonaia historikoez ari ez denetan (eta halakoetan ere, beltzak zuri bihurtzeko "gaitasuna" du zinemak), zergatik daude beltzak bigarren mailako pertsonaiak izatera kondenatuta? [...]

Zinemari begirada paternalista eta arrazakeria kutsua darion bitartean, desoreka hain handia den bitartean, ezinbestean desorekatuak izango dira zinema hori saritzen duten Oscarrak.

## Mezua

**Anjel Lertxundi**
http://goo.gl/8CfCvs

Atzoko egunkari askok zekarren argazkia: soldadu ukrainar bat, basalar baten ertzean eserita, liburu bat irakurtzen. Ez daki tregoak noiz arte iraungo duen, ez dago bere esku. Argia eta berotasuna itzali zaizkio bere munduari, eta bere esku dagoena egin du soldaduak: sua piztu du basoko arbastekin, eta, bere baitara bildurik, liburu bat zabaldu du baso abandonatuko bakardade guztizkoan, eskuetan daukan liburuarena beste ardurarik gabe. Zer irakurtzen ari ote da? Izan liteke literatura entretenigarria, ikusten eta sufritzen ari denaren aringarri. Izan liteke meditazio-libururen bat, gertatzen ari zaiena mamurtzeko. Edo historia liburu bat da, ulertu nahi duelako iraganeko zerk ekarri dien hondamendia. Baliteke ukrainar poesiaren antologia bat izatea ere, gerrak suntsitu duen edertasuna hizkuntzan behintzat bilatzeko.

Gizadiaren itsasora botatako botila bat da argazkia. Inozoa da munduak mezua irakurriko duela pentsatzea.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

## GUTUNAK

# Formaldehidoak eta aloe vera

**Josu Garitaonandia**
(Oparitu Zuhaitz Bat proiektuaren arduraduna)
Bergara

Etxe barruan arnasten dugun airea kanpokoa baino kutsatuagoa dago, etxe barruan erabiltzen ditugun gauza askok airera substantzia kimikoak askatzen dituzte; adibidez, formaldehido gas koloregabea. Eta frogatuta dago horrek minbizia sor dezakeela: minbizi nasofaringeoa.

Kontuan izanik bizitza erdi gure etxean egiten dugula, har dezakegun neurri garrantzitsuena gure etxea ondo aireztatzea da eta etxe barruan aloe vera landarea edukitzea.

Izan ere, beste propietate askoren artean, gure etxe barruko airea garbitzen du, formaldehido partikulak kenduta.

# Kokoteraino gaudelako!

**Oskar Elizburu**
Arrasate

Ez zait gustatzen haserre tonuan idaztea; baina, oraingoan, ez daukat beste erremediorik, kokoteraino nago! Egunerokoak euskaraz normal egin gura ditugu askok eta askok, besterik ez, beste inori ezer eskatu barik; euskaraz bizi nahi dugu eta horretarako eskubidea daukagu.

Eguneroko horietan sartzen dira bakoitzak egiten dituenak, alde batetik, eta kolektiboki erabakitzen ditugunak, bestetik; esate baterako, udal baten erabakitzen dena.

EAEn, legez ofiziala den hizkuntza da euskara; Nafarroan, tokiaren arabera desberdin; Iparraldean ezer ere ez.

Euskal Herri osoan euskara ofiziala izatea dugu helburu, baina ofiziala izanda ere arazoak jartzen dizkigute. Uemako udalek erabaki dutenean administrazioen arteko aktak euskaraz bidaltzea, horren aurkako helegiteak etorri dira Espainiako Estatutik. Urquijoren ustez, euskaraz dauden dokumentuek ez daukate balio ofizialik espainola ez badute ondoan.

Euskara ofiziala da, eta lehentasuna eman behar diogu orain arte debekatu zaizkion esparruak eta funtzioak irabazteko. Euskararen normalizaziorako legezko eta ekinbideko aurrerapausoak ematea oso garrantzitsua da, benetako onarpenaren seinale. Eta, balio handia dutelako, erabaki horiekin jarraitzeko asmoa dute udal horiek, eta guk txalotu eta babestu egin behar ditugu, eta beste toki administrazioei ere pausoak bide berean emateko eskatu.

Euskarak aurrera egitea lortzen dugun bakoitzean trabak jartzen ari direlako, otsailaren 28an gure haserrea erakusteko dei egin du Euskal Erakundeen Kontseiluak. Donostian izango da manifestazioa, arratsaldeko 5,30etan, gure hizkuntza politikak kanpotik inork erabaki ez ditzan.

Autobusa izango da arratsaldeko 4retan Arrasatetik, eta izena eman dezakezue Loramendin, AEDn, Jardunen edo Jaizalen.

Oztopoen gainetik, euskaraz biziko gara!

# Eskoriatzako berdeguneen mantenuen kontratazioaren harira...

**Beñat Herce**
(Eskoriatzako alkatea)
Eskoriatza

Berriki tokiko prentsan eta Eskoriatzako kaleetan entzun eta galdetzen diguten gai honi buruz argi pixka bat jartzeko asmotan idazten ditugu datozen lerroak.

Berdeguneen mantenimendurako kontratazio prozesua, bestelako kontratazioak bezala –obrak, pertsonala…–, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen baitan egin behar dira, aukera-berdintasuna, gardentasuna eta hoberena den eskaintzaren hautatzearen printzipioak kontuan izanik. Ondorioz, kontratazioetan debekatuak daude aurretiazko esperientzia edota tokikotasuna bezalako irizpideak kontuan izatea.

Eta guk hala garatu ditugu kontratazio prozesu guztiak. Orain, gure esku dauden politikak aplikatu ditugu prozesuan: enpleguaren kalitatea, berdintasuna, formazioa eta euskara politikak, kasu. Jakina baita zerbitzuak prestatzen dituzten enpresa batzuek langileen lan baldintzen kaltetan irabazten dituztela lehiaketa hauek.

Honen aurrean zera argitu nahi genuke: tokiko enpresak ez direla albo batera utzi, ezta gutxiago ere; eta hiru langileak subrogatzeko derrigortasuna ezarri dugu, konbenioak jasotzen duen bezala. Beraz, lanpostu hauek ez dira galtzen eta beraien lan baldintzak egokiak izatea bermatzen da.

Aukera-berdintasunaren printzipioari eutsiz tokikoak nahiz enpresa erraldoiak aurkez daitezke, baina bagabiltza zerbait lortzen: enpresa erraldoiak izanik ere, langileen eskubideak mantendu edota hobetzea, herri guztietan gertatzen ez den bezala.

Bestalde, badakigu enpresa handiek txostenak aurkezteko baliabide gehiago dituztela. Baina horiek baloratu behar ditugu, legea betez, Eskoriatzarako abantailatsuena den eskaintza aukeratuz. Eta Udalaren erantzukizuna da hau guztia betearaztea, hitzez hitz; eta honen betebeharra, ondo prestatutako zerbitzuak ordaintzea.

Udalerako lan egitea nekeza da, aldiro lehiaketa publikoetara aurkeztu behar baita, beti arteko kontratuak ez baitira zilegi. Baina nola bermatu, bestela, unibertsaltasuna, objektibotasuna eta gardentasuna?

Hitzak eta programak haizeak eramaten dituela esan digute, erabakietan ikusten direla Udalaren printzipio eta politikak. Bada, tokiko garapenak gure helburu izaten jarraitzen du, baina honek ere mugak dauzka eta Udal Gobernutik zuzentasun osoz jokatu dugu. Horretarako hautatuak izan gara eta hala jarraituko dugu.

Bestetan egin bezala, Landu-ri eskerrak eman nahi dizkiogu prestatutako zerbitzuagatik eta zorterik onena opa; subrogatzen diren langileei, aldiz, gure babes eta laguntza osoa.

# Ekonomia, langabeziaren narrioaz

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Honela jarraituz gero, ez dugu jasoko ekonomiaren langabezia narrioa. Zergatik? Kultura bere onean utzita ustelean lizunduta dabilelako.

Pertsonak gara eta kultura osasuntsua behar dugu, sormena duen aisialdi bat, aisialdi kultural ona. Usteltzen uzten badugu gure aisialdietako kultura, sormenik ez duelako, pertsona moduan galdu egingo dugu.

Herrenka dabil langabezia, ez garelako sortzaile, eta ez gara sortzaile lelotu egin dugulako, hein handi batean, gure aisialdia.

Denok gaude arduratuta langabeziarekin, baina gero, lau ordu ematen ditu gizarteak telebista ikusten, taberna zaratatsuetan elkar aditu ezinik... Telebista, disko trinkoa, irratia, MP4a... Aisialdi alienagarria dugu, txarra. Aseezinean dedikatzen dio gizarteak lau gailu hauei denbora.

Utopia ilusioa da, eta badut ilusioa gailu hauek neutralizatu eta debekatuko dituen gobernu bat etorriko dela noizbait. Diktadura? Egia da, herriak nahi ditu gailu hauek. Baina nola sortu aisialdi eraikitzaile bat, gizon-emakume bezala sortzaile eta betegarri zaiguna? Aisialdi ustelaz, gizaki erdipurdikoak, eta horrela, dena okerrago. Langabezia aisialdian hezten ez garelako da, gizon-emakume ez sortzaileen ondorio. Iraultzak ekarriko digu lana eta bakea.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00


MIKEL LINAZISORO



GOIENA TELEBISTA | GALDE GAZTE: DEBAGOIENEKO GAZTEEKIN SAIOA
EGUAZTENA | OTSAILA 25, 22:00
GONBIDATUA: MIKEL LINAZISORO, ESKALATZAILEA

Galde GAZTE

ANTOLATZAILEAK: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA · DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

BABESLEA: MONDRAGON UNIBERTSITATEA

25 URTE HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena




**PUNTUA** ETXEAN ASTERO JASOTZEKO*:
**943 25 05 05** edo ***kluba@goiena.eus***

goienakluba"
Euskara irabazle, denok irabazle!

*GOIENA KLUBEKO BAZKIDEOK EZ DAUKAZUE ESKATU BEHARRIK.

# HERRIAK




Erresistenteen Eguneko antolatzaileak eta *Egiaren iturria* eskulturaren sortzaile Iñigo Arregi, eguaztenean, Elgetako interpretazio zentroan. | L.Z.

### Erresistenteen zerrenda

**Antolatzaileek, oraingoz, bizirik diren hamahiru erresistenteren izenak lortu dituzte.**

- Mateo Balbuena.
- Pablo Rodriguez.
- Miguel Soreasu.
- Marcelo Usabiaga.
- Claudio Usobiaga.
- Regino Biain. Oñati.
- Benito Martin.
- Antonio Telleria.
- Manuel Sagastibeltza.
- Inazio Ernabide. Osintxu.
- Andres Egaña. Bergara.
- Antonio Martin.
- Jose Moreno.

ELGETA

# Bizirik diren Intxortako gudariak elkartzeko deia

- Omenaldia jasoko dute apirilaren 19ko errekreazioaren ostean
- Hamahiru izen badituzte; zerrenda osatzeko laguntza eskatu dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Intxortako lubakietan egondako eta bizirik dauden milizianoak eta gudariak elkartu gura dituzte, apirilean, Elgetan. Errekreazioaren ostean, 13:00etan, omenaldia egingo dute herriko plazan. Elgetako Udala, Frankismoaren krimenen aurkako euskal plataforma, memoria historikoaren aldeko euskal erakundeak eta sindikatu eta alderdi politiko historikoak dira bultzatzaileak. "Bizitza duinago baten alde tinkotasunez borrokatu izana aldarrikatzeko elkartuko ditugu", esan du Intxorta 1937 kultura elkarteko Julia Mongek.

**Erresistenteen datu bila**

"Gehienek 90 urtetik gora dituzte, baina lortu ditugu dozena baten baino gehiagoren izenak, eta pentsatzen dugu hemendik apirilera gehiago izango direla", adierazi du frankismoaren krimenen aurkako euskal plataformako kide Josu Ibargutxik. Erresistente gehiagoren nondik norakoaren bila dihardute antolatzaileek. Daturik izanez gero *danonartian@elgeta.net* helbidera idazteko eskatu dute. Oraingoz, hamahiru izen lortu dituzte. "Gehienek oso ondo dute burua, baina gorputza ez hain ondo. Horregatik, ezingo dute guztiek omenaldian parte hartu, baina batzuek bai", esan du Ibargutxik. Erresistenteek Iñigo Arregik egindako burdinazko oroigarri bana jasoko dute ekitaldian. Bestelako omenduak ere izango dira, hala nola borrokaldian parte hartu zuten sindikatu eta alderdi politiko historikoak. Parte-hartzea baieztatu dutenak hauek dira: ELA-STV, CNT, EAJ-PNV, ANV eta PCE-EPK. Eta biktima zibilen ordezkaritzan oroigarri bana jasoko dute Anttoni Telleriaren, Maravillas Lambertoren, Jon Izurrategiren eta Miguel Gilen senitartekoek.

**Errekreaziorako boluntarioak**

Iaz baino hogei lagun gehiagorekin egin gura dute Intxortako borrokaldien errekreazioa. 80 lagunek eman dute izena, baina ia beste horrenbeste behar dituzte. Elgetako alkate Oxel Erostarbek dei egin du boluntario gisa izena eman dezan jendeak.

**JOSU IBARGUTXI** | FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO EUSKAL PLATAFORMAKO KIDEA

## "Gure benetako memoria historikoa dira, gure benetako egia gureganatzeko bidea"



L.Z.

Memoria erakundeen esanetan, zenbait sektore kontaketa historikoa aldatu guran dabiltza, eta garrantzitsua da belaunaldi berriei benetako historia ezagutzera ematea.

**Omenaldia orain. Zergatik?**

Tristea da, ia denak desagertuak direnean ari garelako horrelakoak egiten, baina pentsatu dugu ez dela sekula berandu bizi diren horien bitartez milaka lagunen duintasuna aldarrikatzeko. Duela gutxi galdu genuen Felix Padin. Ez dago eskubiderik horrelako jendea ia desagerturik eta estalirik joatea. Frankismoaren aurrean benetako militanteak eta erresistenteak izan dira.

**Gustura hartu dute ekimena?**

Gehienek bai. Nahiz eta berandu izan, merezitako aitorpen gisa hartuko dute. "Batzuek, gutxienez, gogoratzen dute guk Errepublikaren eta Euskal Gobernuaren alde egindakoa", diote. Badago baita ere hunkituegiak daudelako edo ahaztea nahiago dutelako bestela ikusten dutenak. Zorionez, gutxiengoa dira. Gure benetako memoria historikoa dira, benetako egia gureganatzeko bidea. Badirudi hemen ez zela kolpe militarrik egon, ez zirela 40 urteko diktadura eta trantsizio negargarri bat egon. Kontaketa aldatu guran ari dira.



L.Z.

**'EGIAREN ITURRIA'** Iñigo Arregik omenduendako sortu duen irudia da. Artistak azaldu duenez, lau plano irudikatzen ditu: gizonezko bat, emakumezko bat, harresia edo babesa, eta etxea edo herria. Artistaren obran lau planoek bat egiten dute.

# Pio Gartzia: "Kirurgia eraginkorra da presbizia edo ikusmen nekatua zuzentzeko"

## Laserra eta begi barruko lente multifokalak gai dira patologia horri aurre egiteko, baina kasuak banaka aztertuta erabakitzen dute espezialistek pertsona bakoitzari zein teknika dagokion


Pio Gartzia doktorea, Quiron Gasteiz ospitaleko kontsultan. | QUIRON GASTEIZ

Quiron Gasteiz ospitaleak teknologiarik aurreratuena du presbizia begi barneko edo laser bidezko ebakuntzaren bidez behin betiko zuzentzeko. Bi aukerek pazienteen bizi-kalitatea hobetzen dute, betaurrekoekiko etengabeko dependentzia apurtuta.

Bost zentzumenetatik, ikusmena da, zalantzarik gabe, egunerokotasunean gehien erabiltzen dena. Ikusmenaren kalitatea galduz joaten da adinarekin, eta, horregatik, urteen joanarekin ia ezinbesteko bihurtzen da betaurrekoak erabiltzea.

Presbizia edo ikusmen nekatua begiei eragiten dieten patologien artean ohikoenetakoa da, eta 45 urtetik aurrerako pertsonetan agertzen da. Arazoa identifikatzeko modua oso erraza da, eta askotan ikusten den keinu bati lotuta doa: besoa luzatzea testu bat irakurri edo mugikorra begiratzeko. Keinu hori gertuko edo distantzia ertaineko ikusmen galera izatearen sintoma argia da, eta betaurrekoak jarrita edo ebakuntza bidez zuzen daiteke.

Irudiak erretinan behar bezala ez enfokatzea dakar presbiziak. Batetik, astigmatismoari edo miopiari lotuta ager daiteke. Kasu horietan, ikusmen galera geroago iristen da, eta denbora tarte batean irakurtzeko betaurrekoak kentzeko aukera ere ematen du. Bestetik, hipermetropiari lotuta doanetan, lehenago agertzen da, 35 urtetik aurrera, eta betaurrekoen erabilera dakar, ordenagailuarekin lan egiteko edo irakurketa jarraiturako.

Edonola ere, ikusmen nekatua kristalinoa mugitzeaz arduratzen den gihar ziliarrak elastikotasuna galtzearen ondorioa da. Haren funtzioa begiaren kristalinoa egokitzea da, gertuko irudiak garbi ikus daitezen.

"Gaur egun, ikusmen arazo hori zuzentzeko oso aukera eraginkorra da kirurgia", azaldu du Quiron Gasteiz ospitaleko Pio Gartzia oftalmologoak. Espezialistak esperientzia zabala du begiaren anatomia eraldatzen duen kirurgia errefraktiboan.

### Ikusmen konbinatua

Presbiziaren laser bidezko zuzenketa Lasik edo Lasek tekniken bidez egin daiteke eta miopia duten pazienteetan aplikatzen da. Quiron Gasteiz ospitalean *Ikusmen konbinatua* izeneko ebakuntza egiten da. Ebakuntza horretan, pazientearen begi nagusia urrutira ondo ikus dezan operatzen da, eta beste begia, irakurlea, gertuko ikusmenerako enfokatuta uzten da. Horrela, bi begiak erabiliz, pazienteek egunerokotasuneko edozein ekintza egin dezakete inongo zailtasunik gabe, hala nola gidatu edo *whatsapp* bat bidali.

**Prozedura segurua da, anestesia orokorrik behar ez delako**

Ikusmena zuzentzeko teknika horren helburua da pazienteari, ahal den neurrian, betaurrekoen erabilera saihestea. Hala ere, betaurrekoak erabili egin beharko dituzte zenbait egoeratan; esaterako, jostean, ordu luzez liburu bat irakurtzean edo gauez gidatzean.

Metodo horrekin, deserosotasunak saihesten dira, bi begiak egun berean operatzen direlako. Gainera, ebakuntza anbulatorioa denez, eragozpenak eta arriskuak murriztu egiten dira, anestesia orokorraren ordez tanta anestesikoak erabiltzen direlako.

"Ohikoena pazienteek 24 orduz atseden hartzea da, eta, kasu gehienetan, euren jardunera itzuli ahal izaten dira ebakuntzatik 48 edo 72 ordu pasatutakoan. Prozedura zehatza eta segurua da", dio Gartzia doktoreak.

**"Presbizia zuzentzeko oso aukera eraginkorra da kirurgia"**

Dena den, bada beste teknika bat ere, ikusmen konbinatua alde batera utzi gabe, arazoa konpontzeko aukera eskaintzen duena, eta lehen ebakuntza horren ostean aplikatzen dena. Begietan lente multifokalak ezartzean datza.

### Begi barruko lente multifokalak

Azken kirurgia mota horretan, kalitate handiko lente multifokalak txertatzen dira begien barruan, urrutitik, gertutik eta tarteko distantzietatik ere ondo ikusi ahal izateko. Ebakuntza ez da bi begietan aldi berean egiten, gutxienez aste bateko aldeaz baizik. Hori dela eta, osatze prozesua geldoagoa da. Ebakuntza osteko egoerak badu deserosotasun bat: gradu aldakorreko gaueko distirak ager daitezke. Dena den, denbora pasatu ahala, desagertu egiten dira.

Ohiko kataratei aurre egiteko ebakuntzaren antzekoa da, eta ezartzen den lentea da desberdintasun nagusia. Horren harira, kataratak dituzten pazienteendako ere interesgarria da metodo hori, kontuan hartzekoa baita ikusmen baldintzei ekartzen dien onura.

Ebakuntza behin betikoa da, eta, beraz, bizi kalitatea hobetzen duena. Izan ere, beste abantaila batzuen artean, aurrerantzean kataratarik ez izateko bermea ematen du, operatzen dena begiaren kristalinoa baita. Gainera, kasu gehienetan, pazienteek ez dute betaurrekorik erabili beharko inolako ekintzatan.

Hortaz, behin ikusmen arazoen diagnosia eginda, espezialistak erabakiko du kasu bakoitzarentzako irtenbide egokiena zein den. Horretarako, adina, lanbide mota eta bestelako faktoreak hartuko ditu kontuan, pazientearen bizi kalitatea ahal beste hobetze aldera.



Ikusmen nekatua zuzentzeko
Presbizia-kirurgia Quirón Gasteiz Ospitalean
Behin betiko soluzioa
Ospitaleratu gabeko kirurgia · Kalitate handiko lente multifokalak
www.quiron.es
Interes bako finantzaketa. RPS 136/12
Oftalmologoa: Pio García Gómez
Eskatu txanda
945 03 03 77
HOSPITAL QUIRÓN Vitoria
Esperantza kalea, 3
Gasteiz 01002
info.vitoria@quiron.es

# Arbolak landatzeko eta erosteko aukera zapatuan

Meatzerrekan 60 bat intxaurrondo eta gaztainondo landatu gura ditu Udalak; baserritarren azokan zuhaitz feria eta Arbolapetan haritz gaztearen landaketa

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Joan den egubakoitzean eskoletako umeak elkartu ziren zuhaitzen bueltan –Markuleteko zelaietan hainbat zuhaitz landatu zituzten–, eta bihar gainerako herritarren txanda izango da. Hasteko, Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du Meatzerrekan, auzoak azken urteetan jasan dituen "tratu txarrei" buelta eman eta auzoarekin "diskriminazio positiboz" jokatzeko asmoen baitan. Arbolapetan elkartuko dira, 09:00etan, eta, eguraldi txarra iragarrita badago ere, Udalak aurrez prestatutako egitarauarekin jarraituko du, "hasiera baten".



Iazko zuhaitz feria Mondragones kalean egin zen, haizeteagatik. | GOIENA

Hau da, 09:45 aldera, Arantza Otadui historialariak auzoaren historiaren gainean jardungo du San Baleixo ermitaren ondoan; adibidez, meatzarien lanaren garrantzia nabarmenduko du Otaduik. 10:30ean hasiko da landaketa: 60 bat intxaurrondo eta gaztainondo landatuko dituzte.

**Arbolapetara, haritza ikustera**

Landaketa amaitu ostean, 12:00etan Seber Altube plazara joango dira, eta 12:30ean, baserritarren azokan postua izango duten Erein Da Jan elkartekoen eskutik mokadutxoa egingo dute.

Gero, 13:00etan, Arbolapetako haritz gaztearen landaketa ikustera joango dira –ikus 40. orrian–. Ingurumen Saileko Pello Garaik gonbidapena egin die herritarrei Zuhaitz Egunean parte har dezaten: "Euriak ez du lagunduko, pena handia da. Baina, hasiera baten, planarekin jarraituko dugu; ea herritarrek erantzuten duten. Goiz-pasa ederra izan daiteke".

> **ESANAK**
>
> **"Bizirik dagoen angula kopurua asmatu beharko da zozketan"**
>
> **MARGA GARMENDIA** | UDALA

**Azokan hamasei postu**

Hilero moduan, ez du hutsik egingo Seber Altubeko baserritarren azokak (08:00-14:00). Ohiko azokari dagokionez, hamasei postu egongo dira: Arrasateko sei baserri, Debagoieneko beste bi eta gainerako postu bereziak egongo dira. Azken horien artean daude, besteak beste, Erein Da Jan elkartekoen kontsumo eredua aldatzeko gonbidapena –mokadutxoaz batera–, Jakionekoen kontserbak, baserrirako tresneria saltzen duen Juan Mari Zuazubiskar eta sukalderako tresnak saltzen dituen Felix Barcina.

Udaleko Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak aurreratu duenez, biharko azokan "bisitari berezi" bat izango dute: "Kilometroak jaialdiaren antolatzaileak etorriko dira euren produktuekin. Korrika batzordekoek ere egin digute eskaera, baina besteek lehenago esan zigutenez, erabaki dugu martxoko azokarako gonbidatzea Korrika batzordekoak. Eurei ere ez zaie batera egotea interesatzen; hortaz, batak bestea zapaldu beharrean, bi azokatan egon daitezela".

Otsaileko azokan ere zabala izango da produktuen eskaintza; baserritarrak ganbaran gordetzen dituztenen artean, patatak, kalabazak, babarrunak, kiwiak, sagarrak, kipulak, intxaurrak eta hurrak egongo dira, besteak beste. Ortuak ere, negua bada ere, ematen ditu sasoiko produktuak: porruak, azak, espinakak, arbiak, zerbak, eskarolak, azaloreak, brokoliak... Bestalde, baserritarren artean hedatuta dago udako produktuak ontziratzeko ohitura, eta, horregatik, biharko azokan ere, urte osoan moduan, tomatea, lekak, eta marmeladak erosi ahalko dira.

**Angulak Korrika zozketa ere bai**

Biharko nobedadeen artean, bestalde, Garmendiak Jakioneko postua nabarmendu du. Korrikarako dagokien kilometroa diruz laguntzeko, gatzagarrek Angulak Korrika zozketa ekarriko dute: "Ontzi baten bizirik dauden angulak ikusi eta zenbat dauden asmatu beharko da. Espero dugu ekintza polita izangoa dela".

## NIRE USTEZ



**AITOR OROBENGOA**

### Migel Lopez Legazpiren arrisku-kapital eredua

Harvard Unibertsitateko aditu batek idatzitako artikulu bat irakurri dut AEBetako ekintzaileetasunaren gainean. Adituaren arabera, AEBen jardun berriak abiatzeko arrisku-kapital diru nahiko omen dago; arazo bakarra ideia eta ekintzailerik eza omen da. Ia-ia aldi berean, Confebasqueko zuzendaria agertu izan da, zera adieraziz: ekintzailerik ezaren eraginez, Euskadik ez du epe motzean enpresa berriak sortzeko gaitasunik.

Halakoak irakurtzean Euskadi gizajotzat jo izan dut. Izan ere, Confebasqueko zuzendariak esandakoari gehitu beharko genioke guk hemen ez daukagula arrisku-kapital diru nahikorik. Alegia, gure erakundeen eta politikarien esanak esan, gure banketxeek eta kapital funtsek nahiago izaten dute dirua arrisku gutxiko inbertsio-gune tradizionaletan erabiltzea. Jakina, inbertsio bide tradizional horiek ziurrak izango dira, agian, baina ez dira eraginkorrak enpresak nahiz lanpostu berriak sortzeko. Gogoan izan behar dugu Kaliforniako Stanford Unibertsitatearen inguruan sortutako arrisku-kapitalaren loratzea beroni zerga-hobariak eskaini zitzaionean gertatu zela. Alegia, Kaliforniako aberatsek, banketxeek eta inbertsio funtsei arrisku-kapitalean inbertituz zerga gutxiago ordaintzeko aukera eman zitzaienez, bide honetara jotzea erabaki zuten.

Bertako ereduak maite dituztenentzat badut adibidea arrisku-kapitalen garrantzia azpimarratzeko. Izan ere, gogara ekar genezake 1565ean Andres Urdaneta eta Migel Lopez Legazpikoa marinelek Mexikotik Filipinetara egindako lehen bidaiaren ordainketa zati handi bat Migel Lopez Legazpikoak aurreratu zuela, bide batez, euskal arrisku kapitalaren aitzindaria bihurtuz.

## Positibotasuna lantzeko ikastaroa antolatu dugu Ekin elkartekook

KOMUNITATEA GOIENA
EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA | ARRASATE

Ekin Emakumeak Elkarteko kideok positibotasuna lantzeko ikastaroa antolatu dugu datozen egunotarako. Hauek dira tailerrean landuko diren gaiak eta helburuak: positibotasuna gure egunerokotasunera eramatea, erlazio eta emozio positiboetan jariatzea eta gure buruen zein gure inguruan dauden pertsonen ongizate maila hobetzen saiatzea. Prestakuntzaz eta *coaching* izeneko diziplinaz arduratzen den Jario aholkularitza enpresarekin batera antolatu dugu ikastaroa.

**Hiru bide izena emateko**

Otsailaren 25ean eta 26an saio irekiak egingo dira, doan, nondik norakoen berri jasotzeko (18:00-20:00). Ondoren, martxoaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, aurrekoetan aztertutakoak sakontzeko saioak egingo ditugu (18:00-20:00). Azken lau saio horietarako 20 euroko matrikula ordaindu beharko da; elkarteko bazkideek 18 euro ordaindu beharko dituzte.

Tailerra elkartearen egoitzan emango da, Pablo Uranga kaleko 4. zenbakian. Izena emateko 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara deitu edota *arrasatekoekin.emakumeak@gmail.com* helbide elektronikora idatzi behar da. Animatu!

## Kiroldegi ondoko espaloia konpontzen hasi ziren astelehenean

Musakolako kiroldegira heltzeko espaloia konpontzen hasi ziren astelehenean. Berrituko duten zatia da kiroldegi alboko plazatxotik Santa Teresara igotzeko eskaileren arteko tartea. Lanok bi eta hiru aste irautea aurreikusten da, baina Udalak jakinarazi du iraupena eguraldiak baldintzatuko duela "erabat". Orsa enpresak dihardu obretan.



# Aratuste-martitzenean ere giro handirik ez, euriarekin berriro

Jaiak agurtzeko, ikasleak eta SUDC elkartekoen sardinaren hileta protagonista



Herri eskolako Erguingo irakasle talde bat eta zuzendaria, *San Fermin*. | J.B.



Arizmendiko ikasleen ikuskizunaren amaiera, konfeti eta guzti. | J.BEREZIARTUA




SUDCekoen sardinaren hiletarekin agurtu zituzten Aratusteak. | ANDONI ALTZELAI

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Tabernari gehienek hala aitortuta, Aratusteetan ez da giro handirik izan: "Herri bazkaria ez egoteak eragingo zuen, baina azken urteetan bai igarri dela beherakada; gero eta gehiago dira aste bukaera horretan kanpora doazenak", adierazi du ondoen mozorrotu izanaren saria irabazi zuen Osorik tabernako langile batek. Gaztelu ederra egin zuten, eta barrutik zein kanpotik nola geratu zen ikusita, hainbat ordu sartu zituzten. Bejondeiela!

Euriak ere eragina izan du aurtengo jaietan, zapatuan eta martitzenean egin du-eta. Eta, giroak behera egin arren, hainbat herritarrek hartu zuten parte zapatuko kalejiran eta martitzeneko sardinaren hiletan. Izan ere, SUDCekoek ez dute hutsik egiten; aurten ere Andoni Altzelaik eta konpainiak ordu askotxo egin dituzte euren egoitzan 160 kiloko sardina, hamabi lagunen artean herritik *paseatu* ostean, minutu gutxian erretzeko. Argazki polita utzi zuten, urtero legez.

### Ikastetxeetan, estalpean

Arrasate Herri Eskolan martitzen arratsaldean ospatu zituzten Aratusteak. Ikasleek denetariko mozorroak eraman zituzten etxetik eta irakasleak, berriz, mozorroak bateratu zituzten gune bakoitzean: Bedoñaben punkak, Musakolan mexikarrak eta Erguinen, azkenik, irakasle gehienek sanferminekin *nahastu* zituzten Aratusteak. Erguinen, esaterako, ziklo-ka antolatu zituzten ikuskizunak patio estalian, gurasoen eta senitartekoen aurrean.

Era berean, euriagatik, Arizmendiko Gazteluondoko ikasleek eta irakasleek ezin izan zituzten Aratusteak kanpoko kantxan ospatu. Hori bai, askotariko mozorroak eta ikuskizunak ikusi ahal izan zituzten han batu ziren gurasoek eta senitartekoek. Ikuskizunen artean, ikasle batek kantxa erdian egin zuen dantzaldia aipatu beharra dago; koreografia ondo prestatu ostean, aho bete hortz utzi zituen ikusleak.

# "Arrasatek aukera berriak behar dituela uste dugu"

Arrasate Ahal Dugu eraketa fasean dago; ez dute erabaki udal hauteskundeetara aurkeztuko diren

**J.B.** | ARRASATE

Maiatzaren 24ko udal hauteskundeak gero eta gertuago daude, eta ofiziala da dagoeneko Podemos, alderdi moduan, ez dela Euskal Autonomia Erkidegoan udal hauteskundeetara aurkeztuko. Dena den, ez dute baztertzen tokian tokiko plataformak babestea; bada, Arrasaten duela gutxi sortu dute Arrasate Ahal Dugu lantaldea.

Hiru bilera egin dituzte, oraingoz, eta euren lehen helburua da lantaldea egonkortzea eta kide berriak erakartzea: "Duela bi aste elkartu ginen lehen aldiz eta harrezkero hiru aldiz elkartu gara; aldi bakoitzean jende berria etorri da. Eraketa fasean gaude, herritarrak animatzen kide gehiago batzeko", diote. Hortaz, oraindik ez dute erabaki Arrasaten zerrendarik osatuko duten; hamalau kide dira egun: "Profilei dagokienez, fidelak izan gura dugu Podemosen oinarrietan zehazten diren aniztasun ereduarekin, baina ez da Podemoseko kide izan behar gurekin bat egiteko, mundu guztia da ongietorria".

### "Erabakitzeko hutsunea"

Uste dute Arrasaten badagoela Arrasate Ahal Dugu moduko "plataforma ireki" baten beharra: "Arrasatek aukera eta bide berriak behar dituela uste dugu. Politika egiteko modua aldatu gura dugu, erabakiak herritarrek hartzen dituen politika eredu bat aldarrikatzen dugu, eta Arrasaten ere ikusten dugu hutsune hori. Ezin dugu lau urtean behin bozkatu eta guztia politikarien esku utzi; horrela lortzen den bakarra da gobernatzen dutenek interes pribatuei begiratzea, hiritarren arazoen alde borrokatu beharrean. Gune berri bat sortu gura dugu eztabaidatzeko eta etorkizunerako ideia berriak garatzeko".



Arrasate Ahal Dugu osatzen duten kide batzuk. | ARRASATE AHAL DUGU

## Gurasoendako tailerrean izena eman daiteke gaur

Bi ikastaro antolatu ditu Prebentzio Sailak, 0-12 urte arteko seme-alabak dituztenendako eta 13 eta 19 urte artekoak dituztenendako. Seme-alaben heziketan sortzen diren kezkak eta zailtasunak konpartitzea da helburua. Gaur entregatu behar da izen-emate orria, BAZen; argibide gehiago: 943 25 20 07.

## Antena parabolikoak fatxadetan ezin direla jarri gogoratu dute

Udalak gogorarazi die herritarrei, telekomunikazioen legediak eta plan orokorrak jasotzen duenez antena parabolikoak jar daitezkeela eraikinen estalkietan bakarrik, eta ez balkoietan edo fatxadetan. Horregatik, antena jarri aurretik udal baimena eskatzea gomendatu dute Udaletik.

*Nire bezero oñatiarrei:*
*Eskerrik asko urte hauetan guztietan zuen azala zaintzeko nigan izan duzuen konfiantzarengatik*

*Kontsulta ARRASATEra eraman dugu.*
*Betiko moduan, zuen zerbitzura izango gaituzue.*

**HELBIDE BERRIA:**
**ZUATZU klinika** (egungo EDERSALUD klinika)
**Nafarroa etorbidea 4, behea** (anbulatorioko biribilgunean)
**ARRASATE**
**Tel.: 943 79 20 18 // 620 12 48 43**

*Oñatiar guztiei eskerrik asko.*
*Kontxi Tamayo. Dermatologoa.*



**Ordutegia eta zerbitzuen eskaintza zabaldu ditugu, dermatologiarako eta azalaren estetikarako eskuratu dugun teknologia berriari esker.**

- **DERMATOLOGIA KLINIKOA:** psoriasia, aknea, ekzemak, ileko eta azazkaletako gaixotasunak
- **AZALEKO MINBIZIAREN DIAGNOSTIKO GOIZTIARRA,** lunarren (nevus) kontrola dermatoskopia digitalaren bidez, Fotofinderra
- **LASER UNITATEA:** eguzkiak eta adinak eragindako azalaren orbanak eta gorriuneak ezabatzea, laser depilazioa
- **ESTETIKA DERMATOLOGIKOA:** botoxa, azido hialuronikoarekin azal betetzeak...
- **KIRURGIA DERMATOLOGIKOA:** kirurgia anestesia lokalarekin, tumore on eta txarrak kentzea

RPS: Tramitatzen ari da.



Atarrabian egindako topaketan ere kontzertua eskaini zuten goizeko tailerren ostean. | EUSKADI BRASS

# Oinarrizko kontzeptuak, edonork ulertzeko moduan

Punta-puntako profesionalen eskutik, metal instrumentuen ikastaroak izango dira domekan

**MAIALEN TORRES** | ARRASATE

Euskadi Brass proiektuak, "jendeari musika entzuteko beste ikuspegi bat" eskaintzeko helburuarekin, metal instrumentuak eta literatura uztartzen dituen topaketa antolatu du domekarako. Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta 09:30ean hasiko dira martxan, tailer instrumentalekin. Eskola magistralak eskainiko dituzten profesionalen artean da Mikel Arkauz arrasatearra. Tronboi-jotzailea da, Nafarroako Orkestra Sinfonikoan dihardu gaur egun, eta badu esperientzia antzeko ikastaroak ematen: Euskal Herrian eta Espainian ibilia da, baita Ameriketako Estatu Batuetan, Korean eta munduko beste hainbat txokotan ere.

Tailerrean bere esperientziaren berri emango du, ezer baino lehen. "Ikusarazi nahi diot jendeari, batez ere gazteei, tronboi-jotzaile izatea posible dela. Ni ere eurak bezala hasi nintzen, Arrasate Musikalen; hori bai, leku eta une egokian egoteko zortea izan nuen", dio Arkauzek.

Horretaz gain, tronboia jotzeko gako tekniko eta musikal batzuk eskainiko ditu.

**Edonorentzako ulergarri**

Tailerra erabat irekia izango da, tronboi-jotzaile hasiberri, amateur zein adituagoei zuzendua. "Nire helburua da guztiontzako interesgarria izatea. Oinarrizko gauzak denontzako dira berdinak, eta modu sinplean azalduko ditugu, edonork uler ditzan", azaldu du musikariak. Ohiko ariketak "beste modu batera" egingo dituzte, proposamen grafikoagoak erabiliz. Esaterako, gazteenei, arnasa nola hartu eta bota azaldu ordez, egunean kandelak itzali beharko balituzte bezala planteatzen diete ariketa.

Musikarien elkarguneak sortzeko helburuarekin jaio zen Euskadi Brass, eta tailerrek ere ildo beretik joko dute. Ikasteaz gain, esperientziak trukatzeko aukera izango da, eta, hain zuzen, hori da egitasmoa aberasgarri bihurtzen duena. "Berdin da zein maila daukazun, beti ikasiko duzu zerbait alboan dituzunengandik", onartu du Arkauzek.

Ondoren, tailerretako zenbait parte-hartzailek goizean zehar egindako lana erakusteko kontzertua eskainiko dute, 12:30ean.

Ikastaroetan parte hartzeko lekuak mugatuak dira, eta dagoeneko ez dago izen emateko tarte askorik, baina Arkauzek esan du oraindik ez dela berandu, eta, 606 90 27 70 telefonora deituta, saiatuko direla eskariei erantzuna ematen. Egitarau osoa *www.euskadibrass.com* webgunean.

# Badagoelako zer kontatu, badagoelako zer kantatu

'Sute perfektua' disko berria Arrasateko gaztetxean aurkeztuko dugu, ohiturari jarraituz

**KOMUNITATEA GOIENA**
ANGER | ARRASATE

Larunbat honetan etxean aurkeztuko dugu lan berria. Gogotsu gaude entsegu lokaletik bi solairu beherago eta gure herriaren eta ibilbidearen ezinbesteko erreferentzia den Arrasateko gaztetxean kontzertua eskaintzeko.

Sormenaren bueltan daramatzagun hemezortzi urte hauetan, kaleratutako lan bakoitza gaztetxean –berrian nahiz zaharrean– aurkeztu dugu, eta ekimen ezberdinen jaialdi ugaritan parte hartzeko aukera ere izan dugu. Guztietan ez zaigu aurpegian marraztutako irribarrerik falta izan.

**Oholtzan, Liberekin batera**

Esan bezala, larunbatean, *Sute perfektua* disko berria aurkeztuko dugu Gasteizko Liberekin batera. Seigarren lana dugu honako hau, Karlos Osinaga *Txap*-ekin Bonberenean grabatua. Hitzak eta musika dira nagusi, musika eta hitzak. Kontrakoa aditzera ematen diguten arren, badagoelako zer kontatu. Badagoelako zer kantatu. Eta Arrasateko gaztetxean zer ikusi, entzun eta dantzatu bermatzen saiatuko gara.



Anger taldeko kideak. | ANGER

## Jul Bolinaga agurtzeko, haren errautsak Landan zabalduko dituzte domekan senideek eta lagunek

Jul Bolinaga agurtzeko ekitaldia antolatu dute haren senide eta lagunek domekarako. Landan izango da, 11:30ean hasita. Euria egiten badu, Landako jatetxeko karpa baten elkartuko dira; Julen errautsak zabalduko dituzte, eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, ez da zuzeneko musikarik falta izango. Autobusa antolatu dute hara joateko, eta oraindik izena emateko aukera dago, DAT tabernan. Domekako agur-ekitaldiaz gain, hainbat musika taldek parte hartuko duten omenaldia antolatzen ari dira ekainerako.

**Anibal Carmona** | Artgazki elkarteko presidentea

# "Maila txikien dutenek aterako diote etekin handien elkarteari"

Argazkilaritza-zaleei dakitena praktikan jarri eta ikasten jarraitzeko aukera emango die Artgazkik



Anibal Carmona. | ANIBAL CARMONA

**M.T.** | ARRASATE

Aurrez aurre, edo sare sozialen bidez, herriko argazkilaritza-zale gehienek elkar ezagutzen zuten, eta aspaldidik zuten buruan batu eta elkarte bat osatzeko ideia. Asmo hori errealitate bihurtzekotan dira orain: astelehenean lortu zuten IFK (CIF) eta Eusko Jaurlaritzak elkartearen estatutuak onartzea soilik falta zaie. Artgazki izena jarri diote.

**Zein ekintza mota egingo duzue?**
Maila guztietara egokitutako ikastaroak egingo ditugu, besteak beste, argazkilaritzaren oinarrizko kontzeptuak, errebelatu analogikoa eta edizio digitala lantzeko. Lehiaketak, irteerak eta erakusketak ere antolatuko ditugu.

**Nola jaio zen elkartea?**
Interesa izan zezakeen jendea biltzeko, Facebook orrialde bat egin genuen lehenengo, eta bertan 80 pertsona inguru batu genituen. Eskaera bazela ikusita, lehen bilera egin genuen urtarrilean; hamazazpi kide izan ginen bertan, eta orduan sortu genituen estatutuak. Geroztik, jende gehiago batu zaigu, eta orain, 40-50 kide inguru gara.

**Lokala lortzeko asmoa ere baduzue.**
Dagoeneko hitz egin dugu Udalarekin horretarako eta diru laguntzak ere eskatuko ditugu. Zale guztiok elkartzeko toki bat sortu nahi dugu, gauza berriak ikasi eta praktikan jartzeko aukera emango diguna, ikasgela, estudio, laborategi eta guzti.

**Noiz hasiko zarete martxan?**
Dagoeneko lotuak ditugu lehen ekintzak. Esaterako, martxoaren 17an David Castan paisajistak ikastaroa eskainiko du Kulturaten, argazkien edizio digitalari buruzkoa. Photoshop eta Lightroom landuko ditugu.

**Herriko beste elkarte batzuekin ere ibiliko zarete elkarlanean.**
Hala da. Apirilaren 19an, esaterako, Arrasate Runners taldeak antolatutako lasterketa batean argazkiak atera, eta eurei emango dizkiegu, egiten ari diren bideo batean erabil ditzaten. Gobernuz kanpoko erakundeei laguntzeko asmoa ere badugu. Ideietako bat da erakusketa bat antolatu eta sarrera ordaindu ordez, bisitariek jostailu bat ematea, eta ondoren biltzen ditugunak gehien behar dutenei bidaltzea.

**Zer behar da elkarteko kide izateko?**
Interesa besterik ez. Jendea beldur da taldean sartzeko besteko maila ez izateaz, baina, hain justu, maila txikien dutenek aterako diote etekin handien elkarteari. Denok dugu zerbait eskaintzeko eta ikasteko, eta horregatik erabat irekia da Artgazki. Oraingoz ez dugu ez lokalik ezta egitura finkorik ere, baina interesa dutenak Kajoi tabernara joanda edo *arrasateargazki@gmail.com* helbide elektronikora idatzita jar daitezke gurekin harremanetan.

# Axpe eta Ruiz de Azua, estatuko onenen aurka

- Espainiako pertika txapelketa absolutuan hartuko dute parte bihar
- Elkarrekin entrenatu eta ondo konpondu arren, lehiaketetan aurkari dira

**MAIALEN TORRES** | ARRASATE

Maialen Axpek eta Malen Ruiz de Azuak Espainiako promes mailako txapelketa jokatu zuten asteburuan. 23 urtetik beherakoekin lehiatu ondoren, bihar Espainiako txapelketa absolutuan izango dira, estatu mailako onenekin batera. "Denboraldiko azken txapelketa da, azken txanpa, eta dena eman beharko dugu", esan du Ruiz de Azuak.

Joan den asteburuan Antequeran (Malaga) jokatutako txapelketan arrasatearren arteko lehia itzela izan zen. Axpek urrezko domina jantzi zuen pertikarekin 4,05 metroko jauzia eginda. Ruiz de Azuak, berriz, zilarrezkoa lortu zuen 4 metrokoarekin. Bien arteko lehia oso parekatua izan zen. Azkenik, ordea, Axpek hirugarren ahaleginean 4, 05 metroko altuera gainditu zuen, eta txapelketa irabazi zuen.



Ruiz de Azua eta Axpe, promesen mailako dominak jantzita. | GOIENA

Ruiz de Azua "pozik" geratu zen markarekin, baina ez txapelketan egindako akats teknikoekin. "Baliogabeko saiakera asko egin nituen, eta hori ez da seinale ona, berdinketa kasuetan horien arabera erabakitzen da-eta zein den onena, eta, gainera, presioa gehitzen diote lehiari", onartu du.

Bigarren postuagatiko lehian ari zela igarri zuen gehien Ruiz de Azuak presio hori, 3,80 metroko saltoa hirugarren saiakeran gainditu.

### Kide eta aurkari

Elkarrekin entrenatzen diren arren, txapelketetan aurkari dira bi arrasatearrak, eta ohituta daude horretara. "Une horietan Maialen aurkari bat gehiago da niretzat", dio Ruiz de Azuak.

Erakutsi duten mailara iristeko, astean bost aldiz entrenatzen dira, baina gustura: "Bai, merezi du, Espainiako txapelketan egotea ez du edonork lortzen", esan du Ruiz de Azuak, une batez ere zalantza egin barik.

### Bihar, estatuko onenen artean

Malagan bertan dute hurrengo lehia, eta Naroa Agirre bera ere aurkari izango dute. Dena den, gogotsu daude biak. "Garbi dago lehen postua Naroa Agirrek irabaziko duela, ez daukalako bere mailako aurkaririk, baina gainontzekook oso parekatuta gaude, 4 eta 4,05 metro inguruan, eta denoi gustatzen zaigu irabaztea", azaldu du Ruiz de Azuak.

Hala ere, onartu du postuak baino gehiago, lortuko duen markak axola diola. "4 metrotik gorako marka batekin oso gustura geratuko nintzateke. Gero, dominaren bat baldin badator, hobeto, baina nire buruarekin dudan lehia da, nire marka gainditu nahi dut", dio. Izan ere, azaldu duenez, urteak dira 4 metroko markara iritsi zela; hortaz, 4,05 metroko saltoa "oso emaitza ona" litzateke Ruiz de Azuarentzat, eta, zer esanik ez, 4,10 metrokoa.

Dagoeneko Malagan dira, eta bihar arratsaldean izango dute txapelketa, 16:30ean. Goizean, berriz, Jonathan Perezen txanda izango da.

## Igor Isasi: "Bide honi jarraituta, aukera dugu liga irabazteko"

**M.T.** | ARRASATE

Gainontzekoek baino partidu bat gutxiago jokatu duten arren, zazpi puntuko aldeaz lider izaten jarraitzen dute Arrasate Errugbi Taldekoek. Liga amaitzeko zazpi partiduren faltan, gainera, taldea "oso motibatuta" ikusten du Igor Isasi entrenatzaileak. "Jokalariek barneratuta daukate liga amaitzeko gutxi falta dela eta bide honi jarraituta badugula irabazteko aukera", esan du.

Dena den, ezer ez dago erabakita eta Isasik argi dauka partiduz partidu egin behar dutela aurrera, etxetik kanporako irteeretan taldeak "sufritu" egiten du-eta.

Gernikan izango dute hurrengo partidua, domekan, 13:00etan. Norgehiagoka "zaila" aurreikusten du Isasik. "Belar artifizialean entrenatu eta jokatzera ohituta gaude, eta euren zelaia erabat lokaztuta egongo da", azaldu du. Jokoaren erritmoa, beraz, geldoagoa izango da, eta erresistentzia izango dute arrasatearrek erronka nagusia.

Hori jakinda, entrenamendu berezia egin dute Eibarren, belar naturalean, eta Isasi baikor agertu da. "Badakigu talde ona daukagula. Horregatik, saiatuko gara taldean jokatzen eta euren jokoan ez jausten, ea horrela lau puntuak lortzen ditugun", esan du.

## Josu Zubia: "Erlaxatzen bagara, domekakoa tranpa bihur liteke"

**M.T.** | ARRASATE

Azken hiru partiduak irabazita, indartsu dabil Mondra eta hala baieztatu du Josu Zubia entrenatzaileak ere, taldea lanean "ondo" dabilela esanda.

Ilintxaren aurkako partidua 0-1 irabazita, sailkapenaren bosgarren postuan da talde arrasatearra, 33 punturekin, eta aurretik duen Amaikak Bat taldetik puntu bakarrera.

Lagun Onak izango dute aurkari datorren jardunaldian, eta, azpeitiarrak jaitsiera postuetan dauden arren, domekako partidua ez dela erraza izango onartu du Zubiak. "Denboraldia aurrera doa, eta, talde gaztea izan arren, ez dira jaitsiera arriskuan egoteko bezain txarrak; beraz, gogor estutuko gaituzte", esan du.

Hortaz, sailkapena alde batera utzi, eta askorik erlaxatu gabe irten beharko dute arrasatearrek zelaira; bestela, partidua "tranpa" bihur litekeela azaldu du Zubiak. Gaineratu du aurrean jarraitzeko irabazi egin behar dutela, eta badituztela horretarako aukerak. "Partidu guztiak desberdinak dira, baina azkenaldian etxean indartsu gabiltza, eta motibatuta ikusten dut taldea", dio.



Mikel Arexolaleiba, kontraerasoan, Ardoiren kontrako partiduan. | IMANOL SORIANO

## Entrenamenduetan ereindako lana puntu gisa jasotzea espero du MUk

**M.T.** | ARRASATE

Zapatuan MUk Natural Rioja Vintage taldea hartuko du etxean, eta, partiduari begiratuta, Josu Larreategi entrenatzailea "baikor" agertu da. Izan ere, haren esanetan, azken bi asteetan jokalariak "oso ondo" aritu dira entrenamenduetan. "Taktika landu dugu, errazago sartu eta defentsa indartzeko", esan du. Eta entrenamenduetan ikusitakoa partiduan betetzen bada, irabazteko aukerak izango dituztela uste du.

Errioxarrek, ordea, ez diete lana erraztuko, maila handiagoetan ere jokatzen duten jokalariez osatutako taldeak joaneko partiduan "jipoi galanta" eman zien arrasatearrei. Dena den, hirugarren jardunaldian bildutako amorrua jokalarientzat gauzak hobeto egiteko motibazio bihurtu eta ideia horrekin kantxaratzea espero du Larreategik. 20:30ean izango da partidua, Iturripen, baina itoginak direla-eta epaileak kantxa egokia ez dela erabakitzen badu, Musakolara pasako dute.

Ligako bigarren bueltan murgilduta dira dagoeneko, eta puntu bakoitzak urrea balio duen honetan, aurrera begiratzen du Larreategik. "Min hartuta edo kanpoan izan diren jokalariak berreskuratzea da gure helburua orain, fisikoki talde lehiakorra izateko", esan du.

## Musakolan 'nordic walking' teknika ikasteko izen-emate epea zabalik dago

**M.T.** | ARRASATE

Europa iparraldeko eskiatzaileek urtean zehar entrenatzeko asmatu zuten *nordic walking*-a, eta, kirol horretarako lagungarri izateaz gain, osteoporosiarentzat eta bizkarreko gaitzentzat ere baditu onurak. Bi saioko ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak: datorren zapatuan izango da lehena, hiru ordukoa; eta martxoaren 14an bestea, bi ordukoa. 09:30ean biak.

### Kiroldegian bertan

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek 943 77 16 77 telefonora deituta edo Musakola kiroldegira bertara joanda eman dezakete izena. Abonatuek 27,25 euro ordaindu beharko dituzte eta abonatu ez direnek, 37,25.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Lasagabaster - Haizea's Weah | **3-5** |
| Arrasate Taberna - Ostantz | **3-12** |
| Dribling 2.0 - Betrayer | **6-3** |
| Drink Team - Kantzerlauten | **2-11** |
| Abokajarro - Aldatz | **8-3** |
| Sonografos - Jibaros F. C. | **5-0** |
| Iluntz - Alytis FK 2.0 | **2-6** |
| Iluntz - Alytis FK 2.0 | **0-1** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Dribling 2.0 | 28 | 11 |
| 2. | Aldatz | 24 | 10 |
| 3. | Jibaros F. C. | 24 | 11 |
| 4. | Sonografos | 21 | 11 |
| 5. | Abokajarro | 21 | 11 |
| 6. | Lasagabaster | 19 | 11 |
| 7. | Alytis 2.0 | 17 | 10 |
| 8. | Ostantz | 16 | 11 |
| 9. | Haizea's weah | 14 | 11 |
| 10. | Betrayer | 14 | 11 |
| 11. | Kantzerlauten | 8 | 11 |
| 12. | Drink Team | 5 | 11 |
| 13. | Arrasate Taberna | 4 | 11 |
| 14. | Iluntz | 0 | 11 |

**PARTIDUAK**

OTSAILAK 21, ZAPATUA

**11:00** Kantzerlauten - Sonografos / **Dribling 2.0**

**12:00** Dribling 2.0 - Aldatz / **Sonografos**

**13:00** Alytis FK - Jibaros F.C. / **Aldatz**

OTSAILAK 22, DOMEKA

**10:00** Alytis FK - Aldatz / **Abokajarro**

**11:00** Drink Team - Abokajarro / **Altys FK**

**12:00** Betrayer - Haizea's Weah / **Drink Team**

**13:00** Ostantz - Lasagabaster / **Betrayer**

**Atsedena:** Arrasate Taberna

# Egungo eszenaren onena ikusteko zikloa martxan

Urtean zehar sakabanatuta zeuden antzerki emanaldiak batu ditu Udalak

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Herrian, lehenengoz, eta gaur hasita, antzerki zikloa egingo dute. Heldu zein haurrentzako emanaldiak izango dira, eta, jendearen antzerki gosea asetzeko, antolatzaileek une honetan euskal antzerkian dauden askotariko obrak aukeratu dituzte. "Proposamen interesgarriak ekartzen saiatu gara", dio Kultura zinegotzi Leire Iruinek.



'Zazpi aldiz elur' antzerkiak irekiko du antzerki zikloa. | IMANOL SORIANO

**Zortzi antzezlan**

Antzerki zikloan zortzi antzezlan eskainiko dituzte, martxoaren 1era bitartean. Ttanttaka antzerki taldearen *Zazpi aldiz elur* antzezlanak irekiko du gaur zikloa. Emanaldia Udal Pilotalekuan izango da, 22:00etan. Antzerki horretarako geratzen diren sarrerak Udal Pilotalekuko txarteldegian salduko dituzte 8 eurotan, 21:00etatik aurrera.

Gainontzeko saioak Zabalotegin egingo dituzte, Barry Barrez bakarlariarena izan ezik, hura udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da-eta. Umeentzako eskaintza ere egongo da zikloan zehar, eta antzezlan guztiak euskaraz izango dira.

Antzezle profesionalen ondoan, Jardun euskara elkarteko haur antzerki eskolako artistek ere emanaldia eskainiko diete herrikideei. Herriko hamahiru neska -mutikok *Autobusa* antzezlana eramango dute Zabalotegi aretoko oholtza gainera.

Bihar hasiko den zikloa prest dago; jendeak antzerkiarekin bat egitea baino ez da geratzen.

### Sarrerak eta bonuak

Sarrerak aldez aurretik *Bergara.net*–en eta Kultura Zerbitzuko bulegoetan eros daitezke, eta ikuskizun bakoitzaren egunean aretoko txarteldegian erosteko aukera ere egongo da.

Bonuak ere kultura etxean eros daitezke; *Zazpi aldiz elur* ikuskizuneko sarrera ere jaso behar da, eta gainontzeko emanaldietan bonua erakutsita nahikoa izango da.

### ZIKLOAREN EGITARAUA

**Gaur:** *Zazpi aldiz elur*, 22:00etan.
**Bihar:** *Arren ganbara emeen sotoa*, 20:00etan.
**Etzi:** *Mollie Malonen ipuin sinestezina*, 18:00etan.
**Otsailak 25:** *Barry Barrez*, 19:00etan.
**Otsailak 26:** *Autobusa*, 18:00etan.
**Otsailak 27:** *100 m2*, 22:00etan.
**Otsailak 28:** *Pankreas*, 22:00etan.
**Martxoak 1:** *Izar eta Zenaida: indar magikoa*, 18:00etan.

# Arrandegietan igarri da gehien ontzien kanpaina

Udalak eta Kutxa Ekoguneak herritarren artean banatutako tuperrak 9.099 aldiz erabili dira

**I.G.** | BERGARA

Kutxa Ekoguneak bultzatu eta Udalak bat egin duen *Ontziratu zaitez* kanpaina eraginkorra izaten ari da. Joan den urtean urrian martxan jarri zuten kanpaina herrian, eta lau hilabetean 9.099 aldiz erabili dituzte tuperrak kanpainan parte hartzen ari diren herritarrek.

3.000 ontzi banatu zituzten, produktu freskoen saltokietan erabiltzeko; batez ere, arrandegietan eta harategietan. Ordutik hona, paper eta plastikozko bilgarri gutxiago erabili dituzte.

Tuperrak arrandegietan 5.914 aldiz erabili dira, eta harategietan eta produktu freskoen beste saltoki batzuetan 3.184. Hau da, ontzien %65 arrandegietan erabili dituzte eta gainontzeko %35ak harategietan eta beste saltoki batzuetan. Azken horietan ontzien erabilerak gora egin du, abenduan izan ezik, eta joera positiboa igartzen da. Arrandegietan, ordea, erabilerak behera egin du abenduan eta urtarrilean.

**Dendariak ere alde**

Ekimenean parte hartzen duten dendariek ere igarri dute tuperren erabilera. Batetik, sistema eroslearendako oso erosoa dela adierazi dute: "Behin etxera iritsita, ontzia zuzenean hozkailuan sartzen dute". Bestetik, dendetan ontziak maileguan uzteko aukera eskaintzen badute ere, "oso gutxitan" utzi dituztela azaldu dute saltzaileek. "Ohitura aldaketa bat bada ere, erosketa erosoagoa da", argitu dute Udaletik.

Dendariek diote kostuak murriztu egin direla, plastikozko poltsa eta paper gutxiago erabiltzen dira-eta.



Bezero bat arrandegian tuperra erabiltzen. | IMANOL GALLEGO



Saltzaile bakoitzak askotariko produktuak eskaintzen ditu. | GOIENA

# Berrerabilpena sustatzeko laugarren azoka domekan

Kontsumitzeko beste eredu bat eskaintzen duten bigarren eskuko eta artisauen 34 postu egongo dira

**I.G.** | BERGARA

Etxean erabiltzen ez diren gauzak edo norberak egindakoak erakutsi, trukatu edo saldu nahi dituztenentzako tokia da Domeka Azoka. Denetarik egongo da: bitxiak eta bitxikeriak, liburuak eta diskoak, antzinako gauzak... Domekakoa laugarrena izango da; lehenengo biak Oxirondon egin ziren, eta ondorengo azokak, parte-hartzaileen eskariz, San Martin plazan egiten dira.

**Arrakasta itzela**

Parte-hartzaile kopurua ere handituz joan da, eta, toki faltagatik, eskaria egin zuten saltzaile batzuk kanpoan geratu dira.

Eguraldiak laguntzen badu, azoka plazan egingo dute; eta bestela, Seminarioko arkupeetan.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77


IMANOL GALLEGO

**SEVILLAKO GATZA** Mariaren Lagundiko ikasleek euren grazia kalera atera, eta kalesa eta guzti, Sevilla irudikatu zuten herriko kaleetan zehar. Plazan, esaterako, musikaren erritmora dantza egin zuten.

# Mozorroei, koloreei eta algarari agur

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Bergararrek Aratuste egun bikainak pasatu dituzte. Egubakoitzean ekin zioten Aratusteak ospatzeari eta herrian jai giroa eta umorea nagusitu ziren. Eguraldiak festarako gogo handirik ez zuen arren, herritarrek zeruari koloreetako aurpegia margotu diote, eta kalean eman dituzte egun hauek.

**Martitzenean ere bai**

Jaiegun guztiak aprobetxatzeko, Udalak martitzena indartzeko ahalegina egin du.

Orain, erabilitako mozorroak lehortu eta armairura sartu ostean, norma jantzi beharreko egunak datoz.


I.G.

**MARTITZENA ALAITZEN**
Ez zuten lan makala izan, eguraldiak ez zuen–eta askorik lagundu. Hala ere, talde polita batu zen eta kaleak alaitzera irten ziren. Danborren laguntzarekin doinua jarri zioten Aratuste–martitzenari.


I.G.

**OHITURA ALDARRIKATU** Ohi bezala, Aranzadi Ikastolako gaztetxoek, dantza eta guzti, Euskal Herriko Aratusteak irudikatu zituzten. Bukatzeko, ikastolako jolastokian Miel Otxin erre zuten.


I.G.

**FESTARI KOLOREA JARTZERA** San Martin Agirre eskolak margolaritza aukeratu zuen gai moduan. Txikiek eta nagusiek gai horren bueltan irudimenez betetako mozorroak jantzi zituzten.


IMANOL SORIANO

**SENTIMENDUZ** Lortu dut, hala moduz, Aratusteetako ondorioak ahaztea. Ezin, ordea, egubakoitzekoa. Aratusteak zapatuko mozorro festa baino gehiago bilakatu dira kabareta osatu zuen taldeko partaide izatearen ohorea izan duen batentzat.

Eskerrak eman nahi dizkiet horrelako muntaia musikal bat posible egin duten 180 lagunei, euren eguneroko bizitzan tarte bat hartu dutenei ikusleei imajina ezinezko gau bat eskaintzeko. Musikari guztiei eta Aritzeta abesbatzari, umeen taldeari, Mariari eta Mikeli, Kontzertuko Lagunak taldeko aktoreei eta tramoiei. Kulunka dantza taldeari aipamen berezia; Debatik dakarten ilusioa agertokian nola ateratzen duten ikusteak ez du parekorik. Ez naiz guztien izenez gogoratzen, baina hilabete hauetako entsegu eta egubakoitz gauean bizitakoa ez zait sekula ahaztuko.

Eurek nahi izan ez arren, 180 pertsona horien artetik Alfredoren, Javiren, Manuren eta Alaitzen lana azpimarratu nahi dut, egubakoitzeko ikuskizunaren lau zutabeak izan ziren–eta.

KOMUNITATEA GOIENA | JOSU ELORTZA
UDAL MUSIKA BANDA | BERGARA

## Angiozarko gaztetxoen zirkua


ANGIOZAR ESKOLA TXIKIA

Aratusteak ospatzeko, Angiozarko eskola zirku bihurtu zen. 2 urteko umeak animaliaz mozorrotu ziren eta 5-6 urtekoak, mimoz. Nagusiagoek aukera zabalagoa izan zuten, eta eskola magoz, pailazoz eta malabaristaz bete zen. Gaztetxoek ez ezik, Anggiolini zirkuan auzoko zenbait gurasok ere parte hartu zuten.

## Datorren astean ipuinekin gozatzeko aukera bikoitza

Ipuinzaleek bi hitzordu izango dituzte: eguaztenean, Belen Azkaratek *Barazkien sekretua* ipuina kontatuko du udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean; eta egubakoitzean, gaztetxoendako, Amaia Arriaranek *Ipuin festa* egingo du, 18:00etan eta 18:30ean, umeen liburutegian.

## Herri kirol txapelketa egingo dute bihar Xabalote gaztelekuan

18:00etan ekingo diete jolasei eta taldeetan banatuta askotariko kirolak egingo dituzte. Txapelketak, baina ez du saririk izango, lehiaketaren helburua ondo pasatzea da-eta. Bestalde, hilaren 28an eskiatzera joan nahi dutenek astelehena izango dute izena emateko azken eguna.

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93


Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

# Kargua hartu eta gero, biharko derbian estreinatuko da Juanina Garai entrenatzailea

## 2000tik 2004ra zuzendu zuen Bergarako futbol taldea arrasatearrak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Orain dela hamar egun hartu zuen entrenatzaile kargua Juanina Garaik, eta zapatuan Antzuolaren kontrako derbia izango da haren lehen partidua. Aldi berri honetan, Ohorezko Gazte Mailako entrenatzaile izan den Juanjo Nogueiras izango du laguntzaile lanetan.

Bergarako entrenatzailea izan zen Garai 2000tik 2004ra, Hirugarren Mailan eta Preferentean. Bergarako taldea ez ezik, Mondra, Urola eta Antzuola taldeak ere zuzendu ditu.



Juanina Garai entrenatzailea. | GOIENA

**Mailari eustea da helburua**

Bergarak aurtengo zuen helburu nagusia denboraldi lasaia izan eta mailari aise eustea zen. Baina emaitzek bestelako bidea markatu dute: azken bederatzi jardunaldietan hiru puntu bakarrik lortu zituen Arrateren taldeak; horrenbestez, eta emaitzak aintzat hartuta –azken jardunaldian Ostadarren kontra galdu zuten Agorrosinen–, entrenatzaile aldaketa adostu zuen Bergarako zuzendaritzak.

Garaik gogotsu hartu du entrenatzaile kargua, eta adierazi du egun dauden zulotik irten nahi badute denboraldi amaitu arteko partidu guztiek finalak izan beharko dutela.

**Derbi berezia**

Bihar Agorrosinen jokatuko duten derbia berezia izango da (16:30). Garaik, herriko taldearen entrenatzailea den arren, lau urte eman ditu antzuolarren entrenatzaile, eta, seguruenez, edozein emaitzak zapore gazi-gozoa utziko dio.

# Bubisher elkarteak aurreko urtean baino tona bat janari gehiago jaso du

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Bubisher elkarteak 5.209 kilo janari batu ditu SOS Sahara Karabanarako. Bergaran, Antzuolan, Soraluzen eta Elgetan egin dute janari bilketa. Herriz herri hauek dira datuak: Bergaran 4.360 kilo janari batu dituzte; Antzuolan, 612; Soraluzen, 205; eta Elgetan, 32.

"Elkartetik oso balorazio positiboa egiten dugu, murgilduta gauden krisi garai hauetan 1.000 kilo gehiago jasotzea oso albiste pozgarria da", dio Bubisher elkarteko kide Bibi Anduezak.

**Lekaleak eta arroza**

Batutako bost tona horietatik bi arroza eta lekaleak dira. Janariak, orain, bi hilabete luzeko bidea egingo du. "Alacanteraino kamioian eroango dute janaria, han itsasontzi batean sartu eta Oranera iritsiko da. Aljeria osoa kamioiz zeharkatu eta gero iritsiko da janaria kanpamentuetara", argitu du Anduezak.

Bubisher elkarteko kideak argi dauka herri saharararrak jasaten duen "muturreko egoera" arintzeko edozein esfortzuk balio handia duela.

Horregatik, Bubisher elkarteak eskerrak eman nahi dizkie hori ahalbidetzeko parte hartu duten guztiei: Bergarako eta Antzuolako udalei; Antzuolako, Bergarako, Elgetako eta Soraluzeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeei; Aranzadi Ikastolari; Mariaren Lagundia Ikastolari; Ipintzako eta Soraluzeko institutuei; janari-dendei; Komite Internazionalistari; Antzuolako Anelkar elkarteari; Embalan 3 enpresari; eta DHL garraio enpresari.




Giartzu klubeko kirolariak errusiar pisuekin lanean (Kettlebell)

giartzu kluba

**Laster beste jarduera bat:**
Zumba eskolak Leirerekin

Informa zaitez! Ikastaro guztiak **www.giartzu.com** webgunean ikusgai dituzu.

**Boni Laskurain 3 – BERGARA – Tel.: 943 76 30 05**


### Saskibaloi taldea Donostiara joango da beste bi punturen bila

Etxean lortutako garaipenaren ostean, Soraluce BKE saskibaloi taldeak Donostiako Bosteko Irauli B taldea izango du aurkari. Paco Ioldi kiroldegian jokatuko dute partidua, zapatuan, arratsaldeko seietan. Bergararrek bi puntu gehiagorekin bueltatzeko aukera handiak dituzte.

### Etxekoek hurrengo sailkatua atzean lagatzeko aukera dute

Azken partidua liderraren kontra galdu arren, eskubaloi taldeak sailkapenaren erdian jarraitzen du. Zapatuan, 18:30ean, bergararrek sailkapenean postu bat beherago dagoen Erandioko taldea atzean uzteko aukera paregabea izango dute. Partidua Altzaga kiroldegian izango da.

### Soraluce lau t'erdiko azken final-laurdena martitzenean

19:30ean hasiko da jaialdia. Lehenak promes mailako Peña eta Zubiria izango dira, eta ostean, nagusien mailako Irribarriaren eta Lasoren txanda izango da. Antolatzaileek esan dute martitzeneko partiduetan aldaketak egon daitezkeela, pilotarien eskuetako arazoengatik.

### Domekan Usurbilera eta Oriora joango dira Pol-Pol taldekoak

Pol-Pol mendizale taldeak egun osoko txangoa egingo du domekan. Aldez aurretik izena eman dutenak frontoian elkartu eta 08:00etan irtengo dira Usurbilerantz. Irteera horretan, Orio eta Usurbil eta hango parajeak ezagutzeko aukera ezin hobea izango dute mendizale taldekoek.

NIRE USTEZ



SAIOA GARITANO

## Oztopoen gainetik...

Ez da gai berria, baina azken aldian, euskararen normalizazioari eta hizkuntz politikei eragiten ari dira. Patrick Dallennes, Frantziako Gobernuko ordezkariak eta Carlos Urkixo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, euskaraz bizitzeko nahia burutzen ari diren administrazioen urratsak zapuzten ari dira.

Patrick Dallennes-ek, Hendaiako ikastola laguntzeko Herriko etxeak hartutako erabakiaren kontra egin zuen eta baita Uztaritzeko Herriko Etxeak euskara ofizial izendatu izana salatu. Urkixok aldiz, UEMAn dauden 15 udalen aurkako helegiteak jarri ditu Estatu espainiarreko gobernu ordezkaritzara aktak euskaraz bidaltzeagatik.

Kasu hauek, euskaldunak askeak ez garela agerian uzten dute. Ez digute uzten euskaldunok nahi dugun, behar dugun eta erabakitzen dugun ekintza politika egiten. Bizi nahia gauzatzeko urratsak ematen diren bakoitzean esku-hartzea jasaten dugu etengabe. Euskarari, balio guztia kentzeko prest daude baina zorionez, instituzio batzuk oztopoei aurre egin eta euskaraz bizitzeko determinazioa erakutsi dute. Helegiteak jaso dituzten udaletako arduradunek beraien jarrera argi azaldu dute eta hartutako erabakia irmotasunez defendatu dute.

Beraz, txalotzea eta babestea dagokigu orain, alboan izango gaituztela erakustea. Horretarako, otsailaren 28an Donostian egingo den manifestaziora joatera animatzen zaituztet.

Euskaraz biziko gara!



IMANOL GALLEGO

## Artekalea "hilda dago"

Aratuste-martitzenean hileta bat irudikatu zuten Artekaleko zenbait merkatarik. Euren ustez, alde zaharreko zenbait kale ahaztuta daude eta gune horiek indar eta bizitza handiagoa behar dute. "Kale honetan ez dago tabernarik; hala ere, zerbait egin daiteke hau girotzeko", dio Raizabal gozotegiko Josune Sagastumek.



Eteoko eraikin zaharrean dago Eltzia; han, herriko hainbat talde eta eragile daude. | GOIENA

# 'Eltzekide'-en beharretara egokitutako proiektu arkitektonikoa izango da

- Izaskun Legaristik egin du lehen zirriborroa
- Aurkezpenak egingo dituzte datozen asteetan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Eltzia egitasmoaren proiektu arkitektonikoaren diseinu lanak *eltzekide*-ei aurkeztuko diete datozen egunetan. Azken hilabeteetan Izaskun Legaristi arkitektoa ibili da proiektua egiten; orain, *eltzekide*-ekin kontrastatzeko unea iritsi da.

"Proiektu arkitektonikoaren lehen zirriborroa aurkeztuko diegu *eltzekide*-ei eta denon artean adoste prozesu bat hasiko dugu", azaldu du Johana Olabarriak, Eltzia egitasmoko dinamizatzaileak. Ze proiektu aurkeztuko duten galdetuta, hauxe dio Olabarriak: "Iaz proiektua bera definitu genuen; alde batetik, eraikin barruan egongo zena eta barruko funtzionamendua nolakoa izango zen; behintzat, oinarri batzuk finkatu ziren. Horrez gain, eraikinaren barruan zer-nolako ekimenak egingo diren definitu genuen. Izaskunek egin duena da han planteatzen diren ekimenak gauzatzeko zer-nolako espazioak egon behar diren irudikatu", dio Olabarriak.

**Aurkezpena eta kontrastea**

Lau aurkezpen saio egingo dituzte, eta ondoren kontraste saioak. "Batzarrak egiten ditugunean, elkarte bakoitzetik ordezkari bat edo bi etortzen dira. Hala, taldeari proiektua aurkeztu ondoren, taldekide bakoitzak bere elkartean aurkeztuko du proiektua; taldean hitz egin, eztabaidatu eta proposamenak landuko dituzte, bigarren batzar baten proposamen horiek jasotzeko", esan du Olabarriak. Hamabost bat eguneko tartea izango dute *eltzekide*-ek euren elkarteetan eztabaidatu eta proposamenak aurkezteko. Apirilaren 28an bateratze saioa egingo dute: saio horretan, sormen, auzo, gorputz eta herri mugimenduko kideak batzartuko dira. Taldeen proposamenekin osatuko da proiektua, eta, modu horretan, benetan dauden beharrak hartuko dira kontuan. Ondoren, lehentasunak zehaztuko dituzte.

Gorputz Eltzia taldean Oinatz dantza taldea, Andraitz –dantza afrikarrak egiten dituzte– eta Lagun Lekuko Yoga taldea daude, besteak beste; Herri Mugimenduen Eltzia talde orokorrena da: Euskal Memoriaren taldea, Txirrinka, Gurutze Gorria, Acesma... daude, esaterako; Auzo Eltzia taldean auzoko hainbat eragile daude: Lagun Leku eta Txantxiki, esaterako; Sormen Eltzian herriko sortzaileak daude. Eltziaren erabiltzaileak hamabi bat talde direla esan du Olabarriak.

**Musika Eltzia**

Bosgarren *eltze* bat ere badagoela azaldu du Olabarriak: Musika Eltzia. "Musika Eltzia aurreratuen dagoen taldea da. Musika Eltzeko obren esleipena kaleratuta dago, 349.000 euroko aurrekontuarekin. Bi fasetan egingo dira obrak, inbertsio ekonomiko handia dakarrelako. Asmoa da martxoan edo apirilean obrak egiten hastea". Akustika kontuetan adituak diren EKO eta Egaic Gasteizko enpresek egin dute proiektua.

32 musika talde daude –ohiko taldeak, lau bat kidekoak– eta tamaina handiko beste hiru: Trikitxaranga, Lizargarate eta batukada feminista.

**PROIEKTU ARKITEKTONIKOA**

| | AURKEZPENA | KONTRASTEA |
|---|---|---|
| **Gorputz Eltzia** | Otsailak 24 | Martxoak 10 |
| **Herri Mugimenduen Eltzia** | Otsailak 26 | Martxoak 12 |
| **Auzo Eltzia** | Martxoak 4 | Martxoak 18 |
| **Sormen Eltzia** | Apirilak 14 | Apirilak 28 |
| **Bateratze saioa** | | Apirilak 28 |

*Saio guztiak 19:00etan izango dira, Eltzian. ITURRIA: ELTZIA

# Olanok enpresekiko konpromisoa azaldu du

EAJren diputatu nagusirako hautagaiak udalerriko errealitate ekonomikoa ezagutu du

**A.E.** | OÑATI

Markel Olano EAJren diputatu nagusirako hautagaia Oñatin egon zen atzo. Miren Elgarresta alkategaiarekin batera udalerriko errealitate ekonomikoa, soziala eta kulturala gertutik ezagutu zuen Olanok. "Gipuzkoa lurralde industriala da, zeinetan Oñati erreferente den; horregatik, esfortzua egin behar dugu erreferentzia hori gal ez dezan", azaldu zuen Olanok.

EAJrendako, arlo ekonomikoak dauka lehentasuna: "Jendea oso kezkatuta dago egoera ekonomikoak familietan eragin zuzen-zuzena izan duelako, baita langabeziak ere; eta guk uste dugu hor egin behar dela indar nagusia". Horren harira, gaineratu zuen: "Uste dugu ekonomiak duela lehentasuna, eta azken lau urte hauetan ezker abertzaleak arlo horretan egin duena penagarria izan da". Enpresekin konpromisoa berreskuratzea beharrezkotzat jo zuen Olanok: "Uste dugu beharrezkoa dela erakunde guztietan gure enpresekin konpromisoa berreskuratzea. Proiektu ekonomikoak du lehentasuna, eta behar ditu planifikazioa, neurriak eta baliabide ekonomiakoak".

**Ekonomia sustatzea**

Elgarrestak nabarmendu zuen Oñatiko enpresek ere behar dituztela ekonomia sustatzeko politikak, eta, batez ere, "autonomoak eta merkatariak" nabarmendu zituen. Gainera, ingurumenaren zaintza eta kontzientziazioa leku guztietan ezinbestekoa dela esan zuen Elgarrestak, baina "Oñatin bereziki" dela ezinbestekoa.



Markel Olano eta Miren Elgarresta, unibertsitatearen aurrean. | EAJ

## 'EkoLingua' solas-joko sorta aurkeztu dute, Oñatin esperimentatutako 'DikomA' proiektuan oinarrituta

Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatu eta hizkuntza-komunitatearen sistema ahalmentzeko helburuarekin *DikomA* proiektua egin zuten Eusko Ikaskuntzak eta Soziolinguistika Klusterrak. Oñatin garatu zuten proiektua: materiala probatu eta erabili eta herritarrekin hausnarketa saioak egin zituzten. Bada, orain, emaitza aurkeztu dute: *EkoLingua* solas-joko sorta.

## Oñatin kultura proiektuak eta programak egiteko 60.000 euroko diru laguntza poltsa dago

Kultura proiektuak eta programak betetzeko diru laguntzak kultura arloko ekintza bat edo programazio oso bat antolatzen duten talde eta erakundeek eskatu ahal izango dituzte. Kontuan izango da proiektua Oñatin egitea. Eskaerak udal bulegoetan aurkez daitezke martxoaren 13ra arte. Kultura proiektuak eta programak betetzeko 60.000 euroko diru poltsa dago, eta irabazi asmorik gabeko taldeen sormen lanak egiteko 10.000 eurokoa.

## Martxoaren 2tik aurrera monitore zerbitzua egongo da Zubikoa kiroldegiko gimnasioan

Azkeneko tokiko gobernu batzarrean, Udalak Zubikoa kiroldegiko gimnasioan monitore zerbitzua kontratatzeko proposamena onartu zuen. Oñatiko kirol sistemaren azterketa eta diagnostikoa aurkezterakoan jaso zuten iradokizuna. Gaia aztertu ondoren, eta Ogasun eta Kirol batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuta, zerbitzua Egoitek enpresari esleitu diote, urte baterako. Martxoaren 2an hasiko da lanean monitore berria.

# Oñatiko erraldoiek eta txorimaloek egin dute eraberritu ondorengo lehen desfilea

Kolpeak konpondu, karetak eta erraldoien aurpegiak margotu eta erraldoien arropak txukundu dituzte

MIREN ARREGI | OÑATI
Abendutik otsail hasierara bitartean Hondarribiko Garate Anaien tailerrean egon ondoren, Inauterietako martitzenean atera zituzten Oñatz dantza taldeko kideek Oñatiko erraldoiak eta txorimaloak kalera, konponduta, txukunduta eta eraberrituta. "Beharra zuten; izan ere, azken konponketa orokorra 1992an egin zen eta garbitu beharra, margotu beharra eta kolpeak konpontzeko behar handia zuten", dio Mikel Urrutiak, Oñatz dantza taldeko kideak.

Bitarte horretan, Oñatz dantza taldeak –dantza taldeak du erraldoi eta txorimaloak atera eta horien mantenua egitearen ardura– txukunketa txikiak egin dizkie, baina oraingoa izan da konponketa orokorra.

**Emaitzarekin pozik**

Sanmigel jaiak bukatuta hasi ziren Oñatz dantza taldekoak dena antolatzen. Garate enpresakoei aurrekontua eskatu, Udalari aurkeztu, hark onartu... Erraldoiak erantzi, desmuntatu eta kamioietan kargatzen ere eurak ibili dira. Konponketaren emaitza ikusita, pozik dira Oñatz dantza taldekoak.


Erraldoi eta txorimaloen konpartsa Santa Ana kanpoan, joan den domekan. | OÑATZ

**Txukunduta urte batzuetarako**

Esandako moduan, 1992an egin zen erraldoi eta txorimaloen azken konponketa orokorra. Garaten egin zen hura ere eta urte hartan batu ziren konpartsara bi erraldoi baserritarrak. 1996an lau kareta berri ekarri ziren, horiek ere Garate Anaiek egindakoak. Ordutik hona, egin dira konponketa txikiak eta mantentze-lanak. Oraingoarekin, txukun daude urte batzuetarako.


Erraldoiak eranzten. | OÑATZ


Txorimaloa, martitzenean. | A.E

## NIRE USTEZ


ELIAS ZUMALDE

### 'Euskahaldun'

Badator Korrika, bi urtean behineko hitzorduari kalerik egin gabe. Aurten ere, martxoaren 23an, goizean goiz, Oñatin izango da euskararen aldeko 19. lasterketa. Zalantzarik gabe sinbolismoz eta indarrez betetako ekimena. Korrika sortu zenetik gaur arte, makina bat oñatiarrek parte hartu dute bertan eta, aurtengoan ere, beteko ditugu kaleak eta errepideak, ez da faltako, ez, euskararen aldeko antxintxikalaririk. Emango diogu euskarari bultzada, hartuko du arnasa. Baina, egun batekoa gutxitxo da, euskarak egunero behar baitu arnasa, ezin da bizi bihar edo etzi ito egingo den kezkaz.

Aurtengo leloa *Euskahaldun* da. Ezin aproposagoa. Euskaldunok *ahaldun*-du gaitezen. Sinistu dezagun euskara erabiltzen dugunetan baino gehiagotan erabili *ahal* dugula. Geuk, erabili *ahal* dugunok, jartzen dizkiogula mugak. Inork ezer eskatu gabe, sarritan, geu pasatzen garela erdarara, geureari eutsi beharrean bestearenera pasatzen garela. Erabil dezagun euskara han eta hemen, harekin eta honekin, orain eta gero... Gaindi ditzagun zalantzak, aurreiritziak eta bestelako trabak. Erabil dezagun euskara nahi dugulako, geurea delako eta, nola ez, *ahal* dugulako. *Euskahaldun* izan gaitezen.

**"Sarritan guk jartzen dizkiogu euskarari trabak, geu pasatzen gara erdarara"**

## 'Maitasunaren ostean maitasuna' ikusteko sarrerak salgai

Ados teatroaren azken lana ikusi ahal izango da martxoaren 1ean, 19:30ean, Santa Ana aretoan

M.A | OÑATI
Dagoeneko salgai daude martxoaren 1ean, domekan, 19:30ean, Santa Ana aretoan eskainiko duten *Maitasunaren ostean maitasuna* antzezlana ikusteko sarrerak. Hain zuzen, horiek eros daitezke *Bibe.me* webgunean, 10 euroren truke.

Dora Salazar artistaren irudideria oinarritzat duen sorkuntza da *Maitasunaren ostean, maitasuna*. Garbi Losadak sortu eta zuzenduta, dramaturgiak Dora Salazarren unibertsoaren berrikuspen aske eta subjektibo bat planteatzen du. Hiru ahotsetan planteatzen du Losadak maitasun istorioa, panpina erruisiarrak balira bezala kontatua. Ane Gabarain, Dorleta Urretabizkaia eta Sara Cozar dira antzezleak.


Cozar, Urretabizkaia eta Gabarain, antzezlanean. | ADOS TEATROA

## New Yorkerako bidaiarako izena emateko epea zabalik

M.A | OÑATI
Pake-Leku erretiratuen elkartekoak New Yorkera eta AEBetako ekialdeko kostara joateko bidaia antolatzen ari dira. Hamar egun iraungo duen bidaian, New York, Niagara, Toronto, Filadelfia eta Washington bisitatuko dituzte. Ekainaren 29n abiatuko dira, eta uztailaren 10ean bueltatu. Interesatuek oraindik ere badute izena emateko aukera; izan ere, martxoaren 24n eta 25ean egin ahal izango da hori. Pake Lekun egin beharko da, 18:30etik 20:00etara bitartean.

**Lagun Lekun erakusketa**

Eteoko Lagun Leku elkartean ere ez dira geldi egotekoak. Sarri antolatzen dituzte erakusketak, tailerrak eta bestelakoak, eta orain ere, badu zer ikusi hara joaten denak. Hain zuzen ere, etzira bitartean, domeka, egurrean tailatutako lanak ikusteko aukera dago han. Hain zuzen ere, hogeitik gora lan ipini dituzte. Asko futbol taldeetako ezkutuak, baina badira bestelakoak ere: lauburuak, kaxatxoak, giltzak zintzilikatzeko egurrezko taulatxoak, eta abar.

## Datorren astean ere eskaintza zabala Ingurumen Jardunaldietan

KOMUNITATEA GOIENA | IMANOL BIAIN
NATUR ESKOLA | OÑATI
Ekin diegu aurtengo Ingurumen Jardunaldiei eta datozen bi asteetarako, askotariko hitzaldi, film emanaldi, azoka eta bestelako antolatu ditugu. Dakizuen moduan, eta hasteko, ikusgai duzue *Ingurumen mehatxatua; gure bisoia galzorian* erakusketa, kultura etxean, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Bestetik, datorren astean, hainbat aukera dituzue jardunaldiekin lotuta. Batetik, bisoi europarraren egoeraren gainean arituko dira gaian espezializatutako bi teknikari otsailaren 24n, martitzena, eta otsailaren 25ean, eguaztena, Natur Eskolako Aimar Uribesalgo hezitzailearen eskutik *Giza historia ikuspegi energetikotik* delako hitzaldia egongo da. Eguenean, hilaren 26an, bestetik, *La sal de la tierra* izeneko filma eskainiko dute, 20:00etan, eta datorren asteko eskaintzari bukaera emateko, otsailaren 27an, egubakoitza, *Biomímesis: la única vía para la sostenibilidad* hitzaldia egongo da, ekonomia iraunkorreko irakasle katedradun Roberto Bermejoren eskutik. Hitzaldi guztiak arratsaldeko zazpietan izango dira, kultura etxeko zine aretoan.

# Bukatu dira Aratusteak, eta badatoz karapaixoak

Cowboyz, pirataz, marigorringoz, tigrez eta pailazoz mozorrotu ziren asko martitzenean


Gaztelekuko dantza saioan ere, mozorrotuta. | ARANTZAZU EZKIBEL


Kontzejupean banatu zuten txokolate solidarioa. | A.E.


*Far West* gaia hartu zuten Elkar Hezikoek mozorrotzeko. | ELKAR HEZI


Tolosako Inauterien pare ibili ziren Errekalde-Urgainen. | MAIALEN TORRES


Arkupeetan egin zuten dantza Txantxiku ikastolakoek. | AMAIA TXINTXURRETA

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aurten ere eguraldi txarra egin du Aratusteetan. Euria egin du, ia eten barik, baina hori ez da aitzakia izan Aratusteak ez ospatzeko, eta mozorroak soinean jantzita ibili dira asko eta asko. Herriko jaietako Bixamon Egunean kuadrilla osoak mozorrotzen badira ere, Aratusteetan ohikoagoa da nor bere kontura mozorrotzea, eta aurten ere horrelaxe gertatu da. Hala, cowboy, pailazo, indiar, tigre, marigorringo, sorgin eta pirata jantzita ibili ziren herritar asko.

Zapatuko eta domekako kalejira eta dantzei martitzeneko egitarauak hartu zien erreleboa, astelehenean atseden hartu ostean. Kiki, Koko eta Moko pailazoek ume eta guraso asko erakarri zituzten Zubikoako frontoira. Gaztetxo asko, berriz, gaztelekuko DJ emanaldira joan ziren, dantzan egitera. San Migel parrokiako misio taldekoek ere ez zuten hutsik egin, eta txokolatea banatzen ibili ziren kontzejupean. Horrez gainera, martitzen iluntzeko aterrunea aprobetxatu eta eraberritutako erraldoiak eta txorimaloak Santa Anatik irten ziren, Aratusteetan, eurak ere.

Elkar Hezi ikastetxeak ere martitzen goizean ospatu zituen Aratusteak; Errekalde-Urgainek eta Txantxiku ikastolak, berriz, aurreko egubakoitzean.

Eguaztenean izan zen Hausterre Eguna, eta, hala, karapaixoen sasoia hasi da orain Oñatin.

# Korrikaren aldeko herri bazkaria egingo dute martxoaren 21ean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Martxoaren 23an pasako da aurtengo Korrika Oñatitik, eta, girotzeko, erabaki batzuk hartu ditu Korrika Batzordeak. Martxoaren 21ean, esaterako, herri bazkaria izango da. Horrez gain, Korrika Txikia ere antolatuko dute, ohitura den moduan. 100 lagunendako bazkaria antolatzeko prest agertu dira herritar batzuk. Gaztetxean izango da, eta ehiztariekin okela eta herriko ardogile eta sagardogileekin edaria lotuko dituzte. Baita bertsolariak ere.

**Ibilbidea eta kilometroak**

Korrika 06:00etan helduko da Udanara eta 07:00 aldera Foruen plazara. Herriko hiru ikastetxeek eskatu dute eurek diruz laguntzen dituzten kilometroak herrigunean bertan edo bidegorria erabiliz edo auzoetako bideetatik oinez edo bizikletaz hel daitekeen lekuetan kokatuak izatea, ikasleek ere parte har dezaten. Batzordeko kideek aho batez onartu dute eskaera, eta, hala, herri barruko lau kilometro ikastetxeendako gordeko dituzte. Korrika Txikia ere martxoaren 23an izango da, baina arratsaldean.

Hain zuzen, girotze lanak lotzeko hurrengo bilera astelehenean egingo dute, 18:30ean, Bidebarrietako erabilera askotariko gelan.

## Aloñako Igoerarako 30 dortsal bakarrik gelditzen dira

Apirilaren 26an izango da aurtengo Aloñako Igoera eta 30 dortsal bakarrik gelditzen dira. Izena eman dutenei dagokienez, aipatzekoa da 80 oñatiarrak direla. Izena helbide honetan eman behar da: *www.sailkapenak.com*. Segurtasuna Gurutze Gorriarekin lotu dute antolatzaileek.

## Zumba eta spinning maratoiak egingo dituzte Zubikoan

Martxoaren 28an zumba eta spinning maratoiak egingo dituzte Zubikoa kiroldegian. Lehenengoa 10:00etatik 12:00etara izango da eta bigarrena, 16:00etatik 19:00etara. Izena bailarako, Legazpiko eta Zumarragako kiroldegietan eman daiteke, edo atari honetan: *www.oinati.eu*.

**Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutuz**

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2015**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Apirilaren 15ean eta 16an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak




www.facebook.com/goiazdebagoiena
www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa ekintzailea

Maider Igartua oñatiarra Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa ikasten ari da Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolan. Irailean, goi mailako zikloa bukatu ondoren, unibertsitatean jarraituko ditu ikasketak. Egun batzuk barru praktikak egiten hasiko da, Txantxiku Ikastolan, urtebeteko haurren gelan. Urduri, baina desiratzen dago.

**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera? Eta zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**

Ziklo hau ikasten ari zen lagun batek bere esperientzia kontatu zidan eta erakarri egin ninduen lehenengo momentutik. Ez nuen inolako asmorik unibertsitatera joateko. Gehiegizko saltoa iruditzen zitzaidan.

**Zelan ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**

Ikastetxeko orientatzaileak informatu ninduen Lanbide Heziketatik unibertsitatera joateko aukera zegoela, eta, gainera, hainbat pertsona ezagutzen nituen bide hori egindakoak.

**Ingurukoen laguntza izan zenuen LH aukeratzeko orduan?**

Bai; gustuko nuena aukeratzeko esan zidaten gurasoek. LHk Haur Hezkuntza zer den ezagutzeko balioko zidala esan zidaten. Eta gero, gustuko izanez gero, jarraitzeko aukera izango nuela. Eta holaxe izan da.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**

Lanerako beharrezko jakintzaz gain, bizitzarako behar diren gaitasunak ere lantzen dira: adin askotariko jendea dago gelan, guztion artean ikasten dugu, ikuspuntuak entzunda eta bakoitzak dakiena konpartituta. Talde-lanean lan asko egiten dira, eta hori guztiz aberasgarria da. Talde txikia gara eta irakasleekin batera norberaren jarraipen estua egiten dugu: aurrerapenak, zailtasunak...



*"Haurrekin harremana izan dugu, eta hori da benetan aberasgarria"*

**Arlo profesionalari begira, Lanbide Heziketako ikasketen onurak zeintzuk dira, zure ustez?**

Haurrekin harremana izan dugu, eta hori da benetan aberasgarria. Gelan ikasitakoa Mariaren Lagundian bertan praktikan jartzeko aukera dugu bertako haur geletan; lehenengo, ipuina edo antzerkia landu gelan, eta ondoren, haurrengana joan gara nahi izan dugunok, ikasteko zer den haur pilo baten aurrean egotea, zelan erakarri, sor daitezkeen egoerak....

**Txantxiku Ikastolan hasiko zara praktikak egiten egun batzuk barru. Gogotsu zaude?**

Bai, hasteko gogo handiz, baina urduri. Dagoeneko gela ikusi dut, hango irakaslearekin ere egon naiz. Seguru nago asko ikasiko dudala. Hiru hilabete hauek aukera emango didate lan arloa ezagutzeko, orain arte ikasitakoa praktikan jartzeko.

# DEBAGOIENEKO ARATUSTEAK 2015




















BABESLEAK

ARETXARGI INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ARGI-PLASTIK LEIHOAK

IOSV JAVIER ETA JUAN HARATEGIA

Irudi ILE APAINKETA

J.J. ITURGINTZA IRURE




BERGARA



LEINTZ GATZAGA



ANTZUOLA



ESKORIATZA



ARETXABALETA




ARETXABALETA

**'Photocall'-eko argazki saridunak ikusteko,** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

**SARI BANAKETA**

IBAI-ARTE: Zapatua, 21: 13:30, Herriko Plaza
BEDELKAR: Zapatua, 21: 13:30, Fraiskozuri plaza
TXANDA: Zapatua, 21: 13:30, Etxaluze
ARETXARTE: Zapatua, 21: 13:30, Orly taberna
AXTROKI: Zapatua, 21: 14:00, Herriko plaza

Kilima
HAUR JANTZI DENDA

MAKAI
LOREZAINTZA

merkecartuchos
KARTUTXOEN BIRZIKLAPENA

TABERNA - BERRI
JATETXEA

# Gora egin du liburutegiko erabiltzaile kopuruak

Zerbitzuak 3.175 erabiltzaile izan zituen iaz, eta maileguak 1.949 izan ziren

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Geaxi Ezpeleta liburuzainak emandako datuen arabera, 2013an 2.692 lagun sartu ziren Elgetako Udal Liburutegian; iaz, 2014an, 3.175. Mailegu kopuruak ere gora egin du; 1.477tik 1.949ra. "Liburutegiaren indarberritzearen testigu dira azken estatistikak, balantze positiboa islatu baitute datuek", azaldu du Ezpeletak. Liburuzainak azaldu duenez, estatistika guztiek egin dute gora: animazio ekintzen kopuruak, erabiltzaileen parte-hartzeak, eguneroko erabiltzaile kopuruak... Iaz, esaterako, 496 lagunek hartu zuten parte liburutegiak antolatutako ekintzetan: ipuin kontalari saioak, hitzaldiak, eskolaren bisitak...

Azarotik otsailera bitartean izaten ditu zerbitzuak erabiltzaile gehien. Gutxien, berriz, ekainean —abuztuan liburutegia itxita dago—. Arrakasta handia dute umeendako ipuin kontalari saioek: 38 neska-mutiko elkartzera iritsi dira. Barikuan, hilak 20, dute hurrengo kontaketa saioa liburutegian. Nerea Villak egingo du, 3 urtetik gorako umeendako, 17:25ean.

**MAILEGUAK**

| URTEA | ERABILTZAILEA |
|---|---|
| 2008 | 1.102 |
| 2009 | 1.426 |
| 2010 | 1.382 |
| 2011 | 1.174 |
| 2012 | 1.190 |
| 2013 | 1.477 |
| 2014 | 1.949 |

*ITURRIA: ELGETAKO UDAL LIBURUTEGIA

**Mailegu digitala**

Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kide izanik Elgetako erabiltzaileek sarbidea dute katalogo digitaleko edukietara. Irakurketa digitala eLiburutegia plataformaren bitartez egiten da, eta streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorren bitartez egin daiteke. Zerbitzura sartzeko *www.euskadi.net/eliburutegia* helbide elektronikoa erabili behar da. Irakurleak erabiltzaile zenbakia, pasahitza eta irakurketarako gailu egokia beharko ditu. Edozein zalantzaren aurrean liburutegian eska daiteke laguntza.

## Korrikaren aldeko arropa erosteko aukera aste bukaeran

**L.Z.** | ELGETA

Korrika Batzordetik jakinarazi dute gaur, bihar eta etzi Korrikaren aldeko arropa salgai ipiniko dutela. Barikuan, 19:00etan; zapatuan, 13:00etan; eta domekan, 12:30ean, herriko plazan. Korrika laguntzaile egiteko aukera ere badago: Haizean, Espaloian, liburutegian edo Julian Markiegiren kioskoan.

**Kilometroak diruz laguntzeko**

Interesatuek Korrika batzordearekin jarri behar dute harremanetan, edo *korrika19debagoiena@gmail.com*-era idatzi.

## ARETO FUTBOL TXAPELKETA

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Astuan Villa- Nahaste Borraste | 10-3 |
| Jaitxo-Intxortas Crew | 19-1 |
| La Kokotxa-Tzibaz United | 5-7 |

**SAILKAPENA**

| TALDEA | P | GOLAK ALDE | GOLAK KONTRA |
|---|---|---|---|
| Astuan Villa | 9 | 39 | 7 |
| La Kokotxa | 7 | 37 | 17 |
| Txapela | 7 | 24 | 7 |
| Jaitxo | 4 | 26 | 10 |
| Tzibaz United | 4 | 20 | 25 |
| Nahaste Borraste | 3 | 11 | 21 |
| Intxortas Crew | 0 | 4 | 56 |

**PARTIDUAK, 5. JARDUNALDIA**

BARIKUA, 20:30EAN
Jaitxo - La Kokotxa
ZAPATUA, 11:30EAN
Astuan Villa - Txapela
DOMEKA, 11:30EAN
Intxortas Crew-Nahaste Borraste

**Finalerdietarako txartelak jokoan**

Lau talde onenek lortuko dute finalerdietan sartzea, eta txapelketako hiru jardunaldi jokatzea falta da. Kalkulagailuak martxan dira.

**Goleatzaileen zerrendan Beretxinaga buru**

Hamalau gol sartu ditu Mikel Beretxinagak. Alex Ferrer da bigarren hamabi golekin. Haritz Gallastegik, Jaime Aeropeñak eta Koldo Erostarbek bederatzi egin dituzte.

## Martitzenean 40 bat lagun elkartu ginen

**KOMUNITATEA GOIENA**
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

Inauteri–martitzena ospatzeko txokolate–jana eta bingoa egin genituen, Ozkarbi elkartean. Herriko 40 bat erretiratu elkartu ginen arratsalde–pasa egitera. Datorren eguaztenean briska eta tute txapelketak egingo ditugu, 16:00etan, Ozkarbin.



LUIS MARI ARANTZETA

### Herrixa Dantzan domekan Txertubiren zuzeneko musikarekin

Arkaitz Miner, Txus Aranburu eta Amaiur Cajaraville dira Txertubi taldeko musikariak. Espaloia kafe antzokiko Herrixa Dantzan saioan izango dira domekan, hilak 22, 19:00etan. Patxi Monterok gidatuko du dantza saio irekia. Sarrera, aurrekoetan moduan, doan izango da.

### Jorge Murgiondo bergarararren argazkiak Espaloian

Ibilbide oparoko argazkilaria da Jorge Murgiondo. Hamahiru argazki zintzilikatu ditu kafe antzokian, eta martxoaren 8ra arte egongo dira ikusgai. Argazki gehienak Indiako Rajhastan lurraldean ateratakoak dira, baina, era berean, badaude gizon proben ingurukoak ere.



# Kiroldegia berriro ere kaleko dantzen agertokia izango da martxoaren 7an

## 'Fun Dantz!' jaialdia egingo dute bigarrenez eta Euskal Herriko 34 talde izango dira, 175 dantzari

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Iaz egindako *Fun Dantz!* jaialdi arrakastatsuari jarraipena ematea erabaki du Udalak, eta, Break On Stage taldearekin elkarlanean, kaleko dantzen agertoki bihurtuko da, beste behin, Ibarra kiroldegia. Martxoaren 7an izango da, zapatua, eta sarrerak dagoeneko salgai dituzte Arkupen bi eurotan; egunean leihatilan, 3 eurotan.



Ander Garaizabal, Zigor Quintanilla eta Inma Miguel aurkezpenean. | M. ALTUBE

**Lau kategoria**

*"Fun Dantz!* jaialdiak baliabide teknikoak eta marko eszenikoa eskaintzen dizkie kale dantzetan jarduten duten taldeei", adierazi du Ander Garaizabalek, Break On Stage jaialdiaren antolatzaileetako batek. Hala, Euskal Herriko herri askotatik –Bilbo, Gasteiz, Donostia, Iruñea, Irun, Eibar…– etorritako 34 taldek, 175 dantzarik, jardungo dute norgehiagokan, lau kategoriatan banatuta. Hiru minutuko koreografiak eskainiko dituzte horiek guztiek.

Gazteen atalean jardungo dute 15 urtetik beherakoek, eta zortzi taldek eman dute izena. Erakustaldia egingo dute, ez lehiaketa, eta saritzat jasoko dituzte Bilboko Break On Stage jaialdirako sarrerak (apirilak 25, Miribilla).

Bikoteka parte hartzeko bederatzik eman dute izena, eta hainbat dantza estilotan jardungo dute haiek: hip-hopa, garaikidea, *urban dance* delakoa, esperimentala... Irabazleak 150 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 75 euro.

*Break dance* kategoriari dagokionez, hiruk jardungo dute. Txapeldunak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 150 euro. Sari nagusia, gainera, Break On Stage lehiaketan parte hartzeko txartela izango da.

*Urban dance* kategorian ere txapeldunak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 150 euro. Eta bi talde onenak Break On Stage jaialdirako sailkatuko dira; hamalau taldek hartuko dute parte han.

Aurten, gainera, publikoaren saria ere izango da; ikusleek, telefono mugikorraren bitartez, talde gustukoenaren alde bozkatu ahal izango dute.

Jaialdia 19:30ean hasiko da eta bi atal izango ditu: lehenengoan, gazteek eta bikoteek jardungo dute, eta bigarrenean, *break dance* eta *urban dance* estiloetan jarduten dutenek. Bi orduko ekitaldia iragarri dute.

# Miren Lana arrasatearra da PSE-EEren alkategaia

**M.A.** | ARETXABALETA

Alderdi Sozialistak jakinarazi du Miren Lana 49 urteko arrasatearra izango dela Aretxabaletako PSE-EEren alkategaia datozen udal hauteskundeetan. Arrasaten zinegotzi da orain.


Miren Lana. | ALDERDI SOZIALISTA

**Atez atekoa kendu**

Lanak adierazi du Bilduk gobernatu duela Aretxabaleta "zorrotz" eta "inposizio bidez", eta horren adibide dela atez ateko sistema era "autoritarioan" ezarri izana: "Sistema zaharra da, zikina, deserosoa, garestia eta kontrol politikoa dariona". Hala, Alderdi Sozialistaren zerrendaburuak konpromisoa hartu du atez ateko bilketa sistema "kentzeko" eta edukiontzi bidezko bilketa ezartzeko. Era berean, zera esan du: "Inposizioa, autoritarismoa eta informazioaren manipulazioa ez da udal bat gestionatzeko modua".

Gaineratu du "enplegua sortzeko" neurrien alde egingo duela lan eta "kalitatezko zerbitzu publikoak" bermatzearen alde. Horregatik krisiaren ondorioz gaizki pasatzen dabiltzan taldeengan oinarrituko duela gestioa. "Herriaren garapen ekonomikoan eragile aktibo izateko obligazioa du Udalak, eta hori hala izan dadin ahaleginduko gara Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin batera. Hala, enpleguaren aldeko politikak piztu eta merkataritza eta turismoa dinamizatu behar dira".

### Herri programa osatzeko lau batzar egingo ditu EH Bilduk herritarrekin datorren astean

Herri programa osatzen dabil EH Bildu eta lau batzar antolatu ditu. Batzarrok irekiak dira eta herritarrak zein eragileak gonbidatu dituzte. Hona egutegia: astelehenean, hilak 23, hirigintza eta ingurumena izango dituzte berbetagai; martitzenean, hilak 24, euskara eta hezkuntza, batetik, eta parte hartzea eta komunikazioa, bestetik; eguenean, otsailak 26, kultura eta kirola; eta zapatuan, hilak 28, batetik, ongizatea eta berdintasuna, eta bestetik, garapen ekonomikoa. Bilera guztiak EAko lokalean izango dira, Herriko Plazan; astean zehar, 18:30ean eta zapatuan, 10:00etan. Proposamenak ere egin daitezke; hona bideak: *ehbilduaretxabaleta@gmail.com* eta *Aretxabaleta.ehbildu.eus* webgunean.

# Berdintasunaren aldeko leloak idazteko lehiaketa deitu du Udalak

**M.A.** | ARETXABALETA

Santa Kurtz kaleko plazatxoan dauden lau bankuetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko leloak margotu gura ditu Udaleko Berdintasun Sailak. Eta leloak aukeratzeko lehiaketa deitu du.

Edonork parte har dezake eta 190 karaktereko leloak egin behar dira; gehienez lau. Word dokumentu batean idatzita aurkeztu behar dira gero, helbide elektroniko bidez –*berdintasuna@aretxabaleta.eus*– edo gutun-azal batean sartu eta udaletxean utzita –*Martxoak 8ko lehiaketa* jarrita–. Azken eguna otsailaren 26a da.

Lau irabazle egongo dira eta bakoitzak 50 euroko txartela jasoko du martxoaren 7an egingo duten Ixadebalde azokan gastatzeko.

Lau bankuak martxoaren 7an, zapatua, 12:00etan margotuko dituzte, herritarrei egindako deialdi ireki batean.


Santa Kurtz kalean margotu gura dituzten bankuak. | M.A.

# Guraso Foroak prestakuntza saio bi egingo ditu martxoan gurasoendako

**M.A.** | ARETXABALETA

Azken urtean elkarlanean diharduten Kurtzebarriko Gurabarri eta Batera guraso elkarteek, Pausokakoak, Arizmendiko gurasoek eta Kukumiku elkarteak, hau da, Guraso Foroak haurren gurasoei zuzendutako prestakuntza saioak antolatu ditu martxorako.

Nerea Mendizabal izango dute gidari gurasoek ikastaro horietan. Psikopedagogian lizentziaduna da hura; Gizarte Hezkuntzan diplomaduna Deustuko Unibertsitatean; haurren masajean hezitzailea; eta gurasoen, hezitzaileen eta haurren arteko harremanetan aditua.

**Bi hitzaldi**

Lehen saioa da: *Haurren autoestimua*. Martxoaren 11n izango da, euskaraz, eta martxoaren 18an, gazteleraz, 18:00etatik 20:00etara. Eta bigarrena da: *Nire seme alaba jo egiten dute*. Hori martxoaren 25ean izango da: gazteleraz, 15:00etatik 17:00etara eta euskaraz, 18:00etatik 20:00etara. Saioak Ibarra kiroldegian dira eta izena aurrez eman behar da Arkupe kultura etxean; azken eguna martxoaren 6a da.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

TÜV CERT ISO 9001
GARANTÍA DE ALQUILER

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
***www.zenbaki.es***

# Zuhaitzak landatzera joango dira domekan Egileor ingurura

Urkiak, haritzak, ezkiak, arteak eta gehiago landatuko dituzte Zuhaitz Egunean

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Zuhaitz Eguna deitu du, beste behin, Udaleko Ingurumen Sailak, eta domekan joango dira landatzera –hasieran zapaturako deitu arren, eguraldiagatik atzeratzea erabaki dute– . 11:00etan elkartuko dira, Herriko Plazan, eta Egileor baserri inguruan Udalak dituen lursailetara joko dute –kanposantutik gertu.



Neska-mutikoak landatutako zuhaitzaren ondoan, iaz. | GOIENA

**Landaketa Taldea lagun**

Arizmendi Ikastolako eta Kurtzebarri eskolako ikasleek jaso dute landatzera joateko gonbidapena, gurasoak lagun. Eta gainerako herritarrak ere pozik hartuko dituzte antolatzaileek. Aretxabaletako Landaketa Taldearen gidaritzapean egingo dute lan horiek guztiek.

Zuhaitzok, aurten ere, Foru Aldundiak Urnietan duen Arizmendi mintegitik ekarri dituzte, eta hainbat espezietakoak daude; hona: urkiak, haritzak, ezkiak, lizarrak, pago lizarrak, arteak eta gorostiak. Horiek landatzeko tresnak ere, aitzurrak eta palak, udal langileek eramango dituzte. Behin lanak bukatuta, merezitako saritxoa jasoko dute guztiek: mokadutxoa.

Udalaren asmoa da beste landaketa handi bat egitea aurrerago; seguru asko, otsailaren 28an izango da, Arbizelai inguruan, baina zehazteko dago.

# Dominekin itzuli dira UDAko hiru karatekak




Oxel Vazquez, Alex Elortondo eta Odei Vazquez dominekin. | ODILO VAZQUEZ

**M.A.** | ARETXABALETA

Odei eta Oxel Vazquez anaiek senior mailako Euskadiko 36. karate txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan Gasteizen. Kumite modalitatean, 67 kiloz azpikoetan, finaleraino iritsi ziren biak, eta anaien arteko norgehiagokan Oxel izan zen txapelduna.

Egokitutako I. Karate Kopa ere jokatu zuten, lehenengoz Euskadiko txapelketa batean, eta Alex Elortondo aretxabaletarra bigarren geratu zen.

Odilo Vazquez entrenatzaileak hiru kirolariak zoriondu ditu, eta hauxe zioen: "Eskerrik asko federazioari egokitutako txapelketak sartzearren Euskadikoan; izan ere, karateak berak irabazten du horiekin. Eta eskerrik asko Jesus Muruari lan mordoa egin duelako halako kirolariekin".

## 112 pertsonak eman dute odola urtarrilean eta otsailean

Urtarrila eta otsaila bitarteko hiru astelehenetan izan dira Arabako odol bankuko kideak odola jasotzen Aretxabaletako osasun etxean. Odol emaileen elkarteko kideek jakinarazi dute 122 lagun joan direla odola emateko asmoarekin eta horietatik 112k eman ahal izan dutela. Lehenengoz eman dutenak, ostera, hiru izan dira.

Odol emaileen elkarteko Aretxabaletako ordezkari Ramon Erañak eskerrak eman gura dizkie guztiei: "Eskerrik asko, eta hurrengoan ere animatu". Udaberri inguruan izango dira hurrengo odol ateratzeak.



ARETXARTE

## Merkatariak ere mozorrotuta

Umeak mozorrotzeko eguna izan zen martitzena eta ikastetxeetako neska-mutikoek elkarrekin dantzan eginda ospatu zituzten Aratusteak, batzuek kiroldegian eta besteek pilotalekuan. Merkatariak ere mozorrotu ziren, eta aspaldian egiten ez zuten bazkaria berreskuratu zuten. Iluntzean, *Txin*-en zerraldoa erreta esan zioten agur mozorroen festari.

## EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

### Bigarren fasea hasiko dute bihar

**HIRUGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Oihana Mata - Leire Valle / Nagore Martin - Laura Saez | **8-25** |
| Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Eneritz Ollobarren - Virginia Pando | **25-17** |
| Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Eneritz Ollobarren - Virginia Pando | **25-19** |
| Urri Urizar - Miren Antxia / Ariane Unanue - Ibone Arrieta | **0-25** |
| Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo | **25-13** |
| Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro / Naiara Amezua - Anais Fernandez | **13-25** |
| Lur Delgado - Lierni Zangitu / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta | **25-5** |

**HURRENGO PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| **09:00** | Nagore Martin - Laura Saez / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta |
| **09:30** | Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Oihana Irazu - Anabel Mondragon |
| **10:00** | Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Lur Delgado - Lierni Zangitu |
| **10:30** | Eneritz Ollobarren - Virginia Pando / Ariane Unanue - Ibone Arrieta |
| **11:00** | Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo / Naiara Amezua - Anais Fernandez |
| * | Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Urri Urizar - Miren Antxia |
| * | Oihana Mata - Leire Valle / Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro |

*Eguaztenean jokatuko dituzte




ARIZMENDI IKASTOLA

## Xiango gerlariak ezagutzera

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI IKASTOLA | ARETXABALETA

Bilboko Euskalduna museoan dagoen *Terracota Army* erakusketa ikusten izan dira Arizmendi Ikastolako Almeneko Lehen Hezkuntzako hirugarren mailakoak. Txinaren gainean gehiago ikastera joan dira eta Arte Ederren museoa eta Guggenheim ikusteko aukera ere izan dute.

## NIRE USTEZ

**YERA SANCHEZ**



## 'Kalabaza Tripontzia'

Euskal Herrian ekoiztu diren lehen animaziozko filmak 70eko hamarkadakoak dira. Orduan hainbat animatzaile esperimentalistek, pinturaren alorrekoak gehienak, modu autodidaktan animatzen ikasi zuten eta teknika hori landu zuten: Javier Agirre, Ivan Zulueta, Ramon de Vargas, Jose Antonio Sistiaga eta Rafael Ruiz Balerdi, besteak beste.

Bestalde, animazio esperimentala alde batera utziz, tradiziozko animazioaren ildotik egindako lanei dagokienez, euskarazko lehen film laburra 1977koa da: *Ekialdeko izarra* (Juanba Berasategi). Lan hartatik abiatuta, zortzi urte geroago, Jaizkibel produkzio-etxea sortu zuten eta ordukoa da euskarazko lehen film luzea: *Kalabaza Tripontzia* (1985).

Nekez aurki daiteke *Ekialdeko izarra* filma, baina tira, film laburrekin hori ohikoa izaten da. Ordea, sinestezina zera da, animaziozko lehen film luzea euskaraz, berau Euskal Herrian egindako lehena, ez daukagu oraindik DVDan. Ez baldin baduzu aspaldiko VHS irakurgailu horietako bat, ezin duzu gaur egun *Kalabaza Tripontzia* ikusi. Youtuben filma osorik ikusteko aukera badagoela eta ez dagoela, eta zer! Film zoragarri horrek ez al zuen, bada, gutxieneko berredizio txukuna eta kalitatezkoa merezi? Berriro diot: noizko *Kalabaza Tripontzia* filmaren DVDa?

**"Noizko 'Kalabaza Tripontzia' filmaren DVDa?"**

# Jose Aranaren herentziaren zati bat eskatu diote Udalari

## Jasotako 200.000 pezetaren bi herena eguneratuta gura du Jose Kortabarria Estarriga biloba biologikoak

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Jose Arana Elortza eskoriatzarraren seme biologiko aitortu du epaitegiak Jose Hipolito Kortabarria eta haren biloba Jose Kortabarria Estarriga. Haiek herentzia eskubideak eguneratuta eskatu dizkiote Udalari orain; hau da, Jose Aranak utzitako 200.000 pezetaren bi herena, milioi bat eta bi milioi euro artean.



Jose Aranaren panteoia Eskoriatzeko kanposantuan. | ESKORIATZAKO UDALA

**Konstituzio aurreko legeria**

Iaz abenduan izan zuen Udalak lehen auzialdiko eta instrukzioko bigarren epaitegiak emandako epai horren berri. Urtarrilaren 23an, biloba biologikotzat aitortutako pertsonak, Jose Kortabarria Estarrigak, aurretiazko erreklamazio idazkia aurkeztu zuen udaletxean, herentzia eskubideak eguneratuta eskatuta.

Epaia irakurri ostean jakin du Udalak seme-alabatasun prozedura Vicenta Madina Arriola izeneko pertsona ezezagun baten aurka egin zela, bera izateagatik gertueneko oinordea, eta horrek demandari amore emanda, bestelako tramiterik gabe, epaia eman zela. Eskoriatzako Udalak dio ezkontzaz kanpoko seme-alabatasun prozeduretan, gurasoak hilda dauden kasuan, oinordekoak izan behar direla alderdi demandatuak, eta, kasu honetan, Udala ez zela demandatua izan: "Nahiz eta demandatzaileak aurrez jakin Udal hau oinordeko zela". Hala, Beñat Herce alkateak zera esan du: "Deigarria da demandatu bezala deitua ez izatea seme-alabatasun prozedurara, eta jarraian, herentzia eskubideak erreklamatzeko idazkia aurkeztea". Hori horrela, berraztertze-errekurtso baten bidez epaia hutsaltzeko aukera egon daitekeen aztertu du Udalak.

Auziari dagokionez, zera dio Hercek: "Epaitegiek bi pertsona horiek Jose Aranaren seme eta biloba biologikotzat aitortu izan arren, horrek ez du atzeraeraginik Konstituzioa indarrean sartu aurreko oinordetza irekietan". Izan ere, dio Konstituzioa indarrean sartu eta gero, legeak kode zibila aldatu zuen: "Kode zibilaren 657. artikuluak xedatutakoaren arabera, oinordetza norbait hiltzen den unetik jasotzen denez, eta Jose Arana, ezkongabe hil zenez 1908an, aplikatu beharko litzaiokeen legeria egun hartakoa da, herentzia jasotzeko bidezko eskubidea seme-alaba legitimoena bakarrik zena".

**Ikastola eta ospitalea**

Jose Arana Elortzari loteria tokatu zitzaion Madrilen. Handik bueltan hainbat ekitaldi sustatu zituen; Donostiako Aste Nagusia, esaterako. 1908an hil zenean hainbat lagunek jaso zuten haren herentzia eta Udalari 200.000 pezeta utzi zizkion. Hori erabili zuten, ura ekartzeko herrira, ikastolarendako eta ospitalearendako.

# Ferrovial-Elay enpresa dabil lorezaintza lanetan

M.A. | ESKORIATZA

Herriko berdeguneen mantentze eta lorezaintza zerbitzua Ferrovial-Elay aldi baterako enpresen arteko elkarteari esleitu zion Udalak urtarrilaren 27ko osoko bilkuran. Azken hamahiru urteetan zerbitzua eman duen Landu enpresaren lekua hartu du Madrilgo enpresak.

**Tokikoa "bultzatu"**

Landuko kideek gutun bidez diote "ulergaitza" dela kanpoko enpresa bati ematea zerbitzua tokiko merkataritza bultzatu gura denean: "Ulergaitza egiten zaigu Udal Gobernu ezkertiar batek herriko enpresa txiki bat albora utzi eta Ferrovial-Cespari, gure bailaratik guztiz kanpo errotuta dagoen enpresa erraldoiari, adjudikatzea". Eta "larriagoa" dela uste dute, Udalaren laguntzarekin sortu zelako Landu Lorezaintza, eta gaineratu dute: "Egoera berriarekin enpresa sortu, bertan inbertitu eta beste hiru pertsonarentzat lanpostuak sortu dutenak dena galtzeko arriskuan daude. Behin eta berriz entzuten dugu krisi egoeratik irteteko enpresen sortzaileak bultzatu behar direla eta Udala ez dabil hori egiten". Eta uste dute lanaren adjudikazio irizpideak ezartzerakoan ez dutela bertako enpresak bultzatzeko neurririk hartu.

**Aukera berdintasuna**

Beñat Herce alkateak jakinarazi du sektore publikoaren kontratu legea kontuan hartuta esleitu behar direla lehiaketak: "Aukera berdintasuna, gardentasuna eta onena den eskaintza hautatzeko printzipioak kontuan izanik. Ondorioz, kontratazioetan debekatuta daude aurretiazko esperientzia edota tokikotasuna bezalako irizpideak kontuan izatea". Eta gaineratu du "Udalaren esku" dauden politikak aplikatu dituztela prozesuan.

Hori horrela, argitu gura du tokiko enpresak ez direla albo batera utzi: "Ezta gutxiago ere. Hiru langileak subrogatzeko derrigortasuna ezarri dugu, hitzarmenak jasotzen duen bezala. Hortaz, lanpostu hauek ez dira galtzen eta beraien lan baldintzak egokiak izatea bermatzen da". Aukera berdintasuna dela-eta tokiko enpresa txikiak eta enpresa erraldoiak aurkez daitezkeela dio: "Baina bagabiltza zerbait lortzen, enpresa erraldoiak izanik ere langileen eskubideak mantendu edota hobetzea, herri guztietan gertatzen ez den bezala".

### Interneteko prestakuntza ikastaroak egingo ditu Amuskak martxoan

Interneten gaineko hainbat ikastaro antolatu ditu Amuska emakume elkarteak. Aretxabaletako KZgunean egingo dituzte, debalde, eta honakoak landu: oinarrizko gaiak; Open Office programa; sare sozialak; irudia eta soinua; eta Google Apps. Izena emateko azken eguna gaur da, telefono zenbaki honetan: 699 78 66 84.

### 'El regrueso de Patxi' bakarrizketarako sarrerak salgai daude

Gorka Aginagalde umorista eta aktore ezagunak *El regrueso de Patxi* bakarrizketa eskainiko du datorren egubakoitzean, otsailak 27, Zaldibar antzokian. Sarrerak dagoeneko salgai daude 4 eurotan Manuel Muñoz kiroldegian eta honako webgune honetan: *www.bibe.me*.

### Beñat Herce alkatea elkarrizketatuko dute Goiena telebistan

Datorren martitzenean, hilaren 24an, 22:00etan, *Harira* saioan elkarrizketatuko du Eneko Azkarate kazetariak Beñat Herce alkatea. Eskoriatza izango dute aztergai, eta, besteak beste, gai hauen gainean berba egingo dute: Zaldibar antzokia, udal aurrekontua, eta abar.



ESKORIATZAKO UDALA

## Dantzan agurtu dituzte Inauteriak

Dantzan esan diete agur Inauteriei herriko umeek eta gazteek. Pilotalekuan elkartu ziren martitzenean ikastetxeetako umeak eta mozorroak jantzita dantzan jardun zuten gurasoen aurrean. Arratsaldean ere dantzan jarraitzeko aukera izan zuten, kukumarroak pasatu ostean Jon Urbieta disko-jartzailea izan zuten–eta lagun.

ESKORIATZA AZTERGAI



GOIENA TELEBISTA | HARIRA | BEÑAT HERCE ALKATEAREKIN
OTSAILAREN 24AN, 22:00ETAN | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Euriari aurpegi alaia erakutsi diote antzuolarrek Aratusteetan

## Barikutik martitzenera bitartean festa eta umorea izan da nagusi herritarren artean

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Aratuste festa borobila ospatu dute antzuolarrek. Barikuan hasi eta martitzenera arte, gaztetxo zein nagusi, bikain ibili dira mozorroa jantzita.

Herri Eskolako ikasleek barikuan jantzi zituzten mozorroak. Arratsaldean, Pausoka guraso taldearen eskutik, torradak eta txokolate beroa dastatu zituzten. Ondoren, Irrien Lagunen ikuskizunaz gozatu zuten. Aratuste-domekan, aldiz, herritarrak mozorroak jantzi eta kalera irten ziren. Asko eta asko Oinarinekin dantza egitera animatu ziren.

"Bazkaria primeran irten zen, 170 lagun batu ginen. Bertan parte hartu zutenen artean atera zen dena aurrera: mahaiak eta aulkiak ipini, zerbitzatu, jaso... Horrela antolatzea eta moldatzea zoragarria da. Iraultza txarangak giro aparta jarri zuen. Pilotalekuan, Zurrategin eta gaztetxean denok dantzan jarri gintuen", azaldu du Jone Larrañagak, Kultura teknikariak.

Martitzenean, 84 erretiratuk mozorro lehiaketa ospatu zuten Landatxopen. Amparito Arregiren inude mozorroak irabazi zuen lehen saria; hirugarrenez irabazi du. Miguel Montorik eta Karmen Egañak bigarren eta hirugarren sariak eskuratu zituzten.



Landatxopeko erretiratuek mozorro festa egin zuten martitzenean. | M.A.



Hartzak, tximinoak eta hezitzaileak barre algarak eragin zituzten. | TXOMIN MADINA



Hainbat antzuolar indiar eta cowboy jantzita domekan. | TXOMIN MADINA



Herri Eskolako umeek txokolate goxoa dastatu zuten barikuan. | AMAIA MUNDIÑANO



ANTZUOLAKO EH BILDU

## Herri batzarra deitu du EH Bilduk

Bigarren herri batzarrean parte hartzeko dei egin die antzuolarrei EH Bilduk. Asmoa da herri programa eratzeko proposamenak biltzea. "Garrantzi berezia ematen diogu herritarren partaidetzari, antzuolarron izana auzolanean eta borondatezko lanean oinarritu izan delako", dio EH Bilduk. *Nolako Antzuola nahi dugu?* Horri erantzuteko batzarra hilaren 26an, Olaranen, 18:30ean hasita izango da.

## Trenbide zaharreko lanei bukaera emango diete

### Kaxeta eta Iturriotz arteko tuneletan instalazio elektrikoa egingo dute eta argiak jarriko dituzte

**M.A.** | ANTZUOLA

Auzolanean trenbide zaharra txukundu eta oinezkoendako egokitu zuen herritar talde batek iaz irailean. Baina, lan horiei bukaera emateko, trenbidearen plataforma zaharretik doan bidegorri zatiko tunelen barruan instalazio elektrikoa eta argiak jartzeko obrak egin behar dira. Elay eta Goizper enpresek lan horiek finantzatzeko 22.000 euro pasatxo eman dituzte. Hala, lanak bukatutzat eman daitezen Udalak bitartekari lanak egin ditu Diputazioarekin. Eta martitzeneko ezohiko osoko bilkuran bien arteko lankidetza hitzarmena sinatzeko proposamena onartuta geratu zen.

EAJ aurka azaldu zen. Maria Eugenia Arrizabalaga bozeramaileak herritarrek auzolanean egindako lana txalotu zuen, baina ez Antzuolako Udalak lan horiek egiteko dirua jarri izana. "Ez dauka zentzurik Udalak Aldundiaren jabegoa den eta eskumenekoa den lur bateko lanak diruz laguntzea. Mantenua Udalak bere gain hartzea ere ez dago ondo".

Ima Beristain alkateak argi utzi zuen herritar talde baten borondatez auzolanean egindako lanari bukaera ematea dela helburua: "Aspaldian herriak Diputazioari egindako eskaera da trenbidea txukuntzea. Orain, herritarren auzolanari esker trenbide zaharraz herriak disfrutatzeko aukera izango du. Udalak herritarren nahia aurrera ateratzeko bitartekari lanak egin ditu; izan ere, trenbide zaharra txukuntzeko lanak ez daude Diputazioaren lehentasunen artean". Mantenua ez dela beti Udalarena izango ere argitu zuen Beristainek.

## Herri Lagunkoia proiektua abian da Antzuolan ere

Dagoeneko hasi da lanean hogei laguneko taldea. Besteak beste, espazio publikoaren, garraioaren, etxebizitzaren, parte-hartzearen, enpleguaren, errespetuaren, integrazioaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen gaineko diagnosia egingo dute; ondoren, Udalari horren berri emango diote. Parte hartu gura duenak ateak irekita dituela esan dute.

## Bakarrizketa saio umoretsua gaur gaztetxean

K OMUNITATEA GOIENA | GAZTETXEA | ANTZUOLA

Umorez beteko da Antzuolako gaztetxea gaur, otsailak 20. Aitor Arregi *Ximel*-ek, (Aia, 1981) *Euskaldun batek biziak, Kristoren edadian* bakarrizketa saioa eskainiko du, 22:30ean hasita. Sarrera doakoa da eta barre algarak bermatuta daude.

# Finalerako langa non egongo den zehaztuko du Aramaioko saioak

Arabako Bertsolari Txapelketako laugarren finalaurrekoa jokatuko da bihar kultura etxean, 17:30ean

KOMUNITATEA GOIENA
ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA | ARAMAIO

2015eko Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren itzuliaren lehen finalaurrekoa bihar, otsailak 21, jokatuko da Aramaioko kultura etxean, 17:30ean hasita.

Oso interesgarria aurreikusten den bertso saiorako sarrerak ordu erdi lehenago, 17:00etan, jarriko dira salgai kultura etxean bertan. Bertsozale Elkarteko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte, 16 urtetik beherakoek ez dute ordaindu beharko eta gainerakoek, berriz, zortzi euro. Kantuan bertso eskolako kide bat ere izango dugu, Iker Agirre. Orain dela bi aste Legution abestu ondoren, gogotsu dago Iker herrian, etxean, abesteko.

**Legution abestu ondoren, gogotsu dago Iker herrian, etxean, abesteko**

### Finalerako langa zehazten

Agirrerekin batera, duela bi urte Arabako txapeldun izan zen Oihane Perea, Zaragozan jaio eta Gasteizen euskaldundutako Ruben Sanchez, 13 urte bete zituenetik Gasteizko Bertso-Eskolako kide den Irati Anda, Oiongoa izan arren Andoaingo Bertso Eskolako kide izan zen Unai Bengoetxea eta Gasteizko Koldo Mitxelena Institutuan bertso zaletu zen Jon Ruiz de Pinedo arituko dira. Gai-jartzaile lanetan Aintzane Irazusta arituko da.

Biharko finalaurrekoak finalera sailkatzeko lortu beharreko puntu kopurua zehaztuko du. Hau da, txapelketan diharduten 18 bertsolariek biharko saioaren ostean ikusiko dute non egongo den langa finalerako txartela lortzeko. Horrek dakarren tentsioaz gaindi, saio bizia eta beroa izango dela espero da.

# Kalejirarik ez, baina giro ederra bai Aratusteetan

Kiroldegian izan dira jaietako ospakizun nagusiak

J.B. | ARAMAIO

Aratusteak zapatuan eta martitzenean ospatu dituzte aramaioarrek; herritarrek hasi eta San Martin eskolakoek amaitu. Bi egunetarako aurreikusitako kalejira ez zen egin, euriagatik, baina horrek ez zuen mozorrotzeko gogoa zapuztu. Kalejirarik ezean, kiroldegian egin zituzten ikuskizunak eta mozorro lehiaketak.

Zapatuko jaian honako hauek izan ziren mozorro lehiaketako saridunak: haurren saria *Eklipsea* eta *Superkabernikolak* mozorroek irabazi zuten; 14 urtetik gorakoen artean *Euskal Jaka* eta *Charlot* mozorroek eta originaltasunaren saria, amaitzeko, *Herri txiki infernu handi* eta *Biomasa* mozorroek eraman zuten.

### Ezohiko kirolak eskolan

San Martin eskolakoen ospakizuna ere kiroldegian izan zen. Urtero moduan, gai baten bueltan mozorrotu ziren ikasleak eta irakasleak: "Kirolen gaia ikasleek aukeratu zuten botazioz. Gero, gela bakoitzean aukeratu da kirol mota bat, baina argi utzi genuen ezin zela ohiko kirol bat aukeratu", adierazi dute. Hala, urpekaritza, hipika, esgrima, karatea, autoen lasterketak eta futbol amerikarra izan ziren aukeratu zituzten kirolak. Tutoreak ez diren irakasleak, berriz, kazetariz mozorrotu ziren. Amaieran, txokolate-jana izan zuten.



Irakasle bat kazetariz mozorrotuta argazkiak ateratzen, martitzenean. | ESKOLA

# Auzoetakoak deitu ditu Udalak aurrekontuetarako

Bihar egingo da bilera irekia udaletxean, 11:00etan

J.B. | ARAMAIO

2015eko aurrekontuak osoko bilkurara eztabaidatzera eraman aurretik, aurten ere herritarren ekarpenak jaso gura ditu Udalak. Agintaldiko azken aurrekontuak onartzeko, parte-hartze prozesua ireki dute; zirriborroa aurkezteko lehen saioa eguaztenean egin zuten, eta Ibarrako eta Oletako bizilagunak deitu zituzten. Beste saio bat egingo dute bihar, gainerako auzoetako bizilagunei zuzenduta. Aramaioarren ekarpenak jaso ostean "ahalik eta lasterren" saiatuko dira Ogasun batzordera eramaten.

Azken orduko aldaketarik ezean, hilaren 25ean elkartuko da Ogasun batzordea eta martxo erdialdean egin gura dute aurrekontuak onartzeko osoko bilkura.

### Martxoaren 8ko kartelak

Bestalde, Udalak aditzera eman du otsailaren 25era arte entregatu ahal izango direla Emakumeen Nazioarteko Egunerako kartelak. Izan ere, lehiaketa antolatu du Udalak eta bi sari emango ditu: lehen saria 200 eurokoa izango da eta bigarrena 100 eurokoa.

Era berean, Itur-Zuri Emakume Elkarteak batzar orokorraren berri eman du: otsailaren 26an egingo dute, kultura etxean (18:00). Diru kontuak eta ekintza plana eztabaidatuko dituzte, besteak beste. Emakume Asterako ekintzak prestatzen dabiltza orain.

LEINTZ GATZAGA

# Angulak zozkatuko dituzte bihar, Korrikaren alde

20:00etan egin dute hitzordua, elkartean, eta momentuan bertan jakinaraziko diote irabazleari

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Kilo bat angula eskuratzeko aukera, bi euroren truke. Horixe da Leintz Gatzagako Korrika Batzordeak egin duen eskaintza. Txartelak jarri dituzte salgai egunotan udalerriko hainbat puntutan, eta bihar, zapatua, Arrasatera joango dira txartelak saltzera, "eguerdi partean", bertan egingo duten baserritarren azoka eta zuhaitz feria baliatuta.

### Bizirik egongo dira

Angulen zozketa, berriz, bihar bertan egingo dute. "20:00 aldera elkartuko gara Gatzagako elkartean", Korrika Batzordetik esandakoaren arabera. Eta egunean bertan jakinaraziko diote irabazleari. Izan ere, "angulak bizirik egongo dira eta komeni da saria ahalik eta lasterren ematea", azaldu dute.

Bestelako urte batzuetan egindako moduan, Ibon Oñederrak ekarriko ditu angulak, Deba ingurutik.

### Bertso musikatuak

Bestalde, udalerriko Korrika Batzordeak iragarri du martxoaren 15ean, domeka, bertso musikatu saioa izango dela Leintz Gatzagan. Miren Amuritza, Aitzol Barandiaran eta Amaia Agirre bertsolariak bertan izango direla konfirmatu dute. Baina saioaren gaineko xehetasun guztiak lotzeke dituzte. "Bospasei bat lagunek egindako saioa izango da; eta iluntze partean, pintxo-poteo berezia egingo dugu herriko tabernetan", esan dute.

NIRE USTEZ

SONIA ETXENAUSIA



## 'Namaste'

Ez daukat Mendebaldetik natorren zalantzarik. Berdin dio elefantez beteriko gona bat janzten badut, berdin dio Indiako meditazio eta yoga zentro baten egun batzuk igaro baditut. Europarra izaten jarraitzen dut. *Slam*-etan zein *Chols*-etan hartutako teak ez nau aldatu. Ezberdina naiz, debagoiendarra edo zuiarra. Biak ere, Indiatik oso urrun daude.

Baina bai Aramaion eta bai Indian nire amaren alaba izan naiz, eta ohartu ere, alaba indiarrak euren amarekiko duten amodioa zein amorruak berdinak direla. Indiako ama eta nire ama jainkosak dira eta aldi berean bihotzeko gelarik ezkutuenean deabru gehienek dantzatzen duten abestiaren nota indartsuena.

Hortaz, konturatu naiz Bombayko *Ankur Childrens Home* honetan bizi den 14 urteko Kajalek malko artean ama bere ondoan izatea gustatuko litzaiokeela esan didanean, abandonatua izateagatik gorrotatzen duela esan ondoren.

Horregatik, gure amari begira bagaude eta indiarrek agurtzeko erabiltzen duen hitzaren *(namaste)* zentzu sakonenean erreparatuz gero, gure bihotzeko deabruak baretzeko balio dezake: ama, nigan dagoen edertasunak zure edertasuna agurtzen du. *namaste.*

# Euskal Ligako buruz buruko pilota partidua bihar kiroldegian

Pilota izango da protagonista bihar arratsaldean. 18:30ean hasita, infantil mailan lagunartekoa jokatuko dute herriko pilotariek. Ondoren, Euskal Ligako buruz burukoa jokatuko du gazte mailako Oihan Bideburu pilotari aramaioarrak Iruñeko Oberena taldeko pilotari baten aurka.

LEINTZ GATZAGA

# Masaje mexikarra eta diagnostiko saioa zapatuan eta domekan

"Norberari komeni zaion ordutegian eta egunean" masaje mexikar saioa eta osasun diagnostikoa egiteko aukera egongo da Soran jauregian bihar, zapatua, eta etzi. Jose Luis eta Xochitl Nafarroan bizi diren mexikar adituak izango dira gidariak. "Jendeak nahi badu, ikasteko aukera izango da", dio Montse Valerio ugazabak.

# Leintz Gatzagaren nortasunari eta etorkizunari bultzada eman guran

- Udal aurrekontuaren inbertsiorik handiena Leintz Gatzitzen egitasmoarendako da
- Herri bizia gura dute: eskola txikiarekin, bertako lanpostuekin eta produktuekin...

**LEINTZ GATZAGA** | UBANE MADERA

Turismoa da Leintz Gatzagaren etorkizunaren giltzetako bat. Horren jakitun, urteak daramatzate alor hori bultzatzeko ahaleginetan, bai Udalak eta baita bisitariendako zerbitzuetan dihardutenek ere.

Udal aurrekontuak duen 467.299 euroko kopurutik, adibidez, inbertsio handiena –26.000 euro– bideratuko dute Gatz Museoa oinarri duen Leintz Gatzitzen egitasmora. Dorletako santutegia berritzeko proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiko Itten sozietate publikoak lagunduta ere badute landuta –70.000 euroko aurrekontua du, baina hori betetzeko Elizak egin behar du eskaera, udal aurrekontutik aparte dago-eta–, Gaztainuzketako mendi etxeei bultzada handia eman diete Gaurkotzen programa baliatuta –eskuineko zutabean xehetasunak– eta tematuta daude mendia eta paraje ikusgarriak maite dituztenen mapetan gatzaren udalerria lehen lerroan kokatzen.

### 2.000 urte pasako historia

Horren guztiaren erakusgarririk onenak datuak dira; eta hala nabarmendu du Eugenio Otsoa *Gerra* alkateak: "Bost jatetxe daude, oso ospetsuak. Lo egiteko lekuak ere bai. Gaztainuzketan, Aterben, Soran hotelean... eta Gorosarrin ere bai; izan ere, Eskoriatzan egon arren, Gatzaren Museora dagoen ibilbide politak lokarritzen gaitu biak. Inguru oso-oso-oso ona dugu. Lehenagoko trenbide zaharraren historiarekin –Arlabanekin...– jendeak haluzinatu egiten du... Gatz Museoa ederra da. Edo Dorleta bera. Orain, Eskoriatzakoekin batzen hasi gara, eta Atxorrotx eta Dorletako santutegiaren bueltako eraikina garai berekoak dira, orain dela 2.000 urte baziren-eta bien aztarnak. Deba ibaiaren jaiotza da beste elementu bat. Inguruko mendi guztietan haritzak, arteak, pagoak... egundoko bioaniztasuna dugu. Udaberritik aurrera hau guztiau ikusgarria da".

### Azken-azken legealdia

Halakoak eta beste hizpide izan ditu Leintz Gatzagako alkateak Goienan asteon. Eskualdeko telebistan agintaldiaren errepasoa egin du, *Harira* saioan –martitzenean emititu zuten, baina errepikatu egingo dute; ikus. 36. orria–. Eta GOIENA paperean, berriz, aurrekontuen gaineko xehetasunak landu ditu. Eta, batez ere, berretsi eta ziurtatu du lau urtez zinegotzi eta hamasei urtean alkate ibili ondoren, aurten bai, aurten erretiroa hartuko duela, seguru.

**EUGENIO OTSOA** | LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA

## "Uztailean gatza saltzen hasiko garela uste dugu"

Bere belaunaldikoen eta gazteen artean 30 urteko desberdintasunak pentsaera desberdina markatzen duela argi du Otsoak, eta uste du berriei bidea utzi egin behar zaiela.


UBANE MADERA

**Zerrendak zelan dituzue?**
Nik dakidala, ez dugu alkategairik. Zurrumurrurik ere ez dago, eta, normalean, azken ordura arte ez da izaten. Hemen astun samarra da lau urterako konpromisoa hartzea, baina auzolanetan eta herritarrak biltzen diren lekuetan berba egiten dutela ikusten da: "Hau norbaitek hartu beharko du...", diote.

**Leintz Gatzitzen proiektua izango dute langai nagusietako bat; ze puntutan dago?**
Diputazioak emandako diruarekin, antzinako gatz fabrika oinarri hartuta landutako bideragarritasun plana da, hiru zutabe dituena: Gatz Museora bisitak. Proiektuak behar duen kopurutik %50 hortik etorri beharko litzatekeela kalkulatzen dugu. Bigarren zutabea, berriz, da gatza produzitu eta saldu. Behintzat, ea gauza izaten garen gatza produzitzeko 1975ean, itxi zenean, bezala: 2.500 bat kilo urtean. Orain ez gara ailegatzen bost kilo egitera egunean. Eta batetik, salduko genuke gatz gesala (salmuera); adibidez, okindegiek-eta erabiltzen dute. Eta bestetik, gatz-lorea (gourmet). Gesaltza Añana da, kasu horretan, guretzat erreferentzia. Elkarte batean gaude denok: Barnealdeko Gatzagak. Merkatua non dagoen badakigu eta berpiztu egin gura dugu negozioa. Uste dugu uztailetik aurrera gatza saltzen hasteko moduan egongo garela. Eta hirugarren zutabea da hori guztia lehiakor egiteko erabiliko dugun sistema: Stirling. Mondragon Taldeko Coprecin, Isean... martxan dute. Gure kasuan, egurrarekin Stirling sistema erabilita, beroa sortu eta argindarra ateratzeko gauza gara. Modu horretan, gainera, egurrarekin lotuta lan apur bat sor dezakegu. Bestalde, Olaun eta Deba erreketatik hartutako urarekin, turbinak edo errotak mugituz, doan izango litzateke museoaren erabilera.

> **"Hemengo hotel eta jatetxeetan hemengo gatza erabiltzen dute"**

**Baduzue finantzaziorik?**
Inportanteena badugu: hemengo baliabideak. Bestalde, hainbat programatan sar gaitezke, laguntzak lortzeko. Animatuta gaude. Lehenengo zutabean negozioa martxan dago: eskolako umeak fideltasunez etortzen dira; bestelako jendearendako ere erakargarria da. Eta 2014an eta aurreko urteetan, ikusten da hortik badagoela diru-sarrera bat. Gainontzeko zutabeak, ba, apurka-apurka.. Jaurlaritzan onartu digute esperientzia bat, *pack* moduko bat: museoa bisitatu, Dorleta bisitatu, herria bisitatu eta hemengo hoteletan eta jatetxeetan hemengo gatzarekin egindako janariak eman.

**Turismoarekin lotuta dago, baina, batez ere, Labideak herritarrei ematen dien zerbitzua. Hor ere aldaketa egon da...**
Guretzat mega-denda da, mega-zerbitzua egiten du-eta. Egunkariak hemen ditugu goizean goiz, lehenengo kafea hartzeko lekua, ogia... behar-beharrezkoak diren gauzak hor ditugu. Horrekin batera, umeendako guneak egokitu dituzte: urtebetetzeak ospatzeko, eskulanak egiteko, eskola txikiaren batzarrak –eta beste asko–, parranda garaian karaokeak... eta hor ibiltzen gara kantu batean. Barruan leku gutxi dagoela esan daiteke, baina kanpoan, udaberritik aurrera, gune hori da herriko guztiendako topalekurik egokiena. Hor bertan batu eta zenbat ideia ateratzen diren, auzolanak...


U.M.

**LEINTZ GATZITZEN: LAU URTEAN, ZORTZI LANPOSTU** Gatz Museoa berrituta dago, Kultura Sailetik jasotako diruekin. Orain, handitzeko fasean daude. Gatzaren produkzioa berreskuratu eta hura merkaturatu egingo dute: gesala eta gatz-lorea. Espero dute lau urtean zortzi lanpostu sortzea. Proiektua finantzatzeko, besteak beste, museoko bisiten diru-sarrerak erabiltzeko asmoa dute. Datuak: 2014an, 3.500 bisitari erakarri ditu Gatz Museoak; 9.000 euro, gutxi gorabehera. Eta gatza produzitzeko eta museoa erabiltzeko energia berriztagarriak baliatuko dituzte.


U.M.

**ESKOLA TXIKIAREN ALDE BORROKAN** Urtarrilean egon ziren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza delegazioan. Han azpimarratu zieten gaur egungo hezkuntza zerbitzua –0-6 urte artekoa– mantendu egiten dela. "Eta bagabiltza Lehen Hezkuntza eskaintzaren atzetik, ea 6 eta 12 urtera bitartekoa lortzerik badugun, aurtengo ikasturtean ez bada –ezetz esan dute, hasiera batean–, hurrengo batean. Edozelan ere, jangela eta beste zenbait zerbitzu jarrita –horiek onartuko dizkigutela esperantza badugu–, ea lortzen dugun gaur egungoak baino ume gehiago bertan gelditzea. Hemen bertan dago oraina eta geroa", azpimarratu du alkateak.


U.M.

**DORLETAKO SANTUTEGIA** Ingurua auzolanean berritu dute eta falta dena hala egiteko asmoa dute. Baina itoginak ditu eraikinak. Diputazioko teknikarien proiektuan zehaztu dute 70.000 euro behar direla konpontzeko. "Elizarekin berba egin dugu, eta Dorletako Amaren Txirrindulari Elkartearekin ere bai, ea guztion artean zerbait bultza genezakeen; Dorletak Leintz bailararekin lotura handia du. Ea, teilatua zainduta, 2.000 urte dituen eraikin horren bizitza luzatzerik badugun.




## Xabier Elgezabal | Tatuatzailea

# "Nire bezeroekin asko inplikatzen naiz"

### FITXA

**Liburu bat:** *Papillon,* Henri Charriererena.

**Pelikula bat:** *Los lunes al sol.*

**Bidaiatzeko leku bat:** Costa Rica.

**Musika talde bat:** Stiff Little Fingers.

**Animalia bat:** Katua, hiru ditut.

**Miresten duzun tatuatzaile bat:** Juanma Vazquez.

Ikastolan zebilela, Xabier Elgezabal arrasatearrak argi zuen Arte Ederrak ikasi gura zituela, eta aukera izan bezain laster hortik bideratu zituen ikasketak. Ez zen horretara bakarrik mugatu, gainera. Bizitzaren gorabeherengatik, unibertsitatekoa bukatu ostean, LH-II pareko delineatzaile titulua atera zuen –Marrazketa Teknikoa–, eta horren ostean Diseinu Grafikoa ere ikasi zuen. "Marrazkigintzan esparru guztiak ukitu ditut: artistikoa, industriala eta informatikoa. Eta horrek guztiak balio du tatuatzeko. Beti ateratzen da zerbait", dio. Izan ere, gaur, egubakoitza, inauguratuko du Bergarako estudioa: Rhino Tattoo Shop.

**Ezer berezirik egingo duzue?**
Pintxoak, kanapeak… jarriko ditugu, edariekin eta musikarekin girotuta. Jendeari jakinarazteko hemen gaudela eta guztia prest dagoela. Interesa duten guztiak daude gonbidatuta. 19:00etan zabalduko dugu.

**Zelako tatuajeak landuko dituzu Rhino Tatto Shop estudioan?**
Era guztietako tatuajeak egiten ditut, baina nahiz eta nahiko zailagoak izan, tatuatzerakoan gehien dibertitzen eta betetzen nauena da marrazketa artistikoa eskatzen duten tatuajeak egitea. Tatuaje batean argi-ilunak lantzen direnean erakusten da norberaren dohaina, barruan duena, norberaren eskua. Eta hori gustatzen zait, bereziki.

**Koloreetan…**
Edozein formatu, tamaina eta kolorerekin egiten dut lan.

**Adinak inporta du?**
Nik tatuatu izan dut 65 urteko emakume bat eta 18 urte egin berri dituen pertsona bat. Hori bai, adingabeek gurasoen edo tutoreen baimena behar dute. Beti.

**Arrasatearra izanik, zer dela-eta jarri duzu estudioa Bergaran?**
Arrasaten bi tatuatzaile daude eta Aretxabaletan beste bat dago. Ez zuen zentzu handirik nik ere han inguruan zabaltzeak. Hasi nintzen merkatu-azterketa egiten eta ikusi nuen Bergaran ez dagoela tatuatzailerik, Bergarako perimetro inguruan ere ez, Antzuolan, Oñatin, Elgetan, Soraluzen… nik dakidala, behintzat; eta iruditu zitzaidan leku aproposa zela.

**Lokala goitik behera berritu duzu…**
Berritu, margotu, legeak esaten duenari egokitu, osasun-ikuskapena pasatu… Azken hori, adibidez, oso garrantzitsua da.

> "Higienea asko zaintzen dut; oso garrantzitsua da, eta beharrezkoa"

**Osasun-ikuskapena?**
Bai, higienea. Nik, adibidez, asko zaintzen dut higienea. Hori oso garrantzitsua da; eta beharrezkoa eta interesgarria da kurtso higieniko-sanitarioa ateratzea. Ikasten da azalak zelan funtzionatzen duen, daukagun organorik handiena dela, non tatua daitekeen eta non ez, birusak, eta abar. Higienea oso garrantzitsua da. Eta ikastaro hori oso beharrezko ikusten dut.

**Baduzu beste ezaugarri berezirik?**
Nire bezeroekin asko inplikatzen naizela. Norbait tatuatzera datorrenean, harekin berba egitea gustatzen zait. Adibidez, ze tatuaje egin gura duen argi ez badu, lagundu egiten diot, ideiak emanda, Interneten ikertzen… Neurriak hartzen dizkiot, plantilla landu, bezeroari deitu berriro, eta horren guztiaren ondoren hasten naiz tatuatzen. Gustatzen zait esplikatzea zein izango den prozesu osoa. Bezeroa eroso egoteko. Batez ere, lehenengo aldiz tatuatuko den bezeroari. Eta beti bezeroaren hobebeharrez egingo dut lan, bere interesarengatik. Hau da, bezeroak tatuajea egiteko duen ideia nire ustez ez bada ideia ona, esplikatu egingo diot zergatik ez duen tatuaje hori egin behar. Adibidez, zuri-kolorea azalean sartzea zailena da. Batzuei ez zaie ondo geratzen, beix argi moduan geratzen da… Beraz, norbaitek tatuajearen betegarria zuri askorekin egin nahi badu, nik esango diot ez egiteko halakorik.

**Errinozero arrosa bat da zure logoa…**
Eta begirada sentsualarekin… [Barrez] Nire pasioa animaliak dira. Oso animalia-zalea naiz. Estudioaren izena-eta pentsatzen hasi nintzenean, argi neukan animalia bat izan behar zuela, eta kontrastea gura nuela: errinozeroa oso potentea da, indartsua… eta pentsatu nuen: zergatik ez errinozero arrosa bat begirada sentsualarekin? Ilustrator diseinu grafikorako programarekin sortu nuen logoa eta nire irakasleak eta lehengusuak lagundu egin zidaten. Eta atera zen Rhino Tattoo, vintage eta femeninoa, errimel eta guzti; adarrak ere oso zaindutakoak ditu… Jendeari asko gustatu zitzaion, niri ere bai…

**Estudioa zabaldu ostean, zein izango da zure lan-jarduna?**
09:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara, zapatu goizetan barne.

RHINO
TATTOO SHOP

Gaurtik aurrera zabalik!

Xabier Elgezabal Uribarren

Fraiskozuri 3, behea - BERGARA • Tel.: 620 21 02 49

Posta elektronikoa: rhinotattoobergara@yahoo.es • Facebook: /rhinotattoobergara



Iazko lasterketan korrikalari taldetxoa Irimora bidean. | GOIENA

MENDI LASTERKETA

# "Antzuolako 8 Miliek egin dute lekua egutegian, eta horrek pozten gaitu"

## Domekan 260 lagun abiatuko dira Irimorantz korrika, 10:30ean

XABIER URZELAI | ARRASATE

Geroago eta korrikalari gehiago dago sukarrak jota. Mendi lasterketen birusa aurtengo gripea baino errazago dabil hedatzen, eta Antzuolako 8 Miliak lasterketaren izen-ematearekin gertatutakoak erakusten du hori: "Sekulakoa izan zen, izen-ematea zabaldu eta 17 orduan plaza guztiak beteta genituen, 240 guztira", azaldu du antolatzaile lanetan dabilen Aritz Saidik: "Babesleendako dortsal gutxi batzuk gorde ditugu, baina ez dugu preferentziazko traturik gura izan, eta jende askori esan behar izan diogu sentitzen dugula baina aurten leku barik geratu direla, nahiz eta korrikalari onak izan".

Sukar horrek badu antidotoa, 2015eko lasterketen egutegia: "Antzuolakoak bere lekua egin du egutegian, egonkortu egin da, eta horrek pozten gaitu. Urtea hasteaz batera jendea 8 Miliak probarako prestatzen hasten da poliki-poliki".

**Egutegiko lehena**

Antzuolakoa izango da Debagoieneko lasterketen barruan egutegiko lehena: "Ibilbideari dagokionez ez dago nobedade handirik, Irimora igoko dira korrikalariak, ia 14 kilometroko ibilbidean –835 metroko desnibela–. "Trenbideko zati bat txukundu egin dute, baina ibilbidea urterokoa izango da, eta gerra ederra aurreikusten dugu, lokatz mordoa egongo delako". Antolatzaileek, baina, baztertu egin dute tontorrean elurra egongo denik: "Astean bota duen euriarekin lokaztu egin da dena. Jaisteko beldurrez ibiltzen denak erabil ditzala bastoiak, lagungarri dira".

**Faborito argi barik**

Hala, faboritoen gainean berba egiterakoan, Saidi ez da izenak esatera ausartzen: "Izen-ematea segituan bete zenez, aurrean ibiltzen den jende asko kanpoan geratu da, eta ezin izenik aurreratu. Iazko irabazleak dira gonbidatu ditugun bakarrak –Ekaitz Kortazar eta Leire Fernandez–, baina ezin dira etorri beste konpromiso batzuk dituztelako". Hala, txapela janzteko borroka inoiz baino irekiago egon daiteke.

ESANAK



**"17 orduan bete zen izen-ematea, ez genuen halakorik espero"**

ARITZ SAIDI | ANTOLATZAILEA

DATUA

**260**

KORRIKALARI IZANGO DIRA

Antzuolako lasterketan 240 lagunek eman dute izena, eta antolatzaileek babesleendako dortsal gutxi batzuk gorde dituzte.

DUATLOIA

# Ibilbide berriarekin dator Oñatiko duatloia: oraingoa esprint modalitatean izango da

## Zabalik dago martxoaren 14an egingo duten lasterketarako izen-ematea; distantziak erdira murriztu dira, hori da esprint modalitatearen ezaugarria

X.U. | ARRASATE

Oñatiko Triatloi Taldeko lagunek aurtengo lasterketa antolatzeko zituzten zailtasunak euren alde jarri dituzte. Izan ere, derrigor hartu beharreko erabakiei esker duatloiak beste aurpegi bat erakutsiko du martxoaren 14an. Laburragoa izango da, intentsuagoa, eta, emaitza probaren egunean ikusiko bada ere, ikusgarriagoa izateko osagai guztiak ditu.

**Dena Oñatin bertan**

Ertzaintzak, Eusko Jaurlaritzaren bidez, asko zorroztu ditu zirkulazio arauak, eta lasterketa kopuruak mugatu egin dituzte. Hala, ibilbide berriarekin, antolatzaileek lasterketa egunari eutsi ahal izango diote: "Korrikako lehenengo sektoreak



Atletak 2012ko duatloian, korrika egin beharreko tartean. | JULIO CALLEJA

5 kilometro izango ditu, eta hor ere ibilbidea aldatu dugu. Eta ondoren etorriko da aldaketa handiena, bizikletan Deskargako eta Udanako igoerak alboratu egin ditugulako. Oñatin bertan izango da zirkuitua, duela urte batzuk Oñatin egin zen Euskal Herriko Itzuliko erlojupekoaren antza izango du tarte batean, Zubillagara joan-etorria, eta Etxeaundi jatetxean Usako aldera hartuko dute lasterkariek, Lamiategiko malda gainditu eta hilerritik ostera ere Oñatira jaitsiko dira", adierazi zuen Mikel Larreak *Harmailatik* saioan: "Lehen, ziklistek bizikletak hartzen zituztenean ordubetez hutsik geratzen zen plaza; orain, hobeto jarraitu ahal izango da proba".

Eta esprint modalitateak horrenbeste entrenatu ez direnei ere ematen die aukera: "Distantzia errazagoa da, baina egia da probaren erritmoa bizitzen dela".

ESANAK

**"Ea Lamiategiko maldan proba apurtzen den"**

MIKEL LARREA | ANTOLATZAILEA

IGERIKETA

# Jon Muxika igerilari bergararrak zortzi domina

X.U. | ARRASATE

Bizkar zabala du Jon Muxika igerilari bergararrak (Bidasoa XXI taldea), baina justu-justu jantzi ahal izan zituen joan den astean Euskal Herriko igeriketa txapelketan –gazte mailan eta absolutuan– irabazitako domina guztiak, zortzi izan ziren-eta.

**Zortzitik zazpi urrezkoak**

Horietako lau domina bakarkako probetan irabazi zituen, denak urrezkoak: 50, 100 eta 200 metroko bizkar proban eta estilo librean egindako 200 metrokoan. Eta errelebo-lasterketan beste lau domina irabazi zituen, horietako hiru urrezkoak. Hala, Bergarakoa sasoi betean iritsiko da Espainiako Open-era.

ATLETISMOA

# Euskadiko kros txapelketa irabazi du Aloña Mendik lehenengoz

## Elgoibarren lehiatu ziren atletak; hogei taldek baino gehiagok parte hartu zuten lasterketan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Joan den astean Elgoibarren jokatutako kros txapelketan Aloña Mendi nagusitu zen taldeka. Modu horretan, Aloña Mendi Euskadiko txapelduna da distantzia luzeko krosean. Lehenengo aldia da Aloñak Mendik txapelketa hori irabazten duena.

Javi Gomez da Aloña Mendiko entrenatzailea. Domekako krosean Sergio Gartziak, Yeray Varelak, Mikel Ugartek, Alberto Revueltak, Imanol Cruzek, Tasio Gomezek, Unai Hernandezek, Aritz Ruizek eta Juan Señok parte hartu zuten. Aloña Mendiko kideek azaldu dute azkeneko urteetako kros lehiatuena izan zela domekakoa. 200 atleta baino gehiago izan ziren Elgoibarko irteera puntuan eta hogei talde baino gehiago lehiatu ziren. Aloña Mendik gogor egin behar izan zuen lan podiumera igotzeko.

**Lokatz "asko" zegoen**

Eguraldi euritsua, hotz handia eta lokatza zegoen domekan Elgoibarren. Aloña Mendiko atletendako ez zen egokiena: "Lokatz asko zegoen. Niri ondo datorkit hori, baina beste guztiei ez horrenbeste", azaldu du Sergio Gartziak domekako lehiaren gainean. Lasterketa ondo hasi zutela dio Gartziak, baina kilometroak egin ahala atzean geratzen hasi zirela: "Momentu batean, lasterketa erdialdean, bigarren geunden", dio Gartziak. Baina Aloña Mendiko atletek indarrak atera eta lehenengo postua eskuratu zuten. "Gure atletak azkarrak dira, eta horrelako zirkuituetan ezin da azkar joan; jausi barik mantentzea izaten da helburua", azaldu dute Aloña Mendiko kideek.

Aloña Mendikoekin batera podiumera igo ziren Durango eta Santurtzi.





Yerai Varela, Sergio Gartzia eta Mikel Ugarte Elgoibarko krosean. | ARGAZKIAK: FELIX SANCHEZ

**Espainiako txapelketara**

Elgoibarren lortutako txapelketarekin, gainera, distantzia luzeko Espainiako txapelketa jokatzeko txartela lortu du Aloñak. Espainiako txapelketa martxoaren 1ean jokatuko dute, Cacere-sen. Parte hartuko duten atletak izango dira: Gartzia, Varela, Gomez, Revuelta, Ruiz eta Cruz.

Bestalde, Aloña Mendik distantzia motzeko Espainiako txapelketa jokatzeko txartela eskuratu zuen Azpeitian; edozelan ere, ez dute parte hartuko txapelketan.

Mikel Ugarte oñatiarrak (argazkian, Varela eta Gartziarekin batera) ez du Caceresen parte hartuko. Ugarte promesa da eta Espainiako txapelketan parte hartzeko nagusien mailakoa izan behar da.

**Gaztetxoen emaitzak**

Elgoibarko krosak askorako eman zuen. Aloña Mendiko kadete mailako atletak hirugarren tokian sailkatu ziren taldeka. Kontuan hartuta Aloñako atleta guztiak lehenengo urtekoak direla, "oso emaitza ona" izan da Elgoibarkoa. Emaitza ona izan arren, pena "txiki" bat izan dute: Espainiako txapelketara lehenengo bi taldeak bakarrik sailkatzen dira.

Gazte mailan Dayber Losadak bakarka parte hartu zuen eta zortzigarren tokian sailkatu zen.

Sara Gomezek ere "oso lasterketa ona" egin zuen: "Lehenengo itzulian, putzu batean, bi oinetakoak atera dizkiote. Hala, oinetakoak jantzen geratu behar izan du, eta, ondorioz bederatzigarren tokian amaitu du".

DUATLOIA



Beñat Arnaiz –erdian– Galizanoko sari banaketa ekitaldian. | ANTXINTXIKA

# Arnaiz azterketa ona eginda doa Espainiako txapelketara

KOMUNITATEA GOIENA
ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEA | ARRASATE

Domekan jokatuko duten Espainiako distantzia luzeko duatloi txapelketara begira azken lan-saioak egiten harrapatu du GOIENAk Beñat Arnaiz, arrabolan jo eta ke: "Etxeko lanak dagoeneko eginda daude, eta sentsazio onak ditut", dio Aretxabaletakoak.

Sentsazio on horiek entrenatzaileak baieztatu berri dizkio, watten datu saltsan, eta baita joan den asteburuan Kantabrian lortutako garaipenak ere, Galizanoko duatloian erraz gailendu zen-eta: "Entrenatzaileak aginduta, test moduan hartu nuen lasterketa eta oso pozik geratu nintzen egindako lanaz". Sektore guztietan izan zen onena Arnaiz.

**Neguko helburu nagusia**

Hala, neguko entrenamendu gogorrek domekan eman beharko lukete benetako emaitza, Orihuelako –Alacant– distantzia luzeko Espainiako txapelketan: "Badakit oso jende ona egongo dela, baina ondo ikusten dut nire burua, eta Espainiako txapelketak ez ditut askotan jokatuko; horrenbestez, beldur barik noa, ez dut ezer galtzeko. Ezer arrarorik gertatzen ez bada, aurrealdean ibil naiteke. Ea ezusteren bat eman dezakegun".

FUTBOLA

## Bergararen eta Antzuolaren arteko derbia zapatuan

Bi talde horien arteko derbiak beti dira bereziak, baina aurtengoak baditu beste osagai batzuk (zapatua, 16:30, Agorrosin): batetik, zelaian asko dago jokoan, bi taldeak daude-eta egoera kezkagarrian; eta bestetik, Antzuolako entrenatzaile izandako Juanina Garaik debuta egingo du Bergaran (ikus 16. orria). Bestalde, Aretxabaletak eta Aloñak etxean jokatuko dute domekan (16:30); Mondrak, ostera, zapatuan du partidua (16:30).

ZIKLISMOA

## Aloña Mendik zapatuan aurkeztuko ditu aurtengo taldeak

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak gertu ditu 2015ean errepidean lehiatuko diren taldeak. Hala, zapatuan aurkeztuko ditu ziklistak, Etxe Aundi jatetxean egingo duten aurkezpenean (12:00). Aurreko urteotan moduan, oñatiarrek gazte mailan, kadeteetan, infantiletan eta alebin mailan izango dute ordezkaritza. Gainera, aspaldiko urteotan moduan, ez dira ziklismoko taldeak izatera mugatuko, kategoria guztietan lasterketak antolatuko dituzte.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**

Aretxabaleta-Ostadar
Domeka.16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Bergara-Antzuola
Zapartua. 16:30. Agorrosin

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

Mondra-Lagun Onak
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Urola-Aretxabaleta B
Zapartua. 17:30. Zumarraga.

**LEHEN ERREGIONALA**

Añorga-Bergara
Zapatua. 16:00. Añorga.

**OHOREZKO GAZTEAK**

Billabona-Mondra
Domeka. 16:00. Arraizain

Aretxabaleta-Bergara
Zapartua. 17:45. Ibarra.

Amaikak Bat-Aloña Mendi
Zapartua. 16:30. Deba.

**EMAKUMEEN ERREGIONALA**

Mondra-Mutriku
Domeka. 16:30. Mojoategi.

Arizmendi-Oiartzun
Domeka. 18:30. Ibarra

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**

Eskoriatza-Sapuberri
(Zehaztu barik)..

**LEHEN MAILA**

Aretxabaleta-Oiartzun
(Zehaztu barik).

**BIGARREN MAILA**

Mondrate-Power Rangers
Zapatua. 17:15. Musakola.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

Ford Mugarri-Quiron Askartza
Domeka. 12:00. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAP. GIZON.**

Erandio-Bergara
Zapatua. 18:30. Altzaga Kir.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKU.**

Aloña Mendi-Ereintza
Domekan. 12:15. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**

MU-Natural Rioja
Zapatua. 20:30. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**

Leioa-Natra Oñati
Zapatua. 18:00. Leioa.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**

Eskoriatza-Arri BKL
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

**SENIOR BIGARREN MAILA**

Allerru SBT-MU
Gaur. 20:00. Lezo.

Bosteko-Soraluce Bergara
Zapartua. 18:00. Donostia.

**GAZTEAK**

MU–A– - Zast Zarautz
Domeka. 17:30. Iturripe

BKL-Soraluce Bergara
Domeka. 17:30. Beasain.

**PILOTA**

**UDABERRI TXAPELKETA**

**Oñatin:**
Gaur, 19:00etan, hiru partidu:
Aloña-Intxurre (infantilak).
Aloña-Beloki (Kadeteak).
Aloña-Eibar (gazteak)

**Eskoriatzan:**
Gaur, 20:00etan:
Eskoriatza-BeharZana (nagusi.).

**Arrasaten:**
Gaur, 20:15ean, bi partidu:
Arrasate3-Txulobi (alebinak)
Arrasate1-Intxurre (Infantilak).
Zapatuan, 17:30ean:
Arrasate6-Intxurre (alebinak)
Arrasate5-Goierri (alebinak)
Arrasate4-Tolosa (alebinak).

**Antzuolan:**
Gaur, 21:00etan:
Olalde-Euskal Jolas (paleta).

**Bergaran:**
Domeka, 11:00etan:
Bergara-Tolosa3 (kadeteak).

**TXIRRINDULARITZA**

**ALOÑA MENDI TALDEAREN AURKEZPENA**

Zapatua. 12:00. Etxe Aundi jatetxean..

**MENDI LASTERKETAK**

**ANTZUOLAKO 8 MILIAK LASTERKETA**

Domeka. 10:30. Antzuolan.



Azkoitiko antzerki taldeak 1964an Bergaran egin zuen *El Borracho burlado* operaren emanaldia. | URIA FAMILIA

# Atzera begiratu bergararra

- Bergarako askotariko artistek 'Mozkorra parregarri' opera taularatuko dute martxoaren 14an eta 15ean
- Hamazortzi eurotan eskura daitezke udaletxeko aretoan egingo dituzten emanaldietarako sarrerak

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

250 urte geroago, udaletxeko aretoan berriro estreinatuko dute Xabier Maria Muniberen –Peñafloridako kondea– *Mozkorra parregarri,* euskaraz kantatutako historiako lehen opera.

Oraingoan, baina, bergararrak dira Txanton Garrote mozkorraren istorioaren operaren moldatzaileak. Valen Moñux eta Miguel Angel Elkoroberezibar dira horien guztien motorra. "Peñafloridak gura zuen moduan, gure opera euskaraz izango da bere osotasunean; hau da, kantuak zein elkarrizketak. Anastasio Albisuk 1913an egindako itzulpenean oinarrituta, Juan Martin Elexpuruk egin ditu hizkuntzaren orrazketa lanak", azaldu du Miguel Angel Elkoroberezibarrek.

Udalak hasieratik eman zion proiektuari oniritzia, eta horrela berretsi zuen Leire Iruinek, Kultura zinegotziak, astelehenko aurkezpenean: "Ez da edozein istorio. Opera honen bitartez gure historia ezagutzera emango da. Bergara herri kultural bat den beste erakusle bat da honako hau".

Lau emanaldi egingo dituzte, martxoaren 14an eta 15ean: zapatuan, 19:00etan eta 22:30ean; eta domekan, 16:30ean eta 19:30ean. Sarrerak hamazortzi eurotan eskura daitezke toki hauetan: Bergarako kultura etxean, Lazkano eta Lonbide zapata-dendetan, Pikupe Produkzioen bulegoan eta *Bergara.net* atarian.

**Bergararren ospakizuna**

"Garrote mozkorra bide onetik eramateko aitzakiarekin, broma gogor bat egingo diote hiru zaldunek. Broma horrek dakartzan eszenetan oinarrituta dago trama guztia. Obraren bukaeran, bere sasoian tokatzen zen moduan, moral puntua ere badu. Emaitza obra komikoa eta oso polita da", esan du Valen Moñuxek.

Pertsonaia bakoitzerako aukeraketa egitea oso zaila izan dela dio zuzendari artistikoak: "Aktorea izan behar du, baina baita kantaria ere, eta, horrez gainera, ahotsean ezaugarri zehatzak dituena. Edozein operatan moduan, baina gureak beste erronka bat ere bazuen: Bergarako ospakizuna izanik, bergararrekin egin gura genuen; eta baita lortu ere! Amateurrei profesionalen maila eskatu diegu; horren erakusle da, adibidez, Gorka Unamunok ederto borobildu duela mozkor barregarriaren papera".

Hemeretzi aktore-abeslari izango dira taularen gainean. Herriko abesbatzetako kideak eta musika eskolako ikasleak gehienak; horien artean dago Izaro Aperribai, sagar-saltzailea izango da: "Orfeoiko kide naiz eta pozarren hartu nuen Valenek egin zidan parte hartzeko gonbidapena. Guztiz berria izan da niretzat: ez dut sekula antzeztu eta bakarlari moduan ere ez dut sekula kantatu. Esperientzia aberasgarria izan da".

**Birmoldatutako partitura**

Galduta dago Munibek idatzitako partitura originala. Evaristo Espinosa bergararrak geroago egin zuen pianorako moldaketa du bergararrek egingo dutena oinarri. Txemi Etxebarria eskarmentu handiko Bergarako musikariari proposatu zion Moñuxek egin beharreko zuzenketa eta osaketak egitea. "Nire lana izan da pianoarekin jotzeko idatzitako partitura hori hari laukote batendako orkestratzea. Horrez gainera, originalean zeuden bi pieza berri gaineratu dizkiot. Asko ikertu dut, orduko musika estiloa ahalik eta gehien errespetatze aldera. Aberasgarria izan da niretzako ere; asko ikasi dut", dio Etxebarriak.

**Kanpoan ere erakutsiko dute**

Martxoan herrian egingo dituzten lau emanaldiez gainera, bergararrek hitzartuta dituzte dagoeneko Antzuolan eta Elgetan ere *Mozkorra parregarri* erakusteko emanaldiak.

---

**VALEN MOÑUX** | ZUZENDARI ARTISTIKOA
**TXEMI ETXEBARRIA** | OPERAKO ORKESTRAZIO EGILEA

## "Opera dibertigarria eta ulertzeko oso erraza da; zale berrientzako aproposa"

Asko dira modu batera edo bestera proiektuan parte hartu dutenak. Valen Moñux zuzendari artistikoarekin eta Txemi Etxebarria operako orkestrazio egilearekin izan da GOIENA.

**Atzera kontaketa hasita dago. Zelan zaudete?**

Valen Moñux: Egia esan, urtebete pasatu da kontu honekin lanean hasi nintzela, aurrez buruan denbora luzean ibili ondoren. Ametsa izan da beti horrelako egitasmo baten parte hartzea; eta orain, estreinaldia datorrela-eta, oso hunkituta nago, eta, oraingoz, nahiko lasai ere bai.

Txemi Etxebarria: Oso gustura nago ni ere. Domekan egin genuen musikariekin lehenengo entsegua. Denbora luzean musika idazten egon eta gero, plazera izan zen idatzitako partiturak entzutea.

**Txemi, zoritxarrez, ez duzu estreinaldian egoterik izango.**

T. E.: Orain dela hamar urte joan nintzen Maastrichtera (Holanda) tronpa ikasketak egitera eta harrezkero han bizi naiz. Egunotan, baina, zarzuela bat egin behar dugu han; beraz, lehenbailehen itzuli beharra dut. Domekan ikusitakoarekin, baina, konfiantza osoa dut taldearengan. Kide guztiak ezagutzen ditut aspalditik; nire irakasle edo ikaskide izan dira. Oso ondo ulertzen dugu elkar, eta horrek asko erraztu digu lan-dinamika. Iñigo Alberdik, klabezina jotzen duenak, gidatuko ditu gainontzeko kideak aurrerantzean, domekan eman nizkion lau argibiderekin.

**Opera bat da, baina ze ezaugarri musikal ditu?**

T. E.: Musika sinplea da, baina sinpletasun horretan dauka, nire ustez, balioa. Une batzuetan, komiko aldera jotzen du, baina beste batzuetan, berriz, dramatismora egiten du. Entzuteko oso erraza da, baina oso konplikatua, berriz, horrelako obra bat idaztea.

**Musikaz gainera, antzerkitik ere asko du operak. Zelan doaz dekoratuak eta jantziak?**

V. M.: Bi dekoratu egin ditugu: zapata-denda xume bat eta aristokrata baten jauregiko saloia. Asko zaindu dugu XVIII. mendeko estetikari fidela izatea. Bi gizarte klase irudikatu ditugu: behartsuena eta aberatsena. Une honetan muntaia lanetan ari gara. Jantziak eta osagarriak, berriz, kanpoko espezialistek egingo dizkigute.

**Ezer gaineratu gura duzue?**

V. M.: Opera berezia da. Opera-zaleentzako gustukoa, seguru, baina aproposa, era berean, sekula probatu ez dutenentzako.




A. A.

---

IKUSPUNTUA



**MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR**
IKERTZAILEA
'maelkoro@yahoo.es'

## Peñaflorida Bergaran

Bilkura sonatua Bergaran 1764ko irailean: elizkizunak, kukañak, hiru zezenketa, su ikusgarriak,... eta Peñafloridako kondeak idatzi eta musikatutako *El borracho burlado* operaren lekuko izan ziren bergararrak eta euskal aristokraziaren ordezkaritza zabal bat.

Ez zeuden zalduntxo haiek, ordea, denbora-pasarako soilik. Bilkura hartaz baliatu ziren Europako zenbait herriren aldean bizi zuten atzerapenaz eztabaidatzeko eta herririk aurreratuenekin bat egiteko beharra aldarrikatzeko. Testuinguru hartan ezarri zuten Bergaran arteak eta zientziak lantzeaz, industria bultzatzeaz eta hezkuntza hobetzeaz arduratuko zen Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen oinarria.

Peñafloridako zortzigarren kondeak idatzitako opera berriz taularatuko dugu, oraingoan euskara hutsean. Peñafloridako hamaseigarren kondea ere han izatekotan da, udaletxeko batzar aretoan elkartuko garen bergarar eta kanpotik etorritako ikusleen ondoan. Ea XXI. mendeko bilkura honek ze fruitu ematen duen.

# Espaloiko monologistak, barrea eragiteko gertu

J.J. Vaquerok eta Iñaki Urrutiak zabalduko dute gaur hirugarren mostra

**A. ARANBURUZABALA** | ELGETA

Espaloia barrearen topalekua izango da hirugarrenez. Gaur hasita, bakarrizketen esparruan oso ezagunak diren sei artista izango dira; Elgetan sekula egon gabekoak guztiak; ez, behintzat, aktore-rol horretan.

J.J. Vaquerok eta Iñaki Urrutiak zabalduko dute egitaraua. *En bruto* ikuskizun berriarekin datoz. Gaurkoaz gainera, bihar, zapatua, beste emanaldi bat egingo dute (22:30). Datozen bi asteburuetan ere ikuskizun bakoitzeko bina saio egingo dituzte.

*Queque* izango da hurrengo asteburuan. *Malditas canciones* ikuskizuna ekarriko du *El Club de la comedia* saioko kide beteranoak. Gitarra-jotzaile batekin izango da, kantu ezagunak aitzakia hartuta publikoa barrez lehertzera", dio Asier Alvarez de Arkaiak, antolatzaileak.

Hirugarren asteburuan, berriz, euskal aktoreak izango dira Espaloiko taularen gainean: Gemma Martinez, Asier Hormaza eta Maribel Salas.



Iñaki Urrutia. | TTIPIA KULTURA SUSTAPENA



J.J. Vaquero. | TTIPIA KULTURA SUSTAPENA

## Umore beltza eta fina batuta

Bataren zein bestearen istorio onenak txandakatuta, Urrutiak eta Vaquerok elkarrekin bi orduko saioa egingo dute. Telebistan eta irratian saio asko egindakoak dira; besteak beste, *El Hormiguero*, *Paramount Comedy* eta *Euskadi Comanche*. "*Monologoen miura zezena* deitzen diote Vaquerori, taularen gainean dena ematen duelako. Umore beltza eta oso azkarra du; adi ez bazaude, txisterik onenak galtzeko arriskua duzu", dio Alvarez de Arkaiak.

Miguel Gila zena oso gustuko zuen Urrutiak, eta hari keinutxoa egiteko ohitura du; Gilak bezala, kolore beltza eta gorria ditu gustuko taularen gainera igotzeko. "Iñakiren umorea ere azkarra da, baina finagoa eta zuriagoa ere bai. Duda barik, *Stand up comedy*-ko bi izar handi dira", gaineratu du.

## Bonuak ere salgai

Saio bakoitzeko sarrerak 15 eurotan eskura daitezke leihatilan, –bazkideek 12 eurotan–, eta *on line* ere bai: *Kulturalive.com* atarian, hain zuzen.

Hiru asteburuetarako bonua erosteko aukera ere badago; 30 eurotan eskura daitezke horiek, aurrez aipatutako tokietan.

# Zinema ziztadak

**KOMUNITATEA GOIENA** | HUHEZI (MU)
NEREA GIL | ARETXABALETA

Aurtengo Huhezinema jaialdiaren kartela dagoeneko ikusgai dago.

Zinema jaialdia antolatzen gabiltzan taldeko kideok egin dugun ideia zaparradaren ondoren, erleak, erlauntzak, ziztadak eta eztia izan dira garaile. Erlauntzak lantalde handi bat bezala ulertzen ditugu, film labur bat egiteko orduan beharrezkoa den lantaldearen parekoak. Zinemagintza erlauntz handi bat bezala ikusten dugu, non erleek gogotsu egiten duten lan, nork bere ekarpena eginez, elkarrekin obra handi bat egiteko helburuarekin.

*Zinema ziztadak* izango da zortzigarren edizioaren leloa. Sentsazioetara jo nahi izan dugu horrekin: emozioetara, zentzumenetara. Film laburrak, laburrak izanik, ziztada bat bezala sartzen zaizkigu. Horietan kontatzen diren istorio batzuk gurekin gelditzen dira, zainetan gora eta behera.

Bidal ezazu zure filma, zure ziztada, martxoaren 17a baino lehen. Ea zenbati egiten dion zizt!

Informazio gehiagorako, *Huhezinema.com*.




Aurtengo edizioa iragartzeko egindako kartela. | HUHEZI

# Xavier Alvarez de Eulateren pintura lan batzuk jarri dituzte ikusgai Donostian

Arantzazuko Adiskideek eta Arantzazu Gaur Fundazioak antolatu dute

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Xavier Alvarez de Eulatek Bibliako motiboari egindako interpretazioak jarri dituzte ikusgai Donostiako Santa Mariako basilikan. Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak antolatutako erakusketa da eta Edorta Kortadi arte kritikoa izango da komisarioa.

## Kortadi

Alvarez de Eulaterenak dira Arantzazuko santutegiko tximeleta formadun beirateak, baina pintura ere urte askoan landu zuen eta horren adibide dira Donostian jarri duten *Sasian sutan* erakusketako lanak. Guztira, 21 margolan daude ikusgai, hamaika artelan handi eta hamar oholtxo. Serie horrek, baina, ia berrogei obra ditu.

Edorta Kortadiren esanetan, Moises Yahveren indarraz oharturik zeneko pasartea da Alvarez de Eulaterendako Bibliako gustukoena, eta hori dute oinarri erakusketa horretako pinturek. "Sutan dauden sasi-adarrak oinarri izanik, sugarrak bihurrituz, hamaika joko plastiko egin zituen. Seriea osatzen duten obra batzuen ikonografia naturalistagoa da. Beste batzuetan, berriz, sasiak kolore hutsa dira, duten izaera argitsuarekin, ia abstraktuak. Kolore gorriak, horiak, urdinak, okreak. Denak balio izan zion gai indartsu hori islatzeko. Desberdinak dira, egiaz, elkarren artean, baina koadro guztiek irudikatzen dute, suaren baitako hutsean, leku mistikoa, agerkunderako espazioa. Sasi sutu hauek otoitz eta kontenplazio eztanda dira. Arimaren ikuspen sakonak. Ezin hobeto erakusten dute Álvarez de Eulate margolari mistikoaren izaera eta gogoa", azaldu du Kortadik.



Artelak Donostian. | IÑAKI BERISTAIN

Egilea donostiarra izan arren, Nafarroan ospe handiagoa izan zuen, frantziskotarren Erriberri komentuan zuen lantegia-eta. Hala, erakusketa honekin haren lanak Gipuzkoako publikoak ere ezagutu ditzan lortu gura da.

Erakusketa apirilaren 5era arte egongo da zabalik.

# Ray Fernandez kubatarrak Oñatiko gaztelekuan joko du eta sarrerak salgai daude

Otsailaren 28an izango da, 22:30ean; Euskal Herrian eskainiko duen lehen kontzertua izango da

**O.E.** | OÑATI

Ray Fernandez musikari eta trobadore kubatarrak zuzenean joko du hilaren 28an Oñatiko gaztelekuan. Euskal Herriarekin lotura handia duen arren, lehen aldiz dator hona eta hauxe izango da Euskal Herrian egingo duen lehen kontzertua. "Aspaldiko ametsa da Euskal Herria ezagutzea. Euskaldun asko ezagutzen ditut Kuban eta herri honen balioak, historia, hitza eta sukaldean aritzeko ohitura on hori euren bitartez ezagutu ditut", dio.

## Ruper Ordorikarekin

Zazpi urte inguru zituela gitarra sobietarra oparitu zion aitaitarengandik datorkio musika zaletasuna. Musika estilo guztiak gustatzen zaizkiola dio eta bere kantuen letrak zaintzea gustatzen zaiola. Euskaraz ere kantatu du inoiz, "Ruper Ordorikarekin, entsegu luze baten ondoren". Euskaraz ez dakiela dio, baina litekeena da euskaraz ere abestea Euskal Herrian egingo dituen emanaldietan. Aukera hori ez du baztertu.

Ray Fernandezek ondoan izango ditu beste hiru lagun: Miguel Valdez, baxuan, Roilan Carballozo, perkusioan, eta Lorenzo Molina, tronpetan.

Gaztelekurako sarrerak Oñatiko Arrano eta Pako tabernetan daude salgai bost eurotan.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Pedro Inazio Barrutia 20an etxebizitza salgai edo errentan. Beheko solairua da. 60 metro koadro erabilgarri. Kalitatezko sukaldea, komuna, logela eta egongela handi eta eguzkitsua. 2009an eraikia. Trastelekua eta igogailua. 25 metro koadroko terraza ederra. Etxebizitzak hobekuntza batzuk eginak dauzka. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 685 71 66 15 edo 658 39 00 63

**Urgentea.** Bergara erdigunean 100 metro koadroko etxebizitza salgai. 245.000 euroan tasatua. Hiru logela, egongela handia, bi bainugela eta sukaldea. Berokuntzarekin. Gas naturala. Dena kanpoaldera begira. Prezioa, 100.000 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 609 36 15 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logelakoa. Jantzita eta berokuntzarekin. 609 79 47 30, 943 76 14 14 edo idatzi helbide honetara: anuki1301@gmail.com

**Bergara.** Martoko kalean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bi terraza eta trastelekua. Hilean 475 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 638 75 90 03

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 657 13 33 44

**Oñati.** Ugarkalden etxebizitza ematen da errentan, "etxebizitza libreetan". Hiru logela, sukaldea, bi komun, egongela eta terraza. Hilean 650 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 645 71 98 84

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Herrian etxebizitza bila gabiltzan hiru gazte gara. Interesa izanez gero deitu zenbaki honetara. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 680 61 96 97

**Arrasate.** Bikote gaztea gara, bi umerekin, eta etxebizitza behar dugu errentan prezio onean. Lana daukagu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 622 05 30 57

**Arrasate.** Kaixo, etxebizitza bila nabil Arrasaten, ahal bada San Andres auzoan. Hilean 400 euro ordain badezaket, hobeto. Nahiago nuke erdi jantzia egotea, nire altzariak eramango nituzke-eta. Interesatuok deitu edo whatsapp-a bidali zenbaki honetara. Eskerrik asko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 699 11 43 23

**Baserri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 619 52 98 04

### 105. ETXEAK OSATU

**Pisukide bila Arrasaten.** Neska langile euskalduna pisukide bila dabil martxotik aurrera. 225 gehi gastuak. Interesatuok deitu. Idoia. 628 59 03 93

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Ibargarain garaje itxia salgai. Autoa eta motorra edo bi auto txiki sartzeko lekua dago. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 647 37 20 48

**Bergara.** Marradun bi garaje salgai Iturriko auzoan, Ozaetan. 636 14 26 00

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Erguin auzoan, Udalpe kalean, 60 metro koadroko lokala salgai. Ura, argindarra eta komuna ditu. Egokia gremioentzat edo etorkizunean etxebizitza egiteko bertan. Solairu bikoitza dauka. Sarrerarako hiru ate dauzka. 610 53 55 49

### 303. ERRENTAN EMAN

**ESKORIATZA**
160m²-koa, 380m²-ko lursailarekin. Jatetxe, pizzeria edo elkartea egiteko gertatuta. Salgai ere bai.
626 21 22 09
943 71 49 61

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da goizez etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko. 619 40 20 54

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska arduratsua, zaintza sozio-sanitarioko ikasketaduna, nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 618 14 71 34 telefonora

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Arrasate.** Atariak garbitzen edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 603 85 29 79

**Arrasate.** Neska arratsaldez edo asteburuetan lan egiteko gertu. Baita orduka ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 622 05 30 57

**Bergara, Antzuola edo Arrasate.** Emakumea etxeko garbitasun lanak egiteko gertu. 632 77 35 38

**Bergara.** Esperientziadun neska euskalduna, goizetan umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. 685 77 40 26 edo 943 76 52 79

**Debagoiena eta Debabarrena.** Lantegien garbiketan edo bestelako edozein lanetan arituko nintzateke. Autoa daukat. Edozein egun eta ordutegitarako gertu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Denetariko garbiketan egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Raquel. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 631 48 33 08

**Debagoiena.** Denetariko garbiketan egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602 69 31 56

**Debagoiena.** Elektrikari, margotzen, iturgin, pladurra jartzen edota pertsianak konpontzen eskarmentua dut. Baita nagusiak zaintzen ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 08 57 69

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaindu edota garbitasun lanak egiteko. Egunez, gauez, orduka edo etxean bertan bizi izanda. 638 59 04 71

**Debagoiena.** Eskarmentua eta erreferentzia onak dituen emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Rosario. 632 85 14 97

**Debagoiena.** Eskarmentudun emakumea gertu zerbitzari, umeak zaintzen edota garbiketa lanetan jarduteko. Magdalena. 697 24 52 31

INMOBILIARIA KOROSTI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 123.600 €.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espoloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska gertu asteburu eta jaiegunetan ume eta nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 674 53 60 59

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile tituludun emakumea nagusiak zaintzeko gertu, egunez zein etxean bertan bizi izanda. Umeak zaindu edota garbiketak egiteko ere gertu nago. Gloria. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 96 45 10

**Debagoiena.** Klinika laguntzailea gertu zaintza lanak egiteko, bai etxean eta baita ospitalean ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Mutil eskarmentuduna gertu garbiketa lanak egiteko. Erreferentzia onak ditut eta gauez ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 679 60 08 48

**Debagoiena.** Mutila eskaintzen da garbitasun lanetarako eta baita nagusiak zaintzeko ere. Esperientzia handikoa nagusien zainketan. Dokumentuak eguneratuta ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan eta hoteletan lan egindakoa naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 662 26 07 09

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago, 14:00etatik aurrera. Baita asteburuetan ere. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602 12 18 27

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu nago. Diana. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 617 11 67 09

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketak egiten edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602 07 12 06

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo elkarteak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 603 63 21 99

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota baserriko lanak egiten lan egingo nuke. Sukaldean ondo moldatzen naiz eta dietista moduan lan egindakoa naiz. Zaintza ikasketak ere baditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 693 72 41 66

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota taberna eta abarren garbiketak egiten lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 666 92 49 92

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia dut. Orduka edo etxean bertan bizi izaten ere bai. Lege paperak ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 603 63 31 55

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko laguntzen. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua sukaldaritza eta geriatria ikasketak dituena, lan bila dabil. Nagusiak zaindu, zerbitzari lanak egin eta abar. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska langile eta arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko gertu. 603 34 58 20

**Debagoiena.** Orduka edo asteburuetan nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610 99 70 46

**Debagoiena.** Orduka, egunez edo gauez lan egiteko gertu nago, nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Pertsona aditua prest adineko pertsonen zaintza eta ardurarako. 696 70 55 09

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ostalaritzan lan egindakoa naiz bai garbiketan eta baita sukaldean laguntzen ere. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Ume eta nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egingo nituzke. 630 74 67 61 edo 943 71 46 60

**Debagoiena.** Umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 71 46 60

**Gidari.** C +E eta gai arriskutsuak eramateko gidabaimenak dauzkat. Jaso-makina baimena eta elektro-mekanika LH1 prestakuntza. Eskarmentua dut gidatzen, mekanikari, banaketan eta ostalaritzan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 676 57 44 18

**Lan bila.** Emakume arduratsu eta eskarmentuduna, etxean bertan bizi izaten, egun osoz, lan egiteko gertu. Edozein herritan lan egingo nuke. Margarita Claros Salazar. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 632 85 03 84

**Lan bila.** Garbitasunean, zerbitzari, sukaldari edota tailerrean lan egingo nuke. Autoa daukat eta berdin zait Euskal Herriko zein lekutan. (Tariq). Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 602 85 04 03

**Oñati.** Eritzaintza laguntzaile titulua duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxeko garbiketak egiteko ere. Orduka eta baita asteburuetan ere. Interesatuak deitu ezazue telefono hauetara: 630 63 18 39 edo 943 25 07 84

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 666 83 21 95

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Oñati.** Ingeleseko eskola partikularrak hartuko lituzke Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 627 91 23 21

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak emango nituzke: matematika, fisika eta arlo zientifikoa. DBH eta Batxilergo mailatan. Ingeniaria naiz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 618 850 245

### 503. BESTELAKOAK

**Gitarra.** Gitarra joten ikasi gura baduzu, nik doan irakatsiko nizuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 673 61 31 27

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** San Bernardo arrazako txakurkumeak salgai. Urtarrilean jaiotakoak dira, konpromiso gabe ikus daitezke. Txertoekin eta desparasitatuta ematen dira. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 66 35 20 edo 646 72 98 47

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak salgai.** Bigarren eskuko sofak, armairuak, telebistarako altzariak eta abar salgai. Prezio interesgarriak. Argazkiak 'Segundamano.es' web orrian, "Gipuzkoa-Oñati" bidez bilatu, edo whatsappez bidaliko dizkizut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 651 70 85 13

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. 699 06 23 95

**Dendarako tresnak.** Ereindajan elkarteak gure baserrietako produktuak saltzeko denda ireki nahi du. Horretarako herritarron laguntza eskatzen dizuegu. Dendaren azpiegiturarako hurrengo gauzak behar ditugu, debalde edo prezio onean: balantza elektronikoa, kaxa erregistradorea, arraskak, hankazko pedaldun iturriak, denda eta biltegirako apalategiak, armairuak, mostradorea, hozkailuak (hiru atekoa eta espositorea), bigarren solairura arteko aldamioa orgatila edo gurdia, arbela, aulkiak, mahaiak, lanparak, fotokopiagailua, proiektagailua, mangera, erosketa saski edo orgatxoak eta oihal zati handiak. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 63 49 19 edo 653 70 84 09

### 805. TRUKATU

**Frantsesa-Gaztelera trukea.** Kaixo, Ophelie naiz, 20 urteko neska frantsesa, eta Bergaran dihardut umezain. Gaztelera hobetu eta lagunak egin gura nituzke. Nik frantsesa erakutsiko nizuke eta zuk niri gaztelera. Ingelesez ere badakit. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 00 337 88 06 71 08

### 807. AURKITU

**Brotxea Bergaran.** Domekan, otsailaren 8an, brotxe bat aurkitu nuen Santa Marinako aparkalekuan. Galdu baduzu, deitu zenbaki honetara: 615 79 61 16

**Ipod-a Aretxabaletan.** Zapatuan, otsailaren 7an, Ipoda aurkitu nuen San Migel inguruan. Galdu baduzu, galdetu ezazu Udaletxean.

### 808. BESTELAKOAK

**Otsailaren 28an BEC-era.** Otsailaren 28an, 09:00etan, azterketa bat daukat BEC-en. Zuk ere ordu horretarako joateko asmoa baduzu eta autoa eta urduritasuna konpartitu nahi badituzu, deitu! Bergaran bizi naiz.Telefonoa: 615 73 45 53

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Neska bila.** 37 urteko mutila naiz eta neska ezkongabea ezagutu nahiko nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 75 76 98

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Laiatz Agirre Igarza**
Otsailaren 26an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Ane Alberdi Sanz**
Otsailaren 23an, 6 urte. Zorionak, Ane. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Jon Cano**
Otsailaren 22an, 23 urte. Zorionak, tio Jon! Oso-oso ondo pasatu eguna eta muxu asko zure iloba Joelen partetik.



ANTZUOLA
**Ekhi Cabo Mundiñano**
Otsailaren 22an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta bizkotxo goxo-goxoa jan! Muxu handi bat aitatxoren, amatxoren eta Inarren partetik.



ARETXABALETA
**Ainhoa Zubillaga**
Otsailaren 22an, 7 urte. Zorionak, *guapisima*. Primeran pasatu eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Haizea Frutos Martinez**
Otsailaren 21ean, 8 urte. Zorionak, *guapa*! Muxu handi bat etxekoen eta, batez ere, aitatxoren eta amatxoren partetik. Ondo pasa dezazula zure urtebetetze eguna!



BERGARA
**Katixa Gallastegi Lete**
Otsailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Muxu asko familiakoen partetik.



OÑATI
**June Barrena Bikuña**
Otsailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Marrubizko muxuak Markelen, Leireren eta Eiderren partetik. Pa!



BERGARA
**Xabat Arando Arbelaitz**
Otsailaren 21ean, urtebete. Zorionak, pottoko! Muxu potolo bat etxeko danen baina, bereziki, Maddiren partetik.



ARRASATE
**Maider Villar Iriarte**
Otsailaren 20an, 9 urte. Zorionak, Maider! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Horrela jarraitu. Muxu handi bat etxekoen partetik!



BERGARA
**Nora Perez Zabaleta**
Otsailaren 19an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, prexiosa! Belarritik bi tirakada eta patxo handi bat etxeko guztien partetik. Bereziki Ane, Jurgi, Elene, Erik eta Irati.



BERGARA
**Iker Perez Marzan**
Otsailaren 19an, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat zuretako. Naiaren, aitaren eta amaren partetik.



ARETXABALETA
**Irune Orueta Dominguez**
Otsailaren 19an, 4 urte. Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu zure urtebetzean eta muxu asko familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
**Danel Lopez**
Otsailaren 17an, 4 urte. Zorionak, maittia! Dagoeneko lau urte beteko ditu gure txikitxoak. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat.



ESKORIATZA
**Oihane Gorosarri Zuazubiskar**
Otsailaren 17an, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat aitatxoren, amatxoren eta Iratiren partetik.



ESKORIATZA
**Naroa Jara Moya**
Otsailaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, Naroa! Ondo-ondo pasatu zure eguna familiako danon partetik. Patxo handi bat, potxola!



OÑATI
**Irati Pelayo**
Otsailaren 16an, 7 urte. Zorionak, Irati! Jada zazpi urte! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Unax Urzelai Olabe**
Otsailaren 16an, 2 urte. Etxekoen partetik, zorionak, artista!



ARETXABALETA
**June Urzelai Olabe**
Otsailaren 16an, 2 urte. Etxekoen partetik, zorionak, potxola!



**Jose Ramon eta Ibai Axpe**
Jose Ramonek 16an, 41 urte eta Ibaik 20an, 2 urte. Zorionak bixoi etxeko danen partetik! Laztan handi bana eta oso ondo pasatu!



ARETXABALETA
**Doltza Lizarriturri**
Otsailaren 16an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, *guapa*! Patxo handi bana zure ahizpa Araitzen eta lehengusina Eleneren eta Pauleren partetik.



ARRASATE
**Erik Delgado Ugarte**
Otsailaren 15ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Egun zoragarria pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Nahia eta June Sancho Garasa**
Otsailaren 12an, urtebete. Zorionak gurasoen eta familiaren partetik.



ESKORIATZA
**Josu Galvez**
Otsailaren 12an, 18 urte. Zorionak Eskoitzako mutilik guapuenari. Eguna ezin ziñun konpainia hobien hasi, baina pastak faltatu izen jatzu! Kar, kar, kar. Zure urrezko neskak.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# ASTEA GOIENAN


GOIENA

## Beñat Herce alkateari elkarrizketa

Datorren martitzenean Beñat Herce Eskoriatzako alkatea izango da *Harira* saioan. Lau urteko agintaldian herrian izan diren hainbat konturen inguruko xehetasunak emango ditu; batez ere: Zaldibar antzokia, Jose Arana kalearen obra...

**'Harira'**
Martitzena, 22:00ean


GOIENA

## Debagoieneko Aratusteen saio berezia

Debagoieneko herrietako Aratusteen gaineko saioa izango da egubakoitzean. Desfileetan ikusitako karrozak eta dantzak eta kalean zehar izandako hainbat mozorro ikusteko aukera izango da, festa giroa gogoratzearekin batera.

**Aratusteak saio berezia**
Egubakoitza, 22:00etan

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 20**
- **12:00** Debagoiena Zuzenean
- **12:30** Amaia Dj
- **13:00** Ertzak
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena Zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Amaia Dj
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena Zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Aizank!
- **17:40** Ikusmira
- **18:00** Ur eta lur
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Galdegazte
- **19:30** Amaia Dj
- **20:00** Debagoiena Zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena Zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Aratusteak 2015
- **22:30** Debagoiena Zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Ahotsenea
- **00:00** Debagoiena Zuzenean
- **00:30** Berriak

**ZAPATUA, 21**
- **10:00** Amaia Dj
- **10:30** Idemtitateak
- **11:15** Debagoiena Zuzenean
- **11:55** Astea iruditan
- **12:00** Harira
- **12:30** Galdegazte
- **13:00** Onein
- **13:30** Aratusteak 2015
- **14:00** Amaia Dj
- **14:30** Harira
- **15:00** Debagoiena Zuzenean
- **16:00** Ahotsenea
- **16:00** Astea iruditan
- **16:30** Ikusi irratia
- **17:30** Amaia Dj
- **18:00** Galdegazte
- **18:30** Aratusteak 2015
- **19:00** Debagoiena Zuzenean
- **20:00** Harira
- **20:00** Astea iruditan
- **20:30** Amaia Dj
- **21:00** Aratusteak 2015
- **21:30** Galdegazte
- **22:00** Debagoiena Zuzenean
- **22:55** Astea iruditan
- **23:00** Aratusteak 2015
- **23:30** Ahotsenea
- **00:00** Amaia Dj
- **00:00** Aratusteak 2015

**DOMEKA, 22**
- **10:00** Debagoiena Zuzenean
- **10:55** Astea iruditan
- **11:00** Ahotsenea
- **11:30** Amaia Dj
- **12:00** Aratusteak 2015
- **12:30** Sagarrondotik
- **13:20** Debagoiena Zuzenean
- **14:15** Astea iruditan
- **14:20** Harira
- **14:50** Zorion Agurrak
- **14:55** Idemtitateak
- **15:30** Galdegazte
- **16:00** Amaia Dj
- **16:30** Debagoiena Zuzenean
- **17:25** Astea iruditan
- **17:30** Aratusteak 2015
- **18:00** Sagarrondotik
- **19:00** Harira
- **19:30** Ertzak
- **20:30** Galdegazte
- **21:00** Debagoiena Zuzenean
- **21:55** Astea iruditan
- **22:00** Ahotsenea
- **22:30** Amaia Dj
- **23:00** Debagoiena Zuzenean
- **23:55** Astea iruditan
- **00:30** Harira
- **01:00** Galdegazte

**ASTELEHENA, 23**
- **12:00** Debagoiena Zuzenean
- **13:00** Onein
- **13:30** Zorion Agurrak
- **13:30** Debagoiena Zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Aratusteak 2015
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena Zuzenean
- **16:30** Berriak
- **16:55** Aizank!
- **17:40** Sagarrondotik
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Harira
- **19:30** Amaia Dj
- **20:00** Debagoiena Zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena Zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Harmailatik
- **22:30** Debagoiena Zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Ahotsenea
- **00:00** Debagoiena Zuzenean
- **00:30** Berriak

**MARTITZENA, 24**
- **12:00** Debagoiena Zuzenean
- **12:30** Harmailatik
- **13:00** Ikusmira
- **13:15** Aizank!
- **14:00** Debagoiena Zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Harmailatik
- **15:30** Onein
- **15:55** Zorion Agurrak
- **16:00** Debagoiena Zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ertzak
- **18:00** Amaia Dj
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Galdegazte
- **19:30** Harmailatik
- **20:00** Debagoiena Zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena Zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Harira
- **22:30** Osoko bilkura: Bergara
- **00:00** Debagoiena Zuzenean
- **00:30** Berriak
- **01:00** Harmailatik
- **01:30** Debagoiena Zuzenean
- **02:00** Berriak

**EGUAZTENA, 25**
- **12:00** Debagoiena Zuzenean
- **12:30** Harira
- **13:00** Idemtitateak
- **13:45** Ikusmira
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena Zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Harira
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena Zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Osoko bilkura: Bergara
- **18:30** Berriak
- **18:55** Zorion Agurrak
- **19:00** Amaia Dj
- **19:30** Harira
- **19:55** Zorion Agurrak
- **20:00** Debagoiena Zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena Zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Galdegazte
- **22:30** Osoko bilkura: Arrasate
- **23:30** Debagoiena Zuzenean
- **00:00** Berriak
- **00:30** Harira
- **01:00** Debagoiena Zuzenean
- **01:30** Berriak

**EGUENA, 26**
- **12:00** Debagoiena Zuzenean
- **12:30** Galdegazte
- **13:00** Sagarrondotik
- **14:00** Debagoiena Zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Galdegazte
- **15:25** Zorion Agurrak
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena Zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Osoko bilkura: Arrasate
- **18:00** Ur eta lur
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Ahotsenea
- **19:30** Galdegazte
- **20:00** Debagoiena Zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena Zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Amaia Dj
- **22:30** Debagoiena Zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Galdegazte

## ARRASATE IRRATIA

### 107.7ko Arrasate Irratiko emisioa berriro bueltan

Aste batzuk emititu barik egon arren, berriro bueltatuko dira zuzeneko saioak datorren astetik aurrera Arrasate Irratira. Irratiko tresnerian izandako matxuren konponketak bukatu bezain pronto, ohiko jardunera bueltatuko dira FMko 107.7 uhinean entzuten diren zuzenekoak.

### Txarangoren kontzerturako sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoak Txarango taldea ekarriko du eguenean Arrasateko gaztetxera. Sarrerak eskuratzeko, *irratia@goiena.eus* helbidera idatzi edo 943 25 05 05 telefonora deitu behar da. Fusio musikala helburu izanda, dantzarako aukera aparta izango da talde katalanarekin.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 20** | MORALES | Araba Etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| **Zapatua, 21** | RUIZ | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| **Domeka, 22** | ETXEBERRIA | Zarugalde 42,44 | 943 77 16 30 |
| **Astelehena, 23** | AZCOAGA | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| **Martitzena, 24** | M. FCA AZCOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguaztena, 25** | FDEZ. CORCUERA | Arambarri 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguena, 26** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 20** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 21** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 22** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 23** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 24** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 25** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 26** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 20** | JULDAIN | Kale barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 21** | JULDAIN | Kale barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 22** | JULDAIN | Kale barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 23** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 24** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 25** | IGARTUA | Kale zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 26** | IGARTUA | Kale zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA


Max. 12º
Min. 3º

**ZAPATUA, 21**
Zapatua euritsu dator eta zerua oso hodeitsu egongo da. Eguerdi aldera hasiko da euria, eta arratsaldean gehiago egingo du.


Max. 13º
Min. 3º

**DOMEKA, 22**
Kantauri isurialdean euri gehiago egingo du; hegoaldean hodeitza ez da hain trinkoa izango eta prezipitazioa urriagoa izango da.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Liburutegirako kultura-laguntzaile bi plaza.** Eibarko Udala. Baldintzak: eskola graduatua izatea, LH-leko ziurtagiria, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ziurtagiria edo baliokidea. Euskara: HAEEko 2. HE; derrigorrezkoa. Edukia: liburutegirako kultura-laguntzaileentzako bi lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautaketa-probetara deialdia. Epea: 2015/03/01.

**Hainbat lan eskaintza.** Arrasateko Udalak diru bilketako teknikarien eta administrarien eta administrarien lan poltsa osatzeko deialdiak egin ditu. Epea: otsailak 23.

### BEKAK

**Atzerrian ikasteko Botin bekak: erakusketa komisariatua eta museo kudeaketa.** Botin Fundazioa. Baldintzak: Espainiako nazionalitatea izatea. Arte Ederretan, Artearen Historian, Filosofia eta Estetikan, Literaturan, Humanitateetan edo Artearen Kritikan unibertsitate titulua izatea. 23 eta 40 urte bitarteko pertsonek jaso dezakete beka. Herrialdeko hizkuntza jakitea ezinbestekoa da. Zenbatekoa: 18.000 euro + 12.000 euro. Epea: maiatzak 8.

### LEHIAKETAK

**EUSPOT 2015: Euskarazko *spot* lehiaketa.** Mondragon Unibertsitatea. Huhezi; Aretxabaletako Udala; Arteman Komunikazioa. Baldintzak hauek dira: 16 urtetik gora izatea. Hizkuntza: euskara. Gaia: *Autoak eta pertsonak, elkarbizitza orekatua.* Epea: apirilaren 24a.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

ESKER ONA

## Jose Miguel Egaña Garrastazu



Antzuolan hil zen 2015eko otsailaren 13an, 52 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Egunak argitu aurretik joan zara gure artetik,*
*baina, jakin, zure irrifar eta indar guztiak batuz,*
*batera jarraituko dugula maitatuz.*

**Antzuolan, 2015eko otsailaren 20an.**

ESKER ONA

## Vicenta Aguirrebengoa Gabilondo



Oñatin hil zen 2015eko otsailaren 8an, 101 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, otsailaren 21an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

**Oñatin, 2015eko otsailaren20an.**

ESKER ONA

## Begoña Sorotegi Kortazar

Angel Gabilondoren alarguna



Gasteizen hil zen 2015eko otsailaren 11n, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Aretxabaletan, 2015eko otsailaren 20an.**

URTEURRENA

## Miguel Mugarza Erostarbe



2014ko otsailaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza Oñatiko Mikel Deunaren Eliza Nagusian izango da, zapatuan, 2015eko otsailaren 21ean, 19:00etan.

—

*Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

**Aurrez esker on bertaratzen zareten guztioi.**
**Oñatin, 2015eko otsailaren 20an.**

OROIGARRIA

## Modesto Lekuona Mitxelena

Goienako langile Larraitz Zeberioren aitaita

Oiartzunen hil zen 2015eko otsailaren 14an.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

goiena“

**Goiena Komunikazio Taldea.**
**Arrasaten, 2015eko otsailaren 20an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**
**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 36 61 605 71 24 69
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## HILDAKOAK

**Frantziska Etxebarria Uribetxebarria.** Oñatin, otsailaren 11n. 93 urte.
**M. Luisa Aiastui Arregi.** Oñatin, otsailaren 11n. 92 urte.
**Begoña Sorotegi Kortazar.** Aretxabaletan, otsailaren 11n. 88 urte.
**Frantzisko Murillo Asuncion.** Arrasaten, otsailaren 11n. 75 urte.
**Juana Rodriguez Arkauz.** Arrasaten, otsailaren 12an. 72 urte.
**Jose Migel Egaña Garrastazu.** Antzuolan, otsailaren 13an. 52 urte.
**Julian Lizarralde Beitia.** Oñatin, otsailaren 14an. 88 urte.
**Rosario Diaz de Zerio Gartzia.** Arrasaten, otsailaren 14an. 92 urte.
**Pascuala Zabala Aeta.** Oñatin, otsailaren 15ean. 99 urte.
**Juliana Elexpuru Ezkurra.** Bergaran, otsailaren 16an. 96 urte.
**Andres Altzelai Solana.** Bergaran, otsailaren 16an. 89 urte.
**Barbara Bengoa Argarate.** Eskoriatzan, otsailaren 16an. 88 urte.
**Jose Paredes Diaz.** Aretxabaletan, otsailaren 17an. 96 urte.
**Antonio Perez Larañaga.** Bergaran, otsailaren 18an. 87 urte.



## Gorka eta Lide

Oñatiko Gorka Goitia eta Lide Osinaga gaur, egubakoitza, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunean eta jarraitu horrelako zoriontsu izaten. Patxo handi-handi bat kuadrillakeon partetik!".

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Birdman**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Paddington**
Zapatua: 17:00

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Corazones de acero**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka. 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Tortugas Ninja**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

KULTURA ETXEA

**Birdman**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Noche en el museo**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**

COLISEO

**Bob Esponja: un heroe fuera del agua**
Zapatua: 17:00.

**Mr. Turner**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**50 sombras de Grey**
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

**Alma salvaje**
Zapatua: 22.30.
Domeka: 20:00.

**GASTEIZ**

BOULEVARD

**Birdman**
Egubakoitzetik eguenera: 22:35.

**50 sombras de Grey**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30, 00:00, 00:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 16:30, 17:00.
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:00, 21:00, 21:30, 22:00, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:00.
Eguena: 22:00.
Eguaztena: 16:00, 17:00.

**El francotirador**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 18:35, 18:45, 20:35.
Eguaztena: 16:00, 18:45.

**El libro de la vida**
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka eta eguaztena: 16:35, 18:35, 20:35.

**Bob Esponja: un heroe fuera del agua**
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:00, 20:10.
Domeka: 15:50, 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.
Eguaztena: 15:50, 18:00.

**Bob Esponja: un heroe fuera del agua, 3D**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:10.

**El destino de Jupiter**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Annie**
Zapatua, domeka eta astelehenetik eguenera: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 18:00.

**The imitation game**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Corazones de acero**
Egubakoitzetik domekara: 22:15.

**Las ovejas no pierden el tren**
Egubakoitzetik eguenera: 18:05, 20:10.

**La teoria del todo**
Egubakoitzetik domekara: 19:55.
Astelehenetik eguenera: 19:45, 22:15.

**The interview**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 22:25.
Eguaztena: 15:30.

**Big hero 6**
Zapatua eta domeka: 15:35.

**Mortadelo y Filemon contra Jimmy el cachondo**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

**Paddington**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

**Into the woods**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Dios mio, ¿pero que te hemos hecho?**
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Astelehenetik eguenera: 22:30.
Eguaztena: 15:30.

**La isla minima**
Egubakoitza eta zapatua: 22:20, 00:30.
Domekatik eguenera: 20:10, 22:20.

**Boyhood**
Astelehenetik eguenera: 18:40, 21:50.
Eguaztena: 15:30, 18:40, 21:50.

**El gran hotel Budapest**
Astelehenetik eguenera: 17:45.

**Relatos salvajes**
Astelehenetik eguenera: 22:15.

FLORIDA

**El Francotirador**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

**Timbuktu**
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Las ovejas no pierden el tren**
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 18:30.

**Bon Esponja: un heroe fuera del agua**
Egubakoitza: 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**La teoria del todo**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:50.

**The imitation game**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Birdman**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**Wiplash**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50.

**Stand by me Doraemon**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Big hero 6**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**50 sombras de Grey**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Foxcatcher**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Alma salvaje**
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

**La isla minima**
Egubakoitzetik domekara: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Into the woods**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

**Nigth crawler**
Egubakoitzetik domekara: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

## KRITIKA

# Kirola baino gehiago

**RED ARMY** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Gabe Polsky.
**Herrialdea:** Xxxx.
**Mota:** Dokumentala

Izotz-hockey kirolean kokatzen den dokumentala da *Red army*. Honetan, ikus daiteke genero ezberdinen mugak ez daudela hain garbi. *Red army* dokumentala da: elkarrizketak eta artxiboko irudiak agertzen direnez, argi dago ikerketa bat dagoela garai bateko egoerak eta ezaugarriak azaltzeko. Hori horrela, fikziozko lanetan agertzen diren teknikak ere erabili ditu. Kasu batzuetan, ematen du elkarrizketatuen keinuak eta portaerak prestatuta edo zuzenduta daudela. Kasu batzuetan, informazioa ezkutatu egiten da ostean istorioari biraketa bat emateko. Bide ezberdinak daude istorioaren interesa mantentzeko.

*Red army* izena Sobietar Batasuneko hockey taldeari dagokio. 80ko hamarkadan munduan zegoen talderik indartsuena zen; garaiezina zirudien. Taldeko entrenatzailea aldatu zuten. Lehenengoak hockeyari ukitu artistikoa ematen zion. Haren ordezkoak komisario politikoa zirudien. Kirolariak urteko hamaika hilabetetan etxetik kanpo zeuden, familiatik aldenduak, gogor entrenatzen eta partiduak jokatzen. Kirola baino gehiago zen, eta taldearen garaipenek komunismoaren indarra adierazten zuten. Jokalariak esplotatuta sentitzen ziren. Garaiak eta munduko politika aldatuz joango dira. Mugak zabaltzen hasiko dira eta kirolariek AEBetara joateko aukera izango dute. Beste kultura eta sistema bat ezagutuko dute. Sistema kapitalistak ere bere ezaugarri bereziak ditu eta moldaketa ez da erraza izango. Horrela, kirolariek bi kultura desberdinetako alde onak eta txarrak ezagutuko dituzte. Kirolari horien istorioaren bidez, 30 bat urtean munduan izandako aldaketak ikusiko ditugu.

*Red army* lan interesgarria da. Oso ezaguna egiten ez zaigun kirol batean murgiltzen bada ere, horren bitartez komunismoaren eta kapitalismoaren arteko lehiaren azalpena egiten du.

ANTONIO ZABALA



GOIENA

**ARRASATE 'Hitzak haizeak eramaten ditu'**
Kirmen Uribek bere hiru liburutako pasarteak irakurriko ditu Euskadi Brass Ensemble haize taldekoen musikak lagunduta. *Bitartean heldu eskutik*, *Bilbao-New York-Bilbao* eta *Mussche* izango dira emanaldiaren oinarriak.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:00etan.

**ELGETA Vaquero eta Urrutia**
J.J Vaquerok (otsailaren 20an) eta Iñaki Urrutiak (otsailaren 21ean) hasiko dute Elgetako Monologo Mostra. Telebistako hainbat saioren bidez ezagun egin diren umoristak izango dira aste bukaerako protagonistak. Sarrerak Espaloian, Bergarako Pol-Pol tabernan eta *Kulturalive.com* atarian eros daitezke.
Aipatutako egunetan, Espaloian, 22:30ean.



# NON-ZER

OTSAILA **20**
OTSAILA **26**

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## ANTZERKIA

**ANTZUOLA Bakarrizketa saioa**
Aitor Arregi *Ximel*-ek *Euskaldun baten biziak, Kristoren edadian* delako bakarrizketa saioa egingo du. Sarrera doan.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

## DANTZA

**ELGETA Herrixa Dantzan**
Herrixa Dantzan saio berezia egingo dute Txertubi taldearekin. Arkaitz Minerrek, Txus Aranburuk eta Amaiur Cajaravillek ipiniko diote musika Patxi Monterok gidatuko duen saioari.
Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.

## GAZTELEKUAK

**BERGARA Batzarra**
Batzarra egingo dute gazteek.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:30ean.

**OÑATI Saskibaloi txapelketa**
Topalekuko VII. txapelketa jokatuko dute. Izenak txapelketa hasi aurretik eman behar dira.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 19:00etan.

**ARRASATE Irteera eskiatzera**
Valdezcaray eski estaziora joango dira egun-pasa.
Bihar, zapatua, Garibain, 06:30ean.

**OÑATI Mahai-futbol txapelketa**
Kuboko VII. txapelketa jokatuko dute. Izenak txapelketa hasi aurretik eman behar dira.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan.

**BERGARA Taldekako txapelketa**
Herri kirol txapelketak jokatuko dituzte gazteekin.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**BERGARA '21 gramos' filma**
Alejandro Gonzalez Iñarrituren pelikula emango dute. Sean Penn, Benicio del Toro, Naomi Watts eta Charlotte Gainsbourg dira pelikulako protagonistak.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Dokumentalak**
Mendiari buruzko hainbat dokumental emango dituzte.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:30ean.

**ARETXABALETA Kirol jarduerak**
Kirol jarduerak egingo dituzte gaztetxoekin.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:30ean.

**ARETXABALETA Eski irteera**
Valdezcaray eski estaziora joango dira egun-pasa.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 07:00etan.

**ESKORIATZA Eski irteera**
Valdezcaray eski estaziora joango dira egun pasa.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 07:00etan.

**ARRASATE Ate irekiak**
Usaetxeko, Okendoko eta Santa Marinako ludoteketan.
Otsailaren 26an, aipatutako lekuetan.



MOBYDIC

**OÑATI MobyDick bakarlaria Antixenan**
Bakarlari getxoztarrak gitarra doinuekin eta ahots sendoarekin beteko du gaztetxeko oholtza. Hainbat taldetan ibili ostean, bakarkako bideari ekin zion eta *Cotard Delusion* diskoa grabatu zuen. Sarrerak, hiru euro.
Gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean, 22:00etan.



ECOTEUVE.ELECONOMISTA.ES



GOIENA

**ARRASATE Anger eta Libe gaztetxean**
Anger eta Libe taldeek zuzenekoa egingo dute gaztetxean. Biek ala biek, iaz, Bonberenea Ekintzarekin elkarlanean kaleratutako diskoak aurkeztuko dituzte, *Sute perfektua* eta *Ihesaldi handia,* hurrenez hurren. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.



KULTURKLIK.EUSKADI.NET

**BERGARA Antzerki zikloa hasiko dute**
Hiru emanaldi egingo dituzte: *Zazpi aldiz elur* (otsailaren 20an, pilotalekuan, 22:00etan), *Arren ganbara emeen sotoa* (otsailaren 21ean, Zabalotegin, 20:00etan) eta *Mollie Malone, ipuin sinestezina* (otsailaren 22an, Zabalotegin, 18:00etan)
Aipatutako egunetan, orduetan eta lekuetan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Vicente Iriondo**
Gaur da margolan erakusketa ikusteko azken eguna.
Otsailaren 22ra arte, Aroztegi aretoan.

**ELGETA Jorge Murgiondo**
Argazki erakusketa ikusgai.
Martxoaren 8ra arte, Espaloian.

**ARETXABALETA Carlos Diez**
*Inintencionadamente* delako erakusketa ikusgai.
Otsailaren 28ra arte, Arkupen.

**OÑATI Bisoia hizpide**
*Ingurumen mehatxatua; gure bisoia galzorian* delako erakusketa ipini dute Ingurumen Jardunaldien barruan.
Martxoaren 1era arte, kultura etxean,

## LITERATURA

**OÑATI Irakurle taldearen analisia**
Yolanda Zuñiga idazle galiziarraren *Post-it bizitzak* liburua izango dute berbagai.
Gaur, egubakoitza, Antixenan, 18:30ean.

## BERTSOLARITZA

**ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketa**
Laugarren finalerdia jokatuko dute. Honako bertsolariak igoko dira oholtzara: Oihane Perea, Jon Ruiz de Pinedo, Unai Bengoetxea, Irati Anda, Ruben Sanchez eta Iker Agirre aramaioarra. Aintzane Irazusta, berriz, ibiliko da gai-jartzaile lanetan.
Bihar, zapatua, kultura etxean, 17:30ean.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Bisoi europarra galzorian; Gipuzkoako LIFE proiektua'**
Foru Aldundiko basanimalien eta basalandareen zerbitzuko buru Iñigo Mendiolak eta biologian doktore eta LIFE Lutreolako teknikari Jorge Gonzalezek egingo dute berba, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldien barruan.
Otsailaren 24an, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI 'Giza historia ikuspegi energetikotik'**
Natur Eskolako hezitzaile Aimar Uribesalgok egingo du berba, Natur Eskolak antolatutako ingurumen jardunaldien barruan.
Otsailaren 25ean, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI 'Okerra al da Oñatiko gazteen hizkera?' eztabaida**
*Okerra al da Oñatiko gazteen hizkera* delako eztabaida irekia egingo dute gaztetxean. Iritziak emateko eta hausnartzeko gunea zabaldu gura dute gazteek. Dialdia irekia da guztiendako.
Otsailaren 25ean, Antixenan,18:30ean.

## IKASTAROAK

**ESKORIATZA Interneteko prestakuntza ikastaroa**
Amuska elkartearen eskutik askotariko ikastaroak emango dituzte; besteak beste, Open Office, oinarrizko Internet, Google Apps eta sare sozialak. Gaur da izena emateko azken eguna, KZgunean.
Otsailaren 20a da azken eguna.

**OÑATI 'Euskararen isobarak' liburuaren autoformakuntza**
Pako Aristiren liburua oinarri hartuko dute formakuntzarako.
Otsailaren 24an, Antixenan, 18:30ean.

## BISITAK

**ELGETA 'Intxortako atea'-raino**
Gerra zibilari buruzko bisita gidatua egingo dute, Espaloia Kafe Antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik irten eta *Intxortako atea*-n bukatuta. Hiru orduko bisita gidatua izango dela iragarri dute. Hori bai, joateko interesa dutenek aldez aurretik eman beharko dute izena: 943 79 64 63 telefonoan edo *turismo@debagoiena.eus* helbidean. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## AZOKA

**ARRASATE Zuhaitz Eguna eta zuhaitz azoka bat egindа**
Meatzerrekarekin "diskriminazio positiboz" jokatu eta auzoak azken urteetan jasotako "tratu txarrak" konpentsatu gura ditu Arrasateko Udalak. Saneamendu lanak egiteaz gainera, ondare kulturala eta naturala berreskuratu gura dute, besteak beste. Otsailari dogokion baserritarren azokan, ohiko postuez gain, lau mintegitako arbolak ikusi eta erosteko aukera egongo da.
Bihar, zapatua, Seber Altuben, 09:00etan.

**BERGARA 'Domeka Azoka'**
Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko merkatua da *Domeka Azoka*. Etxean erabiltzen ez diren gauzak edo norberak egindakoak erakutsi, trukatu edo saldu nahi dituztenentzako tokia.
Etzi, domeka, San Martinen, 11:00etan.

## ZOZKETA

**LEINTZ GATZAGA Angulak Korrikaren alde**
Leintz Gatzagako Korrika Batzordeak kilo bat angula zozketatuko du hango elkartean. Txartelak bi eurotan salduko dituzte Leintz Gatzagan eta Arrasateko baserritarren azokan. Egunean bertan jakinaraziko diote irabazleari, angulak bizirik zozketatuko dituztelako.
Bihar, zapatua, elkartean, 20:00etan.

## BESTELAKOAK

**ARRASATE Odol-ateratzea**
Laubide plazan egongo dira erizainak eta medikuak.
Otsailaren 24an, Laubide plazan, 09:30ean.

**ESKORIATZA Odol-ateratzea**
Arabako odol bankuko kideak egongo dira Huhezin.
Otsailaren 25ean, Huhezin, 09:30ean.

**DEBAGOIENA Plastiko bilketa**
Siloa estaltzeko, belar boletako eta berotegietan eta ortuan erabiltzen den plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria batuko dituzte. Aurreko egunean atera behar da materiala herri bakoitzean zehaztutako puntuetara.
Otsailaren 25ean, zehaztutako puntuetan.

**ELGETA Mus eta briska txapelketak**
Xalbadorpe elkarteak antolatuta, herri mailako mus eta briska txapelketak. Ez da aldez aurretik izenik eman behar.
Otsailaren 25ean, Ozkarbin, 16:00etan

**ARAMAIO Aurrekontuak adosten**
2015eko aurrekontuak herritarrekin batera adostu gura ditu Aramaioko Udalak. Zirriborroa aurkezteko batzar irekia egingo dute bihar. Herritarren ekarpenak jaso ostean, Ogasun batzordera bideratuko dituzte.
Bihar, zapatua, osoko bilkuren aretoan, 11:00etan.

**ARETXABALETA Herri programa osatzeko batzarrak**
Herri programa osatzen dabil EH Bildu eta lau batzar antolatu ditu datorren asterako: otsailaren 23an (18:30), Hirigintza eta Ingurumena; otsailaren 24an (18:30), Euskara eta Hezkuntza, eta Parte-hartzea eta Komunikazioa; otsailaren 26an (18:30) Kultura eta Kirola; eta otsailaren 28an (10:00), Ongizatea eta Berdintasuna, eta Garapen ekonomikoa.
Aipatutako egunetan eta orduetan, EAren lokalean.

## IZEN-EMATEA

**OÑATI Spinning eta zumba maratoiak**
Zabalik dago bietarako izena emateko epea. Biak ala biak eingo dituzte Oñatin, martxoaren 28an: 10:00etatik 12:00etara zumbakoa, eta 16:00etatik 19:00etara spinningekoa. Izenak Zubikoa kiroldegian edo *Oinati.eus* atarian eman daitezke martxoaren 25a baino lehen, ordainagiria eta izen-emate orriak beteta. Bietan leku mugatuak daude
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.




Zeu irabazle




Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
• Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

ESTACION SERVICIO ARRASATE Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
• % 2ko gasolindegian erregaia erosita.
• % 2ko dendako produktuetan.

EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
• Sarrera bat erosita eta kupoia+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.

goienakluba

943 25 05 05 kluba@goiena.eus | goienakluba.com

goiena
2015-02-20

BUKATZEKO

# Bihar landatuko dute zuhaitza Arbolapetan

- Arrasatearrek aukeratuta hiruzpalau metroko haritza ipiniko dute aurrekoa egon zeneko lekuan
- 114 urte zituen gaztainondoa urriaren 27an moztu zuten 'antracnosi' onddoak jota zegoelako

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Arrasatearren iritzia kontuan hartuta, haritz gazte bat landatuko dute Arbolapetan bihar, zapatua, 13:00etan. *Quercus Robur* da zuhaitzaren izen zientifikoa, 30 eta 35 zentimetro arteko perimetroa du eta 9,5 eta 11 zentimetro arteko diametroa. Altueran hiruzpalau metro izango ditu landatzen dutenean.

Arbola zaharra egon zeneko lekuan 4,20 x 1,20 metroko dimentsio zilindrikoa eta hamazazpi metro kubikoko bolumena duen zuloa zabaldu dute. Erdian ipiniko dute haritza. Gero, azaleko harlauzak jartzeko, altuera jakin bateraino beteko dute zuloa geruzaz geruza, hormigoi oinarri trinkoa izan dezan.

Bukaeran ipiniko dituzte jatorrizko zoladurako harlauzak eta haritzaren metalezko babesa. Lanok egiten dituzten bitartean, babestu egingo dute ingurunea, herritarrendako arriskurik egon ez dadin.




Atzo, eguena, hasi zituzten arbola landatu aurreko lanak egiten. | J. BEREZIARTUA

### Hiru adarrekin geratu zen

Arbolapetan zegoen gaztainondoa 2007ko ekainean hasi zen bere egoera kaskarraren lehen zantzuak erakusten: bi adar erori zitzaizkion, eta txosten bat egin zuten zuhaitzaren benetako egoera ezagutzeko. Teknikariek uste zuten adar berriak irtengo zitzaizkiola eta hausturek sortutako zuloa beteko zutela.

Baina urtero inausketak eta ikuskapenak egin arren, gaztainondoaren egoerak txarrera egin zuen. Hain zuzen ere, *antracnosi* onddoa zuen etsai nagusi. 2010eko irailean tamaina ertaineko adar bat erori zitzaion eta hirurekin geratu zen. Arbolaren zati batzuk usteltzen hasita zeudela ikusita, zuhaitz osoa moztea erabaki zuen Udalak.

### 'Agur eta ohore'

Eta erabakia ezagutzera eman bezain pronto hasi ziren gaztainondoa omentzeko ekitaldi herrikoiak. Arrasaten zuhaitz enblematikorik badago, hori Arbolapetako gaztainondoa izan da. Zuhaitzak berak eman dio izena lekuari. Kuadrilla eta herritar askorendako elkargune izan da Arbolapeta.

Udalak arbola moztuko zuela erabaki ostean, herritarrak euren aitortzak egiten hasi ziren. Enborrean *Agur eta ohore* idatzi zuen norbaitek, eta haren arrimuan askotariko argazkiak egin zituzten hainbatek.



Zuhaitzarendako zuloa. | AITOR ARREGI

Bestalde, hainbat herritarren eskutik, agur bero eta hunkigarria egin zioten arbolari urriaren 27an. Omenaldian parte hartu zuten txalapartariek, txistulariek, dantzariek eta Txorbela otxoteak. "Arbola honek 114 urte ditu, eta, beraz, Arrasateko historiaren lekuko eta konplize isila izan da", esan zuten ekitaldian.

Gaztainondoaren ordez zer landatu erabakitzeko, galdetegia egin zuen Udalak herritarren artean. Aukeran zituzten haritza, astigarra eta ezkia. 1.123 boto jaso zituzten eta %55ek haritza aukeratu zuten.

AZKEN BERBA

**ANDER ETXEBERRIA**



## Inauteriei buelta

Lagun bat zapatu honetan mozorrotu da lehenengo aldiz. Inauterien oso zalea ez bada ere, aurten animatu da. Hasieran harritu egin nintzen orain arte parte ez hartzeagatik; baina gero gogoratu nuen Mondragoen egun horrek daukan arrakasta ez dela betikoa. Izan ere, 2006ra arte entzefalograma laua zeukan Karnabaletako larunbatak. Orduan hasi zen berpiztea –aurretik horrelakorik egon bazen– gazte batzuen bultzadaren eskutik.

Gertaera hau izan da azken urteotan herrian izan den fenomeno sozial nabarmenetarikoena: ezerezean zegoen eguna jaiegun bihurtzea. Itzela! 90eko hamarkadaren hasieran larunbat hori suspertzen saiatu ziren Udala eta SUDC, behintzat, ekintza ezberdinak antolatuz: mozorro edo kukumarru lehiaketa, playback jaialdia –asteburuan Goiena telebistak emititu duena–... Baina aldaketarik ez; kalean giro eskasa, harik eta urte askoren ostean aipatutako gazteak agertu ziren arte.

Merezi du fenomenoaren nondik norakoak sakon aztertzea eragiten duten aldagaiak bereizita. Ezagutzea baliagarria izan liteke beste jai batzuei indar handiagoa emateko edota beste arlo batzuetan aplikatzeko.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN

2015
otsailak 21

martxoak 21
apirilak 18
maiatzak 16
ekainak 20
uztailak 18
irailak 19
urriak 17
azaroak 21

Antolatzailea:
Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón
Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:
ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatariek **konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea** eskaintzen dizkizuete.

